


# Euskararen B2 maila

Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)

ISEI-IVEI 2005



**ISEI·IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

[www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



# Euskararen B2 maila

Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)

ISEI-IVEI 2005



**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Argitaraldia: Apirila 2005**

**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**AHOLKU ETA GAINBEGIRAKETA TEKNIKOA:**

Eduardo Ubieta Muñuzuri

**KOORDINATZAILEA:**

Arrate Egaña

**PROBAREN DISEINUA:**

Arrate Egaña, Nerea Iriondo eta Ibon Olaziregi

**KOLABORATZAILEAK:**

ISEIko Francisco Luna, Trini Rubio,

Cristina Irastorza, Alfonso Caño,

Berritzegunetako Gloria Rey,

Ainhoa Imaz, Pello Akizu, Pello Bidarte

**DISEINUA:**

Onoff Imagen y Comunicación / [www.eonoff.com](http://www.eonoff.com)

## AURKIBIDEA

<b>Hitzaurrea</b> .....	<b>7</b>
<b>1. Sarrera</b> .....	<b>9</b>
<b>1.1. Probaren deskripzioa</b> .....	<b>11</b>
1.1.1. Helburuak .....	11
1.1.2. Probaren iturburua eta ezaugarri orokorrak .....	11
1.1.3. Beste eredu batzuk .....	14
<b>1.2. Probaren diseinua</b> .....	<b>16</b>
1.2.1. Irakurmena .....	16
1.2.2. Idazmena .....	17
1.2.3. Hizkuntza ezagutza .....	18
1.2.4. Entzumena .....	18
1.2.5. Mintzamina .....	19
1.2.6. Galdera-sortak .....	22
<b>1.3. Aplikazioa</b> .....	<b>23</b>
1.3.1. Pilotu proba .....	23
1.3.2. Behin betiko aplikazioa .....	23
1.3.3. Lagina .....	24
1.3.4. Mintzamen proba .....	26
1.3.5. Datak eta prozedura .....	27
<b>1.4. Zuzenketa</b> .....	<b>28</b>
<b>2. Eraitza orokorrak</b> .....	<b>31</b>
<b>2.1. Ikasleen eraitza orokorrak (mintzamen probarik gabe)</b> .....	<b>33</b>
2.2.1. Hizkuntza ereduaren araberako eraitza orokorrak .....	33
<b>2.2. Mintzamenarekin egindako probaren eraitza orokorrak</b> .....	<b>34</b>
2.2.1. Mintzamenarekin eraitza orokorrak .....	34
2.2.2. Euskara proba mintzamenarekin eta hizkuntza ereduak .....	36
<b>2.3. Eraitzen sakabanatzea</b> .....	<b>36</b>
2.3.1. D ereduaren .....	37
2.3.2. B ereduaren .....	38
2.3.3. Mintzamenarekin datuetan .....	38

<b>3. Emaizta orokorrak eta oinarrizko aldagaiak</b> .....	<b>43</b>
3.1. Familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	45
3.2. Hizkuntza ereduaren eta familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	46
3.3. Hezkuntza ikastetxeetako sarearen araberako emaitzak .....	47
3.3.1. Sarea eta familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	48
3.4. Ikasleen sexuen araberako emaitzak .....	49
3.4.1. Ikasleen sexu eta familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	50
3.4.2. Sexu eta hizkuntza ereduaren arabera .....	51
<b>4. Emaiztak eta aldagaiak</b> .....	<b>53</b>
4.1. Familiaren giza-ekonomi eta lanbide maila .....	55
4.1.1. Laginaren deskripzioa zhisei balioaren bidez .....	56
4.1.2. Laginaren emaitzak zhisei balioa kontuan izanda .....	57
4.2. Hizkuntza eremuetako emaitzak .....	59
4.2.1. Ikasleen banaketa hizkuntza eremuetan .....	60
4.2.2. Hizkuntza eremuaren eta familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	61
4.2.3. Hizkuntza eremuen eta hizkuntza ereduaren araberako emaitzak .....	63
4.3. Udalerrien tamainaren eta lurraldearen araberako emaitzak .....	65
4.3.1. Ikasleen banaketa udalerrien tamainaren arabera .....	65
4.3.2. Udalerrien tamainaren eta familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	66
4.3.3. Udalerrien tamainaren eta hizkuntza ereduaren araberako ikasleen banaketa .....	67
4.3.4. Emaiztak lurraldeka .....	68
4.4. Ikasleen ikasketa itxaropena .....	69
4.5. Ikasle errepikatzaileak .....	71
4.5.1. Errepikatu duten ikasleen ezaugarriak .....	71
4.5.2. Errepikatu duten ikasleen emaitzak .....	72
4.5.3. Errepikatzaileen emaitzak hizkuntza ereduaren arabera .....	72
4.5.4. Errepikatzaileen emaitzak sarearen arabera .....	73
4.5.5. Errepikatzaileen emaitzak sexuaren arabera .....	73
4.5.6. Errepikatzaileen emaitzak familia hizkuntzaren arabera .....	74
4.6. Familien ikasketa altuenen araberako emaitzak .....	75
4.6.1. Emaiztak familien ikasketa altuenen arabera .....	75
4.7. Aldakortasuna azaltzen dituen aldagaiak euskara proban .....	78
<b>5. Hizkuntza trebetasunen emaitzak</b> .....	<b>83</b>
5.1. Entzumena .....	85
5.1.1. Entzumenaren emaitzak eta ikasleen familia hizkuntza .....	86
5.1.2. Entzumenaren emaitzak eta hizkuntza ereduak .....	87
5.1.3. Entzumenaren emaitzak eta ikasleen sexua .....	87

5.1.4. Entzumenaren emaitzak eta sareak .....	88
<b>5.2. Irakurmena .....</b>	<b>89</b>
5.2.1. Irakurmenaren emaitzak eta familia hizkuntza .....	90
5.2.2. Irakurmenaren emaitzak eta hizkuntza ereduak .....	90
5.2.3. Irakurmenaren emaitzak eta sexuak .....	91
5.2.4. Irakurmenaren emaitzak eta sareak .....	92
<b>5.3. Idazmena .....</b>	<b>93</b>
5.3.1. Familia hizkuntzaren arabera .....	93
5.3.2. Hizkuntza eredia .....	94
5.3.3. Ikasleen sexua .....	95
5.3.4. Ikastetxeen sareak .....	95
<b>5.4. Hizkuntza ezagutza .....</b>	<b>96</b>
5.4.1. Familia hizkuntzaren arabera .....	97
5.4.2. Hizkuntza ereduaren arabera .....	98
5.4.3. Ikasleen sexuarean arabera .....	98
5.4.4. Ikastetxe sarearen arabera .....	99
<b>6. Mintzamenarekin probaren emaitzak .....</b>	<b>101</b>
6.1. Euskara proba mintzamenarekin emaitzak .....	103
6.2. Familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	103
6.3. Hizkuntza eredu eta familia hizkuntzaren araberako emaitzak .....	104
6.4. Ikastetxeetako sarearen araberako emaitzak .....	105
6.4.1. Ikastetxeen sareak eta familia hizkuntza .....	105
6.5. Ikasleen sexuaren araberako emaitzak .....	106
6.5.1. Ikasleen sexua eta familia hizkuntza .....	107
<b>7. Hizkuntzekiko ikasleen jarrerak .....</b>	<b>109</b>
7.1. Euskararekiko jarrerak eta proba gaitzitatea .....	112
7.2. Elebitasunarekiko (euskara eta gaztelania) jarrerak .....	112
7.3. Beste hizkuntzekiko jarrerak .....	114
<b>8. Laburbilduz .....</b>	<b>117</b>
<b>9. Iradokizunak .....</b>	<b>223</b>
<b>Eranskina: itemen adibideak .....</b>	<b>127</b>
1. Trebetasuna: entzumena .....	129
2. Trebetasuna: irakurmena .....	133
3. Trebetasuna: idazmena .....	139
4. Trebetasuna: hizkuntza ezaguera .....	146





## HITZAURREA

Eskuartean dugun azterlan honen garrantzia azpimarratu nahi nuke lehenik eta behin. Nire ustez, aro berri baten hasiera da hizkuntzen ebaluazioan gure Hezkuntza Sistemak. Lehen aldiz dakigu, nazioarteko erreferente bat hartuta, gure ikasleek zer dakiten DBH amaieran eta eredu bat eraiki dugu hurrengo ebaluazioak “*neurgailu*” berberarekin neurtu ahal izateko.

Oso eztabaidatua izan da, zenbait arlotan, irakastereduek ikasleriari ematen dioten hizkuntza maila nahikoa ote den edo jaso ala baxua den. Eztabaida hori daturik gabe egiten zen, gehienetan, eta hona hemen zentzuz diskutitzeko oinarria azkenik. Baina, eskolak hizkuntza gutxiengotuen berreskurapenean izan dezakeen eraginaz zertxobait zekite-nentzat hemen ez da inolako sorpresarik izango.

Eskolak hizkuntzak irakasteko duen ahalmen mugatua gauza jakina da soziolinguistikan eta are gehiago glotodidak-tikan. Eskolak hizkuntza maila mugatu bat besterik ezin dio eskaini ikasleari, hizkuntzak ikasteko naturala den egoe-raren osagai batzuk besterik ez dituelako eta, aldiz, jatorrizko hitzunikiko interakzioa (hizkuntza bat ikasteko era natu-rala), askotan, ziurtatzen ez duelako.

Modu horretara konturatzen gara, hemen neurtzen den euskara mailak errendimendu eskolarren ezaugarriak ditue-la. Eragiten duten aldagaiak ikusi ezker (etxeko hizkuntza kenduta) beste edozein errendimendu eskolarretan ageri diren faktoreak ikus daitezke.

Ez da, hala ere, pesimismoan erori behar. Eskolak bere lana hobetu dezake eta hori da ebaluazioaren helburua: hobe-kuntza. B2 mailaren azterlan honek pauso bat suposatzen du zentzu horretan. Era honetako probak eskaini ezker irakasle eta ikastetxei beraien ikasleriari zer erakutsi eta nola argi eta garbi adierazten zaie. Horrez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak B2 mailaren zertifikazio boluntario bat ezarriko balu, motibazio handi bat izango lit-zateke ahalegintzen den irakasle eta ikaslearentzat. Guk behintzat horrela uste dugu.

Guzti honek alabaina, ez ditu gauzak horretara mugatu behar. Gizarteak jakin behar du ezin duela, azken hogeita bost urte hauetan bezala, eskolaren eskuetan (ia) bakarrik utzi euskararen berreskurapen prozesua. Hezkuntzak lan izuga-rria egiten du, neurri desberdinetan euskara dakiten ikasleak gizarteratzeko, errekonozimendu gutxiz askotan. Baina jakin dezagun hori ez dela nahikoa euskaraz biziko diren ikasleak lortu nahi baditugu. Irakastereduek lortu dezakete maila bat edo bestea baina ez bata ez besteak ere ez du ziurtatzen ikasle guztiak “euskaldunak” izango direnik. Ez dago eskolarik hori lortzen duenik, ez behintzat gizartearen beste arlo batzuetako laguntzarik gabe.

**Josu Sierra Orrantia**  
*ISEI-IVEI-ko Zuzendaria*



Sarrera **1**



## 1.1. PROBAREN DESKRIPZIOA

### 1.1.1. Helburuak

Euskara proba egitean helburu nagusia hau izan genuen: Hizkuntza maila zehatza ezarrita, DBHko 4. kurtsoko ikasle-en euskara ezagutzak neurtzea.

Aipatutako hizkuntza maila horrek zera adierazi nahi zuen: curriculumetik at dauden mailak eta edukiak neurtu nahi zirela –kasu askotan bat badatoz ere-. Maila zein eduki horiek Europako Kontseiluko Hizkuntzen Erreferentzi Markotik<sup>1</sup> bildu ziren, hain zuzen ere Marko horretan deskribatzen den B2 mailatik.

Euskara proba honetan, Erreferentzi Markoaren irizpideak jarraituz, ikaslearen hizkuntza gaitasun komunikatibo eta linguistikoa neurtu genuen; horretarako hizkuntzaren lau trebetasun komunikatiboak hautatu genituen ebaluatzeko asmoz: irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina. Horretaz gain, baita gaitasun linguistiko aldetiko hizkuntza ezagutzak ere barneratu genituen (gramatika, sintaxia, hiztegia eta abar).

Helburu orokor horrekin batera beste helburu hau ezarri genuen: DBHko 4. kurtsoko ikasle-en euskara ezagutzak B2 maila horretara iristen diren ala ez. Gerora begira, maila horren euskara agiria emango duen proba baten aukera aztertuko da.

### 1.1.2. Probaren iturburua eta ezaugarri orokorrak

Esan dugun bezala, proba diseinuan, *Erreferentziazko Europar Markoa* oinarritzko eredutzat jo dugu. Marko honek, printzipio eta intentzioen deklarazioa izateaz gain, didaktikarako oso tresna erabilgarria da. Europan, hamar urte baino gehiagoz garatu egin dira Markoaren inguruko ikerketak, linguistika aplikatua eta pedagogian aplikagarria izatea helmuga izanik. Markoak eskaintzen duen eredu berria bezain zehatzaren bidez, hizkuntzen erabilpena mailakatu eta deskribatu izan da, halaber, hizkuntzek eskatzen dituzten ezagutzak eta trebetasunak sakon ikertu dira.

Hizkuntzen arloko profesional guztiek erabiltzeko egokia da, eta hizkuntzen irakaskuntzaren helburuak eta metodoei buruzko hausnarketa bultzatzen du. Erreferentziazko Marko Europar Bateratua Europako hizkuntzak aztertzeko eta ebaluatzeko irizpide komunak ematen dituen erakundea da. Oinarritzko helburuak dauzka abiapuntutzat eta ez da derrigorrezkoa, orientatzekoa baizik.

Markoak oinarri bateratu batzuk jartzen ditu Europa osoan: hizkuntza programak, curriculum-argibideak, azterketak, testuliburuak eta abar lantzeko. Halaber, hizkuntza ikasleek zer egin behar duten komunikazioan hizkuntza erabiltzeko azaltzen du eta zein ezagutza eta gaitasun garatu behar dituzten eraginkortasunez jarduteko gai izan daitezen.

Marko horrek hezkuntzako kudeatzaileei baliabideak eskaintzen dizkie, ikastaro-diseinugileei, irakasle-hezitzaileei eta, gure kasurako egokia izan dena, ebaluazio erakundeei, hizkuntzei buruzko hausnarketak egiteko orduan.

Helburuen, edukien eta metodoen deskribapen esplicitua egiteko oinarri bateratu bat eskaintzean, Erreferentziazko Markoak ikastaroak, programak eta emaitzak gardenago azaltzen laguntzen du, eta hizkuntza modernoan alorrean nazioarteko lankidetzaren areagotzen. Hizkuntzaren gaitasun-maila neurtzeko irizpide objektiboak jartzeak asko errazten ditu hizkuntzen irakaskuntza zein ebaluazioa.


Markoaren planteamenduak ikuspuntu komunikatibo eta sozio-konstruktibistaren ildoan kokatzen dira. Erabilpen linguistikoa bere testuinguruan hartzen du, hots, komunitate zein kulturarekin lotuta. Kultur aniztasunaren aldekoa da, hortaz, bigarren hizkuntza asko ikastearen alde ere.

1) Council of Europe (2001): *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Strasbourg, 2001. Dokumentu hau gaztelaniaz: Instituto Cervantes (2002): *Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación*. Consejo de Europa, Ministerio de Educación y Deporte, (Anaya), Madrid.


Erreferentziako Markoan hizkuntza gaitasun komunikatiboak garrantzi handia hartzen du, bai eta komunikazioan agertzen diren bestelako agenteak ere: testuingurua, arlo linguistikoa, testua, testuen alorrak, etab. Gainera hizkuntza ikerketetan tradizionalki 4 trebetasun kontuan hartzen badira ere, Markoan 5 hizkuntza trebetasun deskribatzen dira, mintzamen trebetasuneko bi atal agertzen baitira: ekoizpena eta interakzioa.

Markoan, hizkuntza bereganatzeko 3 mailak ezartzen ditu: *oinarrizko erabiltzailea (A)*, *independentea (B)* eta *kompetentea (C)*. Maila bakoitzak bi azpi-mailak ditu, datorren koadroan agertzen den legez, eta maila zein azpi-maila guztiak zehatz-mehatz argitzen dira Markoan.


### OINARRIZKO ERABILTZAILEA



### INDEPENDENTEA



### KOMPETENTEA



Europako zenbait tituluk horren erreferentzia dute honezkero (*First Certificate* ingelesan, *DELE* espainieraz, *Grundstufe* alemaneraz...)

Markoko B2 mailak edo *Maila aurreratuak* Europako Kontseiluaren hirugarren zehaztapena islatzen du. Maila hori honela deskribatu zen: *Gaitasun operatibo mugatua*. Maila honetan ikaslea testu konplexuen ideia nagusiak ulertzeko gai da; testu zehatzak zein testu abstraktuak ulertu behar ditu, eta ikaslearen espezialitatezko testu teknikoak ere.

Ondoko koadroan agertzen den legez, B2 mailako ikasleek bertako hiztunekin ahal dute nahikoa naturaltasun eta jariakortasunez hitz egin; hortaz, komunikazioa aurrera eramaten da hiztunek ahalegin eskerga egin barik. Bestalde, maila honetan ikasleek zenbait gairi buruzko idazki zehatz eta argiak ahal dituzte ekoiztu; halaber, ahal dute gai orokorreari buruzko norberaren ikuspuntua edo iritzia defendatu, emandako aukeren alde edo kontrako argudioak erabiltz.

Datorren koadroan B2 maila agertzen da *Erreferentziako Markoak* markatutako mailen artean:

## 1. KOADROA.

## Erreferentzi maila bateratuak: eskala globala

## Erabiltzaile gaitua

- C2** Erraz ulertzen du entzuten edo irakurtzen duen ia guztia. Iturri desberdinetako, ahozko eta idatzizko, informazioa laburtzeko gauza da, argudioak eta txostenak berreraikitzen ditu, aurkezpen koherentea eginez. Zailtasunik gabe eta berez hitz egiten du, jarioetasun handiz eta zuzentasunez, ñabardurak bereiziz egoera konplexuetan ere.
- C1** Ulertzen ditu testu luzeagoak eta konplexuagoak, eta atzematen du adierazpenen zentzu inplizitua. Jarioetasunez eta zailtasunik gabe hitz egiten du, adierazpenen bila ibili gabe. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzen du helburu akademikoetarako, profesionaletarako eta sozialetarako. Testu argiak, ondo antolatuak eta zehaztuak ekoizten ditu gai konplexuei buruz, erabilera kontrolatua erakutsiz egituretan, lokailuetan eta kohesio-mekanismoetan.

## Erabiltzaile bere kabuzkoa

- B2** Ulertzen ditu gai zehatzei eta abstraktuei buruzko testu konplexuetako ideia nagusiak, bere espezialitateko eztabaida teknikoak barne. Gai da solasean jarioetasun aski onez eta zailtasun handirik gabe parte hartzeko; horrek ahalbidetzen du jatorrizko hitzuneekin tentsiorik sortu gabe hitz egiteko. Testu argiak eta zehatzak ekoizten ditu gai askori buruz eta gauza da gai baten inguruan bere ikuspuntua azaltzeko, beste aukeren alde onak eta txarrak azalduz.
- B1** Ulertzen ditu jasotzen duen informazio normal eta argi baten ideia nagusiak honako alorrei buruzkoak: lana, eskola, aisialdia, eta abar. Gai da erabiltzen duen hizkuntza mintzatzen den lekuan sor daitezkeen egoerei aurre egiteko. Testu errazak eta egituratuak ekoizten ditu bere interesguneari edo gai arruntei buruz. Gai da esperientziak deskribatzeko, ametsak, itxaropenak eta gurariak, eta azalpen laburrak adierazten ditu planak eta motiboak argitzeko.

## Oinarrizko erabiltzailea

- A2** Ulertzen ditu maiz erabiltzen diren esaldiak eta adierazpenak hurbileko gai garrantzitsuetan (adibidez, oinarrizko informazio pertsonala eta familiakoa, erosketak, bertako geografia, lana). Gai da jarduera errazetan eta ohikoetan jarduteko, trukaketa erraza eta zuzena eskatzen denean, egunero gai arruntetan. Gauza da hitz errazekin zenbait gai adierazteko: jatorri kulturala, bere testuinguruko gauzak, eta berehalako premiekin zerikusia duten gaiak.
- A1** Ulertu eta erabiltzen ditu eguneroko esapideak, eta oso oinarrizko esaldiak, eguneroko beharrak asetzeko. Gai da bere burua eta besteak aurkezteko; eta gai da galderak egiteko eta erantzuteko zenbait datu pertsonalei buruz: non bizi den, ezagutzen dituen pertsonak eta egiten dituen gauzak. Era errazan hartzen du parte solasetan, solaskideak mantso hitz egiten badu eta argi, eta laguntzeko prest bada-go.

Koadroan agertzen den legez, B2 mailako ikasleek bertako hitzuneekin ahal dute nahikoa naturaltasun eta jariakortasunez hitz egin; hortaz, komunikazioa aurrera eramaten da hitzunek ahalegin eskerga egin barik. Bestalde, maila honetan ikasleek zenbait gairi buruzko idazki zehatz eta argiak ahal dituzte ekoiztu; halaber, ahal dute gai orokorrei buruzko norberaren ikuspuntua edo iritzia defendatu, emandako aukeren alde edo kontrako argudioak erabiliz.

Hizkuntza trebetasun bakoitzean maila honetako eskakizuna ulertzeko *Erreferentziako Markoko auto-ebaluazioa* atalean ageri den bezala, ikaslea hurrengoak egiteko gai da:

<b>Irakurmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaur egungo artikuluei buruzko arazoak zein txostenak ulertzeko.</li> <li>- Autoreen jarrera edo iritzi anitzak ulertzeko.</li> <li>- Literatura garaikideko prosan idatzizko testuak ulertzeko.</li> </ul>
<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere interesekin lotutako gai askori buruzko testuak idazteko.</li> <li>- Idazlan edo txostenak idazteko, non informazioa azaltzen den edo ikuspuntu zehatz baten alde edo kontrako argudioak azaltzen diren.</li> <li>- Zenbait eginkizun edo esperientziak nabarmentzen diren gutunak idazteko.</li> </ul>
<b>Entzumena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzaldi luzeak ulertzeko edo eztabaiden konplexuen ildoak jarraitzeko, betiere gaia ezaguna izanik.</li> <li>- Komunikabideetako albisteak eta saioak edo euskara batuaz erabiltzen dituzten pelikulak jarraitzeko.</li> </ul>
<b>Mintzamena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere inguruko gaiei buruzko deskripzio argiak egiteko, zenbait aukera kontuan izanda, eta horien abantailak eta eragozpenak azaltzeko.</li> <li>- Naturaltasun eta jariotasunez elkarrizketetan parte hartzeko; hortaz, arazo gabeko komunikazioa ahal du aurrera eraman bertako hitzuneekin.</li> <li>- Testuinguru ezagunetako eztabaidetan ahal du parte hartu bere iritzi edo ikuspuntua emanez.</li> </ul>
<b>Hizkuntza ezagutza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orokor eta inguruko gaiei buruzko hiztegi zabala edukitzeko.</li> <li>- Zalantza lexikoak izan arren hitzak errepikatzea saihesten saiatzeko.</li> <li>- Dituen akats gramatikalek ez diote komunikazioa eragozten, gutxi eta ez-sistematikoak baitira.</li> <li>- Kohesio eta koherentzia egokia du eta idazteko arauak errespetatzeko (gramatikan, ortografian, etab.).</li> </ul>

### 1.1.3. Beste eredu batzuk

*Erreferentziako Marko Europar Bateratuaren* oinarri teorikoaz gain, maila horretako zenbait ebaluazio hartu egin ditugu eredutzat:

- **ALTE<sup>2</sup>**. *Erreferentziako Markoarekin* uztartuta dago eta erakunde horrek dituen mailak eta ebaluatzeneko hizkuntza trebetasunak ditu. Aurreko kasuan bezala, ebaluazio diseinuak baino, ebaluaziorako irizpideak kaleratu ditu. ALTEk adierazitako mailan ikaslea gai izan behar da hizkuntza egiturak menderatzeko, hiztegi aberats bat erakusteko eta komunikazioan estrategiak izateko. Honela deskribatzen ditu trebetasun bakoitzerako behar diren gaitasunak:
  - **Irakurmena**: ikaslea gai da gaineratik irakurtzen dituen testuetan informazio zehatza topatzeko eta jarraibide xeheak edo aholkuak ulertzeko, eta testuen informazio garrantzitsua eta ideia nagusiak ateratzeko.

2) ALTE: *Association of Language Testers in Europe*. ([www.alte.org](http://www.alte.org)). Europako Hizkuntza Ebaluatzaileen Elkarte.



- **Idazmena:** Ikaslea gai da oharrak hartzeko, helburu zehatza duten gutunak idazteko eta idazlan bat idazteko.
- **Entzumena eta mintzamena:** Ikaslea gauza da gai ezagun bati buruzko hitzaldiak ulertzeko eta gai ezagun bati buruz hitz egiteko edo elkarrizketa bat aurrera eramateko.

- **FIRST<sup>3</sup>** ingeles proba Cambridgeko Unibertsitateak prestatzen du. Probak kontuan hartzen ditu bai *Europako Markoa*, bai eta ALTE erakundea ere. *FIRST* proba B2 mailan kokatzen da, hain zuzen ere.

Ospen handiko proba hau 1939 urtetik egiten da, eta oso maiz jarduerak berriztatzen dituzte eta ebaluazio irizpideak aztertzen dituzte. Oso proba sendoa eta bermatua da. Hori dela eta, *FIRSTen* egitura eta jarduerak eredutzat hartu genuen euskara proba egitean.

Trebetasun bakoitzerako horrelako jarduerak ageri dira:

- **Irakurmena:** Gehien erabiltzen diren testu motak hauexek izaten dira: narratiboak, azalpenezkoak eta argudiozkoak, eta testuak luzeak zein laburrak izaten dira. Testuen ingurua literarioa eta komunikabideetako izan da batez ere. Neurtzen den ulermena orokorra zein zehatza izaten da. Galderak eta jarduerak anitzak dira: paragrafoak kokatzea, galderak testuaren bidez erantzutea, erantzun anitzeko galderak, etab. Denak galdera itxiak izaten dira.
- **Idazmena:** Testuingurua emanda, idazki bat burutu egin behar da. Ikasle guztiek idazten dituzte bi testu. Bata gutuna da eta bestea narrazio bat, artikulua bat, azalpen bat... Gutxiengo hitz kopuru bat eskatzen da.
- **Entzumena:** Testuak entzun ondoren zenbait jarduerak egiten dira, hala nola: hutsuneak bete, erantzun anitzeko galderak, esaldiak osatu...
- **Mintzamena:** Ikasleak mintzatu behar du alde aurretik ipinitako ezagunak diren gai batzuei buruz. Hiru zatitan egiten da probaren atal hau: hasiera batean elkarrizketa bat egiten da, ondoren argazki baten gainean hitz egin behar dute eta, azkenik, ikasleen arteko elkarrizketa bat antolatu behar dute.
- **Hizkuntza ezagutza:** Gramatika, sintaxia, hiztegia eta ortografia lantzen dira. Jarduerak anitzak izaten dira: hutsuneak bete, esaldien eraldaketa, hitzen osaketa, okerrak zuzendu...

Proba horretan erabiltzen diren testu guztiak benetakoak izaten dira; hau da, komunikabideetatik, literaturatik, etab. aterata. Hori ere, garrantzitsutzat jo du eta berdín egin dugu euskarazko ebaluazioan.

- Maila horretako beste proba batzuk ere aztertu ziren, esate baterako:
  - Euskara Zerbitzuak prestatutako azterketak: EH1, EH2 eta EGA<sup>4</sup>, baita azterketa hauetan erabiltzen dituzten proba motak eta zuzentzeko irizpideak ere.
  - Beste B2 mailako azterketa batzuk:
    - **Frantsesekoa:** *Diplôme de Langue Française, niveau 3 (Lecteur indépendant)*. Azterketa horretan ikaslea gai izan behar da frantses hizkuntzaren egitura nagusiak praktikan jartzeko, hiztegiaren ezagutze ona azaltzeko eta eguneroko bizitzaren zenbait egoeretan komunikazioaren estrategiak erabiltzeko.
    - **Espainolekoa:** *Diplomas de Español como Lengua Extranjera (DELE)*, Instituto Cervantes. Nivel B2 (edo *Nivel Intermedio*) ikaslea gai izan behar da eguneroko egoera arruntetan eta ohiko komunikazioetan aritzeko, hizkuntzaren erabilpen espezialdua ez denean bederen.
    - **Katalanekoa:** *Certificat de Nivell Intermedi de Catalá (B)*, Generalitat de Catalunya. Departament de Culturak antolatzen du.

3) *FIRST Certificate in English*, Cambridge University Press, Cambridge, 2003.

4) Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (2001): *2000ko irakasleen hizkuntza eskakizunak (azterketak)*, Vitoria-Gasteiz.

## 1.2. PROBAREN DISEINUA

Bi koaderno desberdinetan banatu genituen galderak (A eta B koadernoak). Bi koadernoetan hainbat jarduera berberak eta beste hainbat berariazkoak zeuden.

Proba honek hurrengo atalak izan ditu: irakurmena, entzumen, idazmena, mintzamena eta hizkuntza ezagutza. Probaren jarduerak mota askotakoak izan dira (erantzun anitzeko galderak, testu bat idaztekoak, hutsuneak betetze-koak, etab.).

Irakurmenaren eta entzumenaren jarduerak testuen gainean egin genituen. Testu horiek benetakoak ziren, alegia, bizitzaren esparruetatik hartu genituen: literatura arlotik, arlo akademikotik, komunikabideetatik, Internetetik... Hori zela eta, testuen itxura eta edukiak desberdinak ziren. Aipatu beharrekoa da testuek zailtasun maila diferenteak zituztela eta ulermen orokorra zein zehatza ebaluatu nahi genituela.

Idazmena eta mintzamena ebaluatzeko zenbait testuinguru egoki ziren, horren inguruan, eta ematen ziren datuekin lagunduta, testuak ekoizteko. Jarduera horien bidez, ikasleek hitz egiteko eta idazteko zuten gaitasuna ebaluatu genuen.

Ikasleek egin zituzten probez aparte, ikastetxearen ezaugarriak biltzeko asmoz honako galdera-sortak prestatu genituen: bat ikasleentzat, beste bat euskara irakasleentzat eta hirugarrena ikastetxeko arduradunarentzat.

### 1.2.1. Irakurmena

Irakurmena ebaluatzeko bost testu desberdin erabili genituen, nahiz eta ikasle bakoitzak hiru baino ez zituen irakurri behar. Esan den bezala, testuak egiazkoak ziren, hau da, literatura, komunikabide edo esparru akademikoetatik ateratako testu errealak.

Testuak guztiak azalpenezkoak ziren literarioa izan ezik. Hala ere, bai forman bai eta edukian ere desberdinak ziren oso.

- *Narrazioa*: testua literatura esparrukoa zen eta horri buruzko inguruko galderen bidez informazio zehatzaren ulermena ebaluatu nahi genuen, nahiz eta testuaren esanahi orokorraren galdera bat baino ez egon. Erabiltzen zen jarduera mota erantzun anitzeko galderak izan zen. Irakurketa hau ikasle guztiei jarri genien.
- *1. azalpen testua*: testu hau dibulgaziokoa zen, hitz batzuk tekniko samarrak baziren ere. Argazkiz hornituta ageri zen.

Horren bidez ulermen orokorra ebaluatu nahi genuen, testuaren egitura eta ideien garapena, hain zuzen ere. Hortaz, zenbait juntagailuen hutsuneak bete egin behar zituzten, informazioaren bilakaera logikoa aurkituz.

- *Iragarkia*: zazpi azalpen testu laburrez osatuta zegoen. Testu honekin informazio zehatza aurkitzearen gaitasuna ebaluatu gura genuen. Jardueretan eskatutako informazioa testuetan aurkitu behar zuten. Dena dela, ez zen hitzez hitz agertzen; beraz, ikasleek, zituzten datuekin, ondorioztatu eta igarri egin behar zuten.
- *2. azalpen testua*: azalpen testu hau dibulgaziozko esparrukoa zen, Interneten ageria. Hitz tekniko batzuk zituen. Horren bitartez, informazio zehatzaren ulermena ebaluatu nahi genuen (datu zehatzak, aburuak, informazioaren ondorioak...). Erantzun anitzeko galderak ezarri ziren jarduera horretan (hau da, 4 aukeren arteko zuzena aukeratzeko).
- *3. azalpen testua*: komunikabideen esparrukoa zen, artikulua bat hain zuzen. Artikulua izanik, argazkiak zituen eta idazkia zutabeetan antolatuta zegoen.

Jardueran horren bidez testuaren paragrafoen ulermena neurtu genuen, ulermen zehatza hain zuzen ere, eta ikasleek testuaren paragrafoen izenburua idatzi behar zuten.

Atal honetan, ikasle guztiek narrazioaren jarduera egin zuten. Bestalde, lehen aipatu dugun bezala, ikasleek bi testu gehiago egin behar zituzten:

- A koadernokoek azalpen testu bat eta iragarkia,
- eta B koaderno zutenek, beste azalpen testu bat eta artikulua.

### 1.2.2. Idazmena

Trebetasun hau ebaluatzeko bost proposamen desberdinak erabili genituen: gutuna, narrazioa, deskripzioa, artikulua eta argudiozko testua. Proposamen bakoitzarekin egoera azaldu genuen, bai eta idazteko eskatzen ziren baldintzak ere.

Ikasle bakoitzak bi idazki egin zituen: bata guztientzat zena, gutuna, hain zuzen, eta bi aukeren arteko aukeratu behar zuten bestea.

- *1. idatziko proposamena:* gutuna zen. Honako egoera aurkeztu genien: katalogoz aukeratutako erosketa bat egin ez gero, produktuarekin pozik ez zegoela adierazi behar zuten. Erreklamazio gutuna idatzi behar zuten, hortaz. Produktuaren iragarkia eta horren gainean idatzitako oharrek ematen genizkien, informazio hartaz baliatuta, haren idazkia burutzeko. Eskatzen genien testuaren luzaera 80 hitzekoa zen gutxienez.

Gutunaren erregistroa egokia formala zen; horregatik, eskutitz forma gorde behar zuen testuak (tokia, data, agurak eta sinadura) eta doinua egokia izan behar zen. Igorlea eta jasotzailea agertu behar ziren. Gutunaren helburua agertzea eskatzen genuen: produktuarekiko kexa garbi adieraztea.

- *2. idatziko proposamena:* narrazio bat. Jarduera horretan herriko aldizkarian argitaratzeko istorio bat kontatzea eskatu genien. Narrazioa idazteko baldintza bakarra bete behar zuten: emandako esaldi batekin hasi behar ziren eta horren inguruan istorioa garatu. Idazki mota horretan gutxienezko 100 hitzeko idazkia eskatu genien.

Testua narrazioaren egitura eduki behar zuen: aurkezpena, korapiloa eta bukaera. Erregistroa egokia izan behar zen: herriko aldizkarian irakurtzeko modukoa, beraz, formala.

Ideiak modu koherente batean antolatu behar ziren istorioa kontatzeko garaian eta gaiaren batasuna une oro mantendu behar zen, eta ideia berriak era egokian sartu. Testuaren helburua bete behar zuten: kontakizun bat idatzi.

- *3. idatziko proposamena:* artikulua zen. Beste kasuetan legez, egoera zehatz bat eman genien: ikastetxeko aldizkarian aterako zen artikulua bat idatzi behar zuten, ikasle zein irakasle guztiek irakurtzeko. Era berean, idazkian gutxienez 100 hitz eskatu genien idaztea.

Idazkiak eskolarako artikulua forma eduki behar zuen, hots, azalpenezko testua: gaiak aurkezpena, garapena eta amaiera izan behar zituen. Horren barruan, beste sekuentziei (anekdota eta deskripzioa) dagokien egitura minimoa eduki behar zuten. Erregistroa egokia behar izan zuen edonork irakurri ahal izateko: formala, beraz.

Eskatzen zuen edukia azalduta egon behar zen: igaro zena esplikatzea (esaterako: nongoak, zer antolatu, noiz, nola...). Artikuluan, ideiak modu koherentean antolatuta egon behar ziren; hau da, testuaren batasuna gordez eta ideia berriak barneratuz. Testuaren osagarriak era logikoan lotuta egon behar ziren (esplikazioan anekdotak barneratuta, etab.) Eskakizunaren helburua bete behar zuten: ikastetxeko ikasle zein irakasleei informatzea modu atsegin eta zuzenean.

- *4. idatziko proposamena:* iritzi-argudiozko testua zen. Gai baten gaineko idazlana egin behar zuten, haien aburu eta iritziak azalduz. Iritzi horiek arrazonatu egin behar zituzten, bai eta kontrako iritziak ere. Gutxienez, 100 hitz idatzi behar zituzten.

Testuaren egiturak hurrengo osagaiak izan behar zituen: halabeharrez, hasierako tesia, argudioaren gorputza eta ondorioa agertu behar ziren, nahiz eta era labur eta xumean izan eta testu mota horren egitura beharrezkoa ez izan agertzen ziren argudio guztietan. Erregistroa egokia izan behar zen: formala oro har.

Ezarritako gaia jarraitzekoa zen eta gainontzeko ideien ardatza izan behar zen. Eredu gisa, adibide bat behintzat agertu behar zen. Garbi adierazi behar zuen zein gauzekin zegoen ados eta zeinekin ez. Idazkia koherente izan

behar zen; hots, ideiak eta iritziak era antolatuan aurkeztu behar zituzten, testua bateratuta egon behar zen. Idazlanaren helburua bete behar zuten: ikasleek bere ikuspuntuak azaldu eta adibideren batekin osatu egin behar zuten.

- *5. idatziko proposamena*: egoera emanda, argudio artikulatu bat idaztea proposatu genien, ideiarekin alde onak eta abantailak adieraziz. Gutxienez, 100 hitz idatzi behar zituzten.

Testuak argudio egitura izan behar zuen: hasierako tesia, argudioaren gorputza eta ondorioa. Erregistroa egokia izan behar zuen ikastetxeko ikasle-irakasleek irakurtzeko: formala oro har.

Ageri ziren ideiak eta argudioak ondo antolatuta egon behar ziren, testu bateratu eta koherentean. Artikuluaren helburua garbi geratzen zen: proposamena egitearen zergatiak, abantailak, etab.

Jarduera horiek irekiak ziren eta ebaluatzeko honako bost irizpideak ezarri genituen: edukia eta koherentzia, erregistroa eta formatua, zuzentasuna, kohesioa eta lexikoa.

- *Edukia eta koherentzia*: Honetan adierazia ebaluatzen zen; hots, eskaintako gaiaren garapena zein neurritan lortzen zen. Bestalde, eskatutako informazioa agertzea eta ondo antolatuta eta egokia izatea. Testuaren koherentziaz gainera, testuaren helburua betetzea neurtu izan dugu.
- *Erregistroa eta formatua*: Testuaren nolakotasuna eta testuaren forma hartzen genituen kontuan. Bestalde, eskatzen zen testu mota betetzea eta erregistro egokia erabiltzea.
- *Zuzentasuna*: Hizkuntza akats nabarmenen balorazioa, hots: akats morfosintaktikoak, joskerazkoak eta ortografikoak.
- *Kohesioa*: Testuaren loturak eta juntagailuak neurtzen ziren. Testuaren artikulazioa esaldien arteko loturen bidez.
- *Lexikoa*: Erabilitako hiztegia neurtu izan dugu: lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna, alegia.

Irizpide horiek bost *bandetan* edo kategorietan banatzen ziren: oso gutxi, gutxi, nahikoa, ondo eta oso ondo.

### 1.2.3. Hizkuntza ezagutza

Esparru honetan bi eduki mota neurtu genituen: hizkuntza ezagutzaren eduki orokorrak eta, beste aldetik, egitura morfosintaktikoak soilik.

Lehenengo eduki motekin erantzun anitzeko galderak erabili genituen eta bigarrenarekin berridazketa jarduerak.

- *Hizkuntza ezagutza orokorrean* honako edukiok neurtu genituen: lexiko, sintaxi, esamolde, semantika eta gramatikari buruzkoak. Proban 33 galdera zeuden, horietatik 7 komunak izan ziren, hau da bi koadernotan errepikatu egin ziren, eta beste 27 berariazkoak ziren.
- *Egitura morfosintaktikoak*: berridazketen bitartez ebaluatu ziren. 10 berridazketa zeuden koaderno bietan; beraz, ikasle guztientzat berridazketak berak ziren. Berridazketan, loturen aldaketak edo esaldien beste era batean ipintzearen ondorioz suertatzen zen egitura idatzi behar zituzten.

### 1.2.4. Entzumena

Trebetasun hau ebaluatzeko hiru testu desberdinak erabili genituen. Testuak errealak ziren, irratitik eta telebistatik hartuta.

- *1. testua*: Azalpen testu horretan gertaera historiko bat kontatzen zen; testua gizarte komunikabideetako esparrukoa zen, irratitik hartuta hain zuzen ere. Testuaren bidez informazio zehatzaren eta orokorraren ulermena ebaluatzen genituen.

- *2.testua*: Testu hau irratitik ere hartutakoa zen eta gazteen intereseko kontu bat jorratzen zuen. Gaiaren inguruan azalpen batzuk ematen ziren eta gehienbat argudioak erabiltzen zituzten zenbait iritzi defendatzeko. Elkarrizketa bat zen, aurkezleak albistea kontatu eta gero, bi hizlariak beraien aburua ematen zuten. Testu horri erantzun anitzeko galderak zegozkion. Ikasleek informazio zehatza eta informazio orokorra ulertu behar zuten edo ondorioztatu.
- *3.testua*: Testu hau Euskal Herriko ingurumenari buruzkoa zen, bideozko dokumental batetik jasota zegoen. Azalpen testua zen, dibulgaziozkoa. Akademiko esparru barruan koka zezakeen. Jarduera honetan ez zeuden galdera-erantzun zuzenik; amaitu gabeko zortzi esaldiak ageri ziren eta entzundako informazioarekin bete behar zituzten.

Ikasle bakoitzak bi testu entzun zituen; lehenengo testua bera denek egin zuten.

### 1.2.5. Mintzamena

Trebetasun hori ebaluatzeko hiru jarduera desberdinak erabili genituen: aztertzailearekin elkarrizketa, azalpena eta ikasleen arteko elkarrizketa.

- *Elkarrizketa*: aztertzaileak ikasleen gertuko gaiet buruzko galdera zuzenak egiten zizkieten: daramaten bizitza, ikas-tetxean izan zuten esperientzia, oporrak, txikitako kontuak...

Jarduera horretan ziurtatzen zen aztertzailearen galderak ulertzen zituztela eta gai zirela zuzen eta erraztasunez erantzuteko. Bestalde, neurtzen zen ikasleak gai ziren oraingoa eta lehen aldiak mintzatzeko (aditzaren denborak eta denbora sailkatzeko tresna linguistikoak ondo erabilia, esate baterako), informazio orokorra zein zehatza emateko, gerorako planak adierazteko, etab.

- *Azalpena*: aurrez zio bat ipinita (aldeztatik emandako argazkia) informazioa eman behar zuten. Hasiera batean argazkian ikusten zutena ahal zuten deskribatu eta ondoren, jarraibideetan adierazten zaien era berean, irudiak sujeritzen ziena azaldu.

Atal horren bidez, erakutsi behar zuten ezarritako gai bati buruzko informazioa emateko gai zirela eta, hortik abiatuta, informazio hori zabaldu edo lotu zuten esperientzia erabilia edo beste eduki batzuekin lotuz.

- *Ikasleen arteko elkarrizketa*: aldeztatik gai bat emanda, ikasle-bikoteak elkarrizketa antolatu behar zuten. Ikasle bakoitzak erakutsi behar zuten elkarrizketa aurrera eramateko gai zela, komunikazioaren oinarriko aspektuak kontuan izanda (hitza ematea, hitza hartzea, besteak esaten duena norberaren diskurtsoan sartzea, etab.). Bestalde, atal horretan ikasleak bere iritzi eta aburuen alde argudiatu behar zuten edota beste iritzi edo ikuspuntu batzuen kontrako argudioak eman.

Ezarri genituen ebaluatzeko irizpide multzoak hauexek izan ziren: hitz egiteko era, diskurtsoari zegokion trebetasuna eta zuzentasuna. Multzo bakoitzak bere irizpide zehatzak zituen, koadroan ageri den bezala:

## MINTZAMENAREN IRIZPIDEAK

**Hitz egiteko era**

<i>Autonomia</i>	Irizpide horrek ikasleen mintzamenaren independentzia neurtzen zuen, esate baterako, galderei erantzunak luzeak edo lakonikoak baziren, hitz egiteko laguntza behar bazuen ala ez, etab.
<i>Interakzioa</i>	Irizpide horrek balio izan du ebaluatzeko komunikazioaren oinarritzko arauak erabiltzen zituen, hala nola, hitza hartu, hitza eman, entzundakoari jarraitu eta abar.
<i>Hitz jarioa</i>	Irizpide horrek hitz egiteko erraztasunaz informazioa ematen zuen. Diskurtsoaren abiadura kontuan hartzen zuen, diskurtsoaren luzaera, izaten ziren hizkuntza zalantzak, geldiuneak eta hitzal-diaren kohesioa.
<i>Ahoskera</i>	Hitzen ebakera eta esaldien doinua ebaluatzen zuen eta, ahoskera dela medio, ea arazoak zeuden mintzaldia ulertzeko.

**Diskurtsoari dagokion trebetasuna**

<i>Adierazpen maila</i>	Kontzeptu orokor horrekin ulergarritasuna neurtzen zen. Hitzuna testuinguruan egoki kokatzen den egiaztatzen zen bai eta ideiak ongi antolatzen zuen mintzaldian. Diskurtsoaren koherentzia oro har ebaluatzen zen.
<i>Lexikoa</i>	Hiztegi egokia, aberatsa eta zuzena ebaluatzen zen irizpide honen bidez.

**Zuzentasuna**

<i>Gramatika eta Sintaxia</i>	Irizpide horrek kategoria gramatikalak zein egitura sintaktikoak ebaluatzen zituen: kasuak, aditzen denborak, aditz laguntzaileak, esaldi bakunak edo konplexuak, loturak, etab.
-------------------------------	--

Irizpide bakoitzak bost maila zituen: oso ongi, ongi, nahikoa, gutxi eta oso gutxi.

Hona hemen aipatu ditugun trebetasunen koadro orokorra:

	Trebetasunak	Jarduerak eta testu mota	Item eta ebaluaziorako irizpideen kopurua
<b>Idatzia</b>	IRAKURMENA	<input type="checkbox"/> Dibulgazioko azalpen testua <input type="checkbox"/> Azalpen testua: artikulua <input type="checkbox"/> <b>Literatur testua: narrazioa<sup>5</sup></b> <input type="checkbox"/> Azalpen akademiko testua <input type="checkbox"/> Azalpen testu laburrak: iragarkia	8 (aukera anitzekoak) 8 (aukera anitzekoak) 9 (aukera anitzekoak) 7 (aukera anitzekoak) 10 (aukera anitzekoak)
	IDAZMENA	<input type="checkbox"/> <b>Gutuna</b> <input type="checkbox"/> Narrazioa <input type="checkbox"/> Artikulu bat <input type="checkbox"/> Argudiozko testua <input type="checkbox"/> Beste artikulua bat	5 irizpide
<b>Ahozkoa</b>	ENTZUMENA	<input type="checkbox"/> <b>Azalpen testu bat</b> <input type="checkbox"/> Beste azalpen testu bat <input type="checkbox"/> Azalpen eta argudiozko testua: elkarrizketa	10 (aukera anitzekoak) 8 (zuzentasun mugatua) 8 (aukera anitzekoak)
	MINTZAMENA	<input type="checkbox"/> <b>Elkarrizketa</b> <input type="checkbox"/> <b>Azalpena</b> <input type="checkbox"/> <b>Elkarrizketa (beraien artekoa)</b>	7 irizpide
	HIZKUNTZA EZAGUTZA	<input type="checkbox"/> <b>Hizkuntza ezagutza orokorra: gramatika, lexikoa...</b> <input type="checkbox"/> <b>Egitura morfosintaktikoak (berridazketak)</b>	33 (aukera anitzekoak, 7 denontzat) 10 (zuzentasun mugatua)

Jarduera horiek guztiak 2 koadernoetan banatu egin genituen: A eta B koadernoetan. Koaderno bakoitzak hiru zati zituen: lehenengoa Entzumena zen (1), bigarrena (2) idatzizko lehenengo atala eta hirugarrena (3), idatzizko bigarren atala.

5) Beltzez makatuta dauden jarduerak ikasle guztiak egin zituzten.

	A KOADERNOA	B KOADERNOA
<b>Entzumena</b>	<input type="checkbox"/> <b>Azalpen testua<sup>6</sup></b> <input type="checkbox"/> Azalpen eta argudiozko testua (elkarrizketa)	<input type="checkbox"/> <b>Azalpen testua</b> <input type="checkbox"/> Azalpen testua
<b>Idatzizko 1. atala</b>	<input type="checkbox"/> <i>Idazmena</i> : <b>Gutuna</b> <input type="checkbox"/> <i>Irakurmena</i> : <b>Literatur testua (elkarrizketa)</b>	<input type="checkbox"/> <i>Idazmena</i> : <b>Gutuna</b> <input type="checkbox"/> <i>Irakurmena</i> : Azalpen testua (artikulua).
<b>Idatzizko 2. atala</b>	<input type="checkbox"/> <i>Irakurmenak</i> : - Azalpen testua, dibulgaziokoa. - Azalpen testu laburrak: iragarkia  <input type="checkbox"/> <i>Idazmena</i> : idazlana.  <input type="checkbox"/> Hizkuntzaren ezagutza: - <b>Hizkuntza ezagutza orokorra.</b> - <b>Berridazketak</b>	<input type="checkbox"/> <i>Irakurmenak</i> : - <b>Literatur testua: elkarrizketa</b> - Azalpen akademiko testua  <input type="checkbox"/> <i>Idazmena</i> : idazlana  <input type="checkbox"/> Hizkuntzaren ezagutza: - <b>Hizkuntza ezagutza orokorra</b> - <b>Berridazketak</b>

### 1.2.6. Galdera-sortak

Euskarari buruzko edukiaz gain, hiru galdera-sorta egin genituen, ikastetxeko testuinguruari buruzko galdekizunak. Galdera-sorta bat euskara irakaslearentzat, beste bat ikasleentzat eta hirugarrena ikastetxeko hizkuntzen ordu kopuruari buruzkoa.

- *Ikaslearen galdera-sortak* 31 galderak zituen. Itunak hiru esparru desberdinei buruzkoak ziren. Lehengo esparrua ikaslearen familiari buruzkoa da, bigarrena ikasleari zegozkion hainbat ikasketaren aspektuak eta hirugarren esparrua ikasgelan erabiltzen zen euskararen metodologia.
- *Euskara irakaslearen galdera-sortak* 19 galdera zituen eta horiek lau esparrutan banatuta zeuden. Esparruak hauek ziren: prestakuntza, euskararen erabilera ikastetxean, hizkuntzen tratamendu bateratua, metodologia eta ebaluazioa.
- Amaitzeko, ikastetxeko arduradunak taula bat bete zuen jasotzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein hizkuntzatan ikasten dituzten ikasleek arlo guztiak.

6) Beltzez makatuta dauden jarduerak ikasle guztiak egin zituzten.



## 1.3. APLIKAZIOA

### 1.3.1. Pilotu proba

Euskara probaren aplikazioa egin aurretik, pilotu proba bat gauzatu genuen. Pilotu proban lau hizkuntza trebetasun eta hizkuntza ezagutzearen atalak egin ziren, hots, proba oso-osorik (mintzamina barne). Pilotua egin zuten ikasleak A, B eta D eredukoak ziren. Proba horren egitasmo nagusiak hauexek izan ziren:

1. *Proba beraren jardueren funtzionamendua bermatzea.*

Pilotua aplikatu ondoren eta horren emaitzak aztertu, probaren zenbait atal moldatu egin genuen, behin betiko proba egokitzeko.

2. *A ereduko ikasleek horrelako mailako proba ea ahal zuten egin ziurtatzea.*

A ereduko ikasleen kasuan, baldintza hauexek bete ziren:

- 2000ko Ebaluazioaren emaitzak<sup>7</sup> kontuan eduki genituen ikasleak hautatzeko. Ebaluazio hartan, ikastetxe batzuetako A ereduko ikasleek oso nota onak atera zituzten (A ereduaren barruan), euskarazko batezbestekoa baino hobetoak, hain zuzen ere; hortaz, pilotua ikastetxe horietako batean egitea erabaki genuen.
- Aukeraturako ikastetxe horretan euskara arloan A ereduko ikasle onenak hautatu genituen.
- A ereduko ikasle batzuk proba osoa egin zuten (mintzamina barne).

Pilotu probaren emaitzak aztertu ondoren, baieztatu genuen A ereduko ikasle horiek ez zituztela B2ko mailako euskara proba gainditzeak eskatzen dituen gutxienezko gaitasunak. Hortaz, A eredukoak ez egitea erabaki genuen.

### 1.3.2. Behin betiko aplikazioa

Proba Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako 63 ikastaldetan egin zen, pilotu probaren berrikuntzak burutu ostean. Aplikazioa aurrera eramateko, ISEI erakundeak koordinatutako lantalde bat osatu zuen: ISEI bertako langileetatik gain, kanpoko kolaboratzaileak kontratatu egin ziren.

Proba idatzia pasatzeko, lau langile kontratatu egin ziren. Probaren Mintzamina atala egiteko ere, zenbait Berritzegunetako aholkularien laguntzaz baliatu ginen ere, bai eta proba hori zuzentzeko ere. Aurrerako zehaztuko den legez, Idazmina proba zuzentzeko garaian, adituen laguntza eduki genuen. Kolaboratzaile guztiek egitekoari buruzko formazioa jaso zuten.

Aplikatzaileak aparte, zenbait kontrolatzaile egon ziren aplikazioan prozesuaren garapena aztertzeko asmoz.

Ikastetxeetara joan aurretik, urrian zehar, zuzendariei gutun ofizial bat bidali genien prozesuaren berri emanez (hori izan zen lehenengo kontaktua ikastetxeekin); ondoren, dei baten bidez, informazioa egiaztatu eta bilera bat egiteko data ezarri zen. Bilera horretan aplikazioaren zehaztasun guztiak eman zitzaizkien (probaren helburuak, probaren ezaugarriak, ordutegiak, erabilitako baliabideak...) Euskarazko irakasleei galdera sorta bat eman genien zenbait intereseko datu jasotzeko.

Proba guztiak beteta itzuliz gero, zuzenketarekin hasi ginen. Datuak eduki eta gero, horien analisi zein azterketaren prozesuari ekin genion.

7) ISEI-IVEI (2000): *DBHko Ebaluazioaren Txostena, Euskara eta Literatura. Emaitzak hizkuntza ereduaren arabera*, 14 or, [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net).

### 1.3.3. Lagina

Laginari begira, Euskal Autonomia Erkidegoa izan zen ebaluazio honi zegokion geografia esparrua. Kontuan hartu zen populazioa 2004-2005 ikasturtean DBHko 4. mailan matrikulatutako ikasle guztiek osatzen zuten.

DBHKO 4.MAILA 2004-05EKO IKASTURTE	HIZKUNTZA EREDUA		GUZTIRA
	B eredia	D eredia	
kastetxeak	148	181	329
ikasleak	3.775	7.535	11.310

Lagina aukeratzeko honako irizpideok hartu genituen kontuan:

- Ikastetxeen geruzak B eta D hizkuntza ereduekin osatu ziren. Aplikazio pilotua egin eta gero, erabaki genuen A ereduaren ebaluazioa ez egitea, aipatutako arrazoiengatik.
- Hizkuntza eredu bakoitza ikastetxe baten moduan hartu zen. Hau da, ikastetxe batek DBH etapako B ereduko talde bat edo gehiago eta D ereduko beste talde bat edo gehiago izatekotan, proba egiteko bietako bat edo biak aukeratuak izan zitezkeen.
- Lagina bi etapetan aukeratu genuen. Ikastetxeak aleatorioki –ausazko laginketa geruzatu bat, hain zuzen- aukeratu ziren geruzen arabera. Geroago, aukeratutako ikastetxe bakoitzean DBHko laugarren mailako gela bakar bat aukeratu zen zozketaz ere.
- Aukeratutako ikasgeletako ikasle guztiek lagina osotzen zuten. Hala ere, zenbait ikasleen emaitzak ez dira kontuan hartu, esaterako: azken urtean Erkidegora heldu diren etorkinen emaitzak edo proba egin ezin izan dutenak ezintasunengatik (curriculum egokitzapena edukita).
- Euskara proba DBH 4. mailako 63 taldetan aplikatu genuen. Guztira 61 ikastetxe ziren, haietako bitan B eta D ereduak aukeratu ziren eta.

#### Ikastetxetako lagina

Laginarekin 63 ikastetxe horietatik, 39 talde D eredukoak dira eta 24 talde B eredukoak.

Taldeak guztira	HIZKUNTZA EREDUA		GUZTIRA
	B eredia	D eredia	
	24	39	63
	%38,1	%61,9	%100,0

#### Ikasleen lagina

Esan den bezala, probaren atal guztiak burutu dituzten ikasleak barneratu dira soilik (mintzamina salbu).

Ikasleak guztira	HIZKUNTZA EREDUAK		GUZTIRA
	B eredia	D eredia	
	447	744	1.191
	%37,5	%62,5	%100,0

Hortaz, 447 ikasle B eredukoak ziren eta 744 D eredukoak.

Sarea kontuan izanik, proba egin zuten ikastetxeak hauexek izan ziren:

SAREAK		
Hitzartua	Publikoa	GUZTIRA
35	28	63
%55,5	%44,5	%100,0

Eta proban parte hartu duten ikasleen kopurua ondokoa izan zen:

SAREAK		
Hitzartua	Publikoa	GUZTIRA
716	475	1.191
%60,1	%39,9	%100,0

Sexuen lagina horrelakoa da: 1191 ikasletik 594 neskak ziren eta 597 mutilak.

SEXUA	K	%
Mutilak	597	50,1
Neskak	594	49,9
<b>Guztira</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>

Gainera, ikastetxe bakoitzeko euskara irakasleak galdera-sorta bat bete zuten. Honako taulan datuak ordenatzen dira ikasleen galdera-sortekin batera.

	GALDERA-SORTAK	
	Irakasleenak	Ikasleenak
<b>Guztira</b>	62	1.191

### Familia hizkuntza

Probaren emaitzak aztertzerakoan, sare, sexu eta hizkuntza eredu gain, egiaztatu dugu ikasleek etxean erabiltzen duten hizkuntzak eragin handia duela. Datu hori ikasleei egindako galdera-sorta baten bitartez lortu zen. Galdera-sorta horretan horrelako datuak eskatu ziren:

- *Zein hizkuntza erabiltzen duzu zure gurasoekin?*
- *Zein da etxean erabiltzen duzun hizkuntza?*

Ikasleen emandako erantzunen arabera, euskararen erabilpena bi ataletan banatu dugu:

- **Euskara:** aitak eta amak euskaraz hitz egiten dute eta etxean beti edo gehienbat hitz egiten dute euskaraz; eta, atal berean ere: aitak edo amak euskaraz hitz egiten dute eta etxean beti edo gehienbat hitz egiten dute euskaraz.
- **Euskararik ez:** gurasoek ez dakite euskaraz eta etxean ez da euskaraz mintzatzen.

Ereduetara, D ereduak %63,2 ikasle ez dira euskaraz mintzatzen etxean eta B ereduak %95,7.

D ereduak ikasleentz artean etxean gurasoekin euskaraz mintzatzen direnak 273 dira, %36,7; B ereduak kasuan, 19 baino ez dira, %4,3.

Hona hemen datu horien taula:

	HIZKUNTZA EREDUA				GUZTIRA	
	B ereduak		D ereduak		K	%
	K	%	K	%		
<b>Euskararik ez</b>	428	95,7	470	63,2	898	75,4
<b>Euskara</b>	19	4,3	273	36,7	292	24,5
<b>Erantzunik ez</b>			1	0,1	1	0,1
<b>Guztira</b>	<b>447</b>	<b>100,0</b>	<b>744</b>	<b>100,0</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>

Lagin osoan, horrela banatzen dira familia hizkuntza eta ikasleentz sexua:

SEXUA	FAMILIA HIZKUNTZA				GUZTIRA	
	Euskararik ez		Euskara		K	%
	K	%	K	%		
<b>Mutilak</b>	455	76,4	141	23,6	<b>596</b>	<b>100,0</b>
<b>Neskak</b>	427	72,0	166	28,0	<b>595</b>	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>883</b>	<b>74,2</b>	<b>307</b>	<b>25,8</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>

Datuak antzekoak dira sexuentz arabera: euskaraz etxean hitz egiten ez direnak 455 (%76,4) mutil eta 427 (%72) neska dira. Hitz egiten dutenak 141 (%23,6) neska eta 166 (%28) mutil.

### 1.3.4. Mintzamena proba

Mintzamena trebetasuna ebaluatzeak baldintza bereziak eskatu zituen. Horrelako ebaluazio batean mintzamena lehendabizi ebaluatu zen legez, zehatz-mehatz landu ziren diseinua, aplikazioa eta zuzenketa.

Ebaluazio osoko lagina hartu beharrean, azpi-lagin bat hautatu genuen: 16 talde eta talde bakoitzeko 16 ikasle hartu ziren<sup>8</sup>. Hautaketa hauek ausaz egin ziren. Guztira 243 ikasleek egin zuten mintzamena proba, B ereduak 123 eta D ereduak 120.

Hona hemen, mintzamena atalean parte hartu zuten ikastetxeentz kopurua ereduak.

	B EREDUA	D EREDUA
<b>Ikastetxeak eta ikasleak</b>	8 talde: 123 ikasle	8 talde: 120 ikasle

Ikastetxeetan eguna, orduak eta gainontzeko baldintzak adostu ondoren, ebaluatzeak ikasleak aparteko gela batean egon ziren. Ebaluazioa egin zen gelan bi aztertzaile egon ziren eta bideo-kamara saio guztiak grabatzeko (ondoren zuzenketa bikoitza egin ahal izateko).

8) Kontuan izan behar zen 2 taldeetan ez zeudela 16 ikasle.

Alfabetikoki bildu ziren ikasleek bikoteka egiten zuten proba eta bi aztertzaile egoten ziren ebaluazio saioetan: batak saio bera eramaten zuen eta besteak bitartean kalifikazioak ipintzen zituen. Saioa amaitzean, kalifikazioak bi aztertzaileen artean adosten ziren.

Prozesu hau bi taldetan egin zen, hau da, 16 ikasletatik 8 ebaluatu ziren atsedenaldea aurretik eta beste 8ak ondoren. Bikote bakoitzak 15/20 minutu ematen zituen proba egiten. Bikotea proba egiten ari zen bitartean, gainontzeko ikasleak laguntzailearekin zeuden, 10 minuturo materiala aztertzen.

Honako hau izan zen mintzamena probaren prozesu osoa:

- Hasiera batean, ikasleei proba zertan zetzan azaltzen genien (probaren hiru atalak, bikoteka egingo zutela, eta abar).
- Lehenengo ikasle bikoteari gutunazal bat ematen genion (bertan argazkiak eta ikaskidearekin jorratu behar zuen gaia zeukan) eta zegoen gelan azertu behar zuen. Une horretan ahal zuten oharrak hartu edo gidoi bat egin euskarri gisa erabiltzeko.
- Lehenengo bikotea ebaluazio gelara sartzen zen eta saioa hasten zen. Hiru atalak egiten ziren eta, amaitzean, bere ikasgelara abiatzen ziren bi ikasleak.
- Saioan zehar, aztertzaile batek ardura zeukan eta besteak notak jartzen zituen. Saioa amaitzean, ipinitako balorazioak adosten ziren bi aztertzaileen artean.
- Zuzenketa egin eta gero, bigarren bikotea sartzen zen, eta horrela amaitu arte.

Aztertzaile eta zuzentzaileak gai horretan espezialduak izan ziren (ISEI-IVEI eta Berritzegunetako adituak), saioak eramateko eta mintzaldiak zuzentzeko horrelako perfila beharrezkotzat jo zen eta. Horietaz gainera, laguntzaile bat egon zen ikasleen antolakuntza eta saioen bilakaera bideratzeko. Horiek guztiek formazio zenbait saio jaso zuten proba aurrera eramateko era egokian.

Aipatu den legez, saioan bertan lehenengo zuzenketa egiten zen bi aztertzaileen artean. Ondoren, bideo grabazioen gainean, bigarren zuzenketa egin zen.

### 1.3.5. Datak eta prozedura

Ebaluazioaren aplikazioa 2004ko azaroan eta abenduaren lehenengo astean egin zen.

Aplikazioa bi fasetan egin zen: egun bat hartuko zukeen proba idatzia (eta Entzumena proba) eta beste egun batean Mintzamena egiteko (Mintzamena egiteko zirenekin, bederen).

Lehenengo fasea goiz batean egin zen honako eskema jarraituz: entzumena, hau da, lehenengo koadernoan, atsedenaldea aurretik; bigarren koadernoan eta galdera-sorta atsedenaldea ostean. Proba osoa egiteko hiru ordu behar ziren. Hiru ordu horiek goizean banatu ziren ikastetxe bakoitzeko egoera azertu eta gero.

Aplikazioaren egunean bertan, gainontzeko materialak biltzen ziren: euskara irakasleak betetako galdera-sorta eta ikastetxe arduradunak hizkuntzen ordu kopuruari buruzko osatutako taula.

## 1.4. ZUZENKETA

Galderak bi multzo orokorretan banandu ziren: irekiak, alegia, ikasleak erantzuna sortu behar zuenak; eta itxiak, ikasleak ematen ziren aukeren arteko zuzena topatu edo hautatu egin behar zuenak.

Trebetasunen arabera, horrelako jarduerak ahal ziren agertu:

- *Irakurmena*: trebetasun hau galdera itxien bitartez ebaluatzen zen, hau da, ikasleek aukeratu behar zituzten ematen ziren aukeren artean, ez zuten erantzuna idatzi behar, hautatu baino ez. Jorratzen zen ulermen motaren arabera, horrelako jarduera mota izaten zen:
  - Erantzun anitzeko galderak.
  - Paragrafoei izenburua ipini.
  - Testuak lotu.
  - Aukerak emanda, hutsuneak bete (loturak).
  - Ikasle bakoitzak 25/28 item egin beharko zituen.
- *Entzumena*: hiru jardueretatik bi itxiak ziren (erantzun anitzeko galderak) eta bat irekia: ikasleek bete behar zituzten hutsuneak entzundako informazioarekin. Hala ere, erantzuna ez zen erabat itxia, hutsune bakoitzerako hiru baino erantzun zuzenik ez baitzegoen. Ikasle bakoitzak 18 item egin behar zituen.
- *Idazmena*: jarduera guztiak irekiak ziren (egoera bat ezarrita testu bat idatzi). Proba horren zuzenketa zailagoa zen irekia izateagatik; zuzentzeko irizpide batzuk ezarrita, zuzentzaile espezialduak egin zituzten zuzenketa. Ikasle bakoitza 7 irizpide horien bitartez ebaluatu genuen.
- *Mintzamena*: aurrekoan bezala, testuingurua jartzen zitzaion ikasleei eta, ondoren, ahoko testuak ekoiztu behar izan zituzten. Irekia zen eta zuzentzeko aztertzaile espezialduak hartu zuten parte. Mintzamena kasuan, bi aztertzaile ebaluazio saioan zuzentzeaz gain, hirugarren zuzentzaile batek egin zuen grabazioaren gainean.
- *Hizkuntza ezagutza*: Esanda den bezala, 33 item itxi zeuden (erantzun anitzeko galderak) eta 10 berridazketa. Horiek irekiak ziren baina kasu guztietan erantzunak zehatzak ziren. Hortaz, ikasle bakoitzak 43 item egin behar zituen atal horretan. Ikasle bakoitza, beraz, 5 irizpide horien bitartez ebaluatu dugu.

### Nola zuzendu zen?

Proba itxiak (erantzun bakarra zituztenak) edo erdi irekiak (zenbait erantzun zeuden galdera bakoitzerako, zenbait erantzun zehatz, hain zuzen ere) ez zuten inongo arazorik planteatzen zuzentzeko garaian, era mekanikoan zuzentzen baitziren.

Proba irekiak, ordea, zailtasun handiagoak zituen zuzentzerakoan. Horregatik, zuzentzeko irizpide zehatzak egin ziren eta zuzentzaileen artean adostu eta egokitu egin ziren. Proba irekiak Mintzamena eta Idazmenaren jarduerak dira.

Mintzamenari dagokionez, saioan bertan bi aztertzaile egon ziren: bata saioa eramaten zuen ikasleekin eta besteak notak ipintzen zituen. Saioa amaitzen zenean, bion artean adosten zituzten ipinitako notak. Horretaz gain, hirugarren zuzentzaile batek beste zuzenketa bat egin zuen grabazioaren gainean (saio guztiak bidez grabatuta izan baitziren). Zuzentzaile guztiek aipatutako irizpide berberak izan zituzten une oro. Ondorioz lortutako bi nota horien artean batezbestekoa egiten zen eta hura izan zen behin betiko nota.

Lehenengo aldiz horrelako ezaugarrien jabeko proba egiten zenez, hiru zuzentzaile hartu ziren, horrela notaren egokitasuna bermatzen zen.

Idazmena ebaluatzerakoan, bi zuzentzaile ibili ziren idazkiak neurtzen. Irizpideak ere berberak izan ziren biontzako eta, batezbestekoa ez bazen egin ere, bigarren zuzenketa beharrezkoa aipatutako irizpideak baliagarriak eta komunak zirela ziurtatzeko. Horrela, gaindituak eta ez-gaindituak notetan adostasun orokorra zegoela bermatu zen.

Saioan bertan bi aztertzailer egon ziren, batak saioa eramaten zuen ikasleekin eta besteak notak ipintzen zituen. Saioa amaitzen zenean, bion artean adosten zituzten ipinitako notak. Horretaz gain, hirugarren zuzentzaile batek beste zuzenketa bat egin zuen grabazioaren gainean (saio guztiak bideoz grabatuta izan baitziren). Zuzentzaile guztiak aipatutako irizpide berberak izan zituzten une oro.

## Puntuazioa

Jardueren emaitzak aurkezteko garaian, bi aukera hartu behar genituen kontuan:

- Ikasle guztiak -1191 ikasleek- probaren lau trebetasunak egin zituzten; hau da, trebetasun guztiak mintzamina izan ezik. Hortaz, gaitasun bakoitzaren balioaren emaitza orokorrari begira, %25koa izan behar da.
- Bestalde, mintzamina egin zituzten ikasleak ditugu, hau da, azpi laginaren 243 ikasleak. Aldez aurretik esan denez, mintzamina egiteko kopuru orokorraren ikasle horiek hartu genituen proba egiteko, zeren eta, proba horrek egiteko sortzen diren arazo zirela medio, ezin genien ikasle guztiei egin.

Atal honetan, bost trebetasunak daudenez, bakoitzaren balioa %20 zen. (Kontuan izan: ikasle hauek aurreko taldeko kopuru barruan daude ere, gainontzeko trebetasunak neurtzeko garaian.)

Hurrengo eskeman adierazten dira trebetasunen balioa:

TREBETASUNAK	% BALIOA MINTZAMENARIK GABE	% BALIOA MINTZAMENAREKIN
Entzumena	25	20
Irakurmena	25	20
Idazmena	25	20
Hizkuntza ezagutza	25	20
Mintzamina	-	20
Guztira	100	100

Ikusten denez, trebetasun bakoitzaren balioa berbera da kasu batean ala bestean. Trebetasun bakoitzeko itemen kopurua, puntuazio horretara moldatzen da (%25 edo %20, hurrenez hurren).

## Proba gainditzeko baldintzak

Proba gainditzeko bi baldintza bete behar dira:

- Trebetasunen gutxieneko batezbestekoa %60 izan behar da<sup>9</sup>. Kopuru hori lortzea exijentzia maila altua dela adierazten du, B2 probak bera maila altua delako hain zuzen ere. Proban, beraz, gainditzeko ez da nahikorik 5 bat ateratzarekin, gutxieneko ezagutzak adierazten duten kalifikazioa 6 delako.
- Ikasleek trebetasun bakoitzean lortu behar dute %20. Ikasle batek gutxiengo hori lortzen ez badu trebetasun batean esaterako, proba ezin izango du gainditu nahiz eta gainontzekoetan %100 lortu.

9) Esan dugun bezala, *First Certificate in English* eredutzat hartu dugu Euskara proba prestatzeko, azterketa horrek portzentaje bera, %60, eskatzen du gainditzeko. Proba horretaz gain beste hizkuntza azterketek exijentzia bera eskatzen dute, besteak beste:

- Instituto Cervantesez antolatutako *Diploma de Español para extranjeros (Nivel Intermedio)* probaren %70 gainditu behar da ziurtagiria lortzeko. Proba hori hiru zatitan antolatuta dago: 1. atala (Ulermena eta idazmena) gainditzeko gutxienez 35 puntutik 24,5 puntu lortu behar da; 2. atala (Gramatika eta hiztegia) 24 puntutik 20 puntu eta 3. atala (Entzumena eta mintzamina) 45 puntutik 31,5 puntu.
- Generalitat de Catalunya prestatutako *Certificat de nivell Intermedi de Català* probaren %60 ere lortu behar da gainditzeko. Proba hau bost zatitan antolatuta dago: Entzumena, idazmena, ulermena, gramatika eta hiztegia eta mintzamina. Atal bakoitzaren balioa %20 da.





Emitza orokorrak

**2**



Hemendik aurrera emango ditugun datu guztiak ponderatuta daude. Hori egiteko, lotu egin dugu hizkuntza eredu bakoitzeko ikasle guztien kopurua, proba honetarako hautatutako ikastetxeetako kopuruarekin, ikastetxe bakoitzari balore berbera emanda. Ondoren, ikastetxe bakoitzaren balioa ikastetxe horren ikasleen artean banatu da. Azkenik, datuak egokitu egin ditugu: ikasleen kopuru orokor ponderatuta bat etortzeko laginaren kopuruarekin, hots, 1191 ikasle kopuru horrekin edo 243 ikasle mintzamenarekin egindako probaren kasuan.

Txosten honetan datuen arteko aldea esanguratsua dela esaten denean, beti datuen konfiantza-estatistiko maila %95koa dela esan nahi du; gainontzeko kasuetan aldea baino aipatzen ez denean, alde hori ez da esanguratsua lehen adierazitako maila estatistiko berean.

Kontuan hartzekoa da azpi-atal horietan jorratuko ditugun datuak bi lagin desberdinari dagozkien:

- Alde batetik, lagina orokorrarenari dagokiona; hau da, lau trebetasunak dituen probarenak: entzumena, irakurmena, idazmena eta hizkuntza ezagutzearena.
- Beste aldetik, mintzamenarekin egindako probaren azpi-lagina. Kasu honetan bost trebetasunarenak egin dituzten ikasleenak (hau da, mintzamina eta beste lau trebetasunak elkarrekin). Beste atal berezi batean aztertuko dira emaitza orokorrak eta oinarrizko aldagaiak (6. atalean).

## 2.1. IKASLEEN EMAITZA OROKORRAK (MINTZAMENARIK GABE)

Proba gainditu duten ikasleak 563 dira, hau da, %47,3. Bestalde, gainditu ez duten ikasleak 628 dira, hau da %52,7.

Datozen koadroan ikasleen emaitza orokorrak agertzen dira:

EMAITZAK	K	%
Ez gainditu	628	52,7
Gainditu	563	47,3
<b>Guztira</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>

1.4. atalean esan dugun bezala<sup>10</sup>, kontuan eduki behar da probaren maila altua dela; hots, ikasleek gainditzeko %60 lortu behar dutela. Hortaz, gainditze horretan ez dute faktore aleatorioek eragin handirik izan (zuzenketa mota, jardueraren ordena, etab.), gainditua zabala baita; aitzitik, %50 pasatzeko eskatzen denean kanpoko faktoreen eraginarekin arrisku gehiago izaten da.


### 2.2.1. HIZKUNTZA EREDUEN ARABERAKO EMAITZA OROKORRAK

Hizkuntza erduei dagokienez, hauexek dira datu orokorrak: gainditu duten ikasleen artean desberdintasunak daude hizkuntza erduek arabera (B ereduko gaindituak %27,5 izan dira eta D ereduan %57,2). Beraien arteko desberdintasuna esanguratsua da, %95eko fidagarritasunez.

EREDUAK	GAINDITUTA	
	K	%
B eredua	109	27,5
D eredua	454	57,2
<b>Guztira</b>	<b>563</b>	<b>47,3</b>

10) Ikusi *Proba gainditzeko baldintzak* 20. orrialdean.

Hona hemen datu horien grafikoa:



Bi ereduen artean %29,7 aldea dago. D ereduko kopuru zabalago batek gainditzen du proba; D ereduko ikasleek batez-besteko orokorra gainditzen dute eta B eredukoak, ordea, ez dira iristen. Beraz, aldagai hori ere oso eraginkorra da.

## 2.2. MINTZAMENAREKIN EGINDAKO PROBAREN EMAITZA OROKORRAK

Aldez aurretik azaldu den bezala, azpi-lagin baten ikasleek egin dute proba mintzamenarekin. Lagina hori horrelakoa izan da: B ereduko 123 ikasle eta D ereduko 120 ikasle. Guztira 243 ikasle.

Horrela adierazten da datorren koadroan:

MINTZAMENA	HIZKUNTZA EREDUA		GUZTIRA
	B eredua	D eredua	
<b>Lagina</b>	123	120	243

Gogoratu behar da lagina orokorrean lau trebetasunak ebaluatu genituela: irakurmena, idazmena, entzumena eta hizkuntzaren ezagutza. Emaitza orokorrak mintzamena gabekoak dira, beraz.

### 2.2.1. MINTZAMENAREKIN EMAITZA OROKORRAK

Mintzamenarekin izandako proba, beraz, 243 ikaslek egin dute, eta horien artean 121 ikaslek gainditu dute, hau da, %53,7. 122 ikaslek ez dute gainditu, hau da, %46,3.


Datorren koadroan agertzen dira datu horiek:

MINTZAMENAREKIN EMAITZAK	K	%
Ez gainditu	122	46,3
Gainditu	121	<b>53,7</b>
<b>Guztira</b>	<b>243</b>	<b>100,0</b>

Hurrengo grafikoan elkarrekin kokatu dira:

- emaitza orokorrak, hots, lau trebetasunak burutu dituztenen emaitzak: %47,3 ikaslek gainditu dute.
- eta bost trebetasunak egin dituztenarenak, hots, mintzamenarekin izandako emaitzak: %53,7 ikaslek gainditu dute.

### EUSKARA PROBA. EMAITZA OROKORRAK



Bi zutabe horiek, ondoan agertzen badira ere, ezin dira konparatu: lehenengo lagina orokorrarenak direlako eta bigarren zutabekoak azpi lagin batena.

Datorren koadroan azaltzen dira 243 ikasle horien emaitzak:

- zutabeen bitartez, bost trebetasunak eginak dituztenean; mintzamenarekin, beraz, atera dituzten emaitzak;
- eta lerroetan ikasle horiek beraiek mintzamina gabeko emaitzak, hau da, nola geratuko lirateke emaitzak mintzamenaren emaitzak kontuan izan barik.

Mintzamenarekin 121 ikaslek gainditu dute proba eta 122 ez dute gainditu. Mintzamina kontuan izan barik, 114 gainditu dute eta 129 ordea, ez.

	MINTZAMENA EGIN DUTENAK		GUZTIRA
	Ez gainditu	Gainditu	
<b>Ez gainditu</b>	119	10	<b>129</b>
<b>Gainditu</b>	3	111	<b>114</b>
<b>Guztira</b>	<b>122</b>	<b>121</b>	<b>243</b>

Dena den, datu horien arteko korrelazioa oso handia da (0,883); datu horien arabera, 3 ikaslek ez dute proba gainditu mintzamenagatik, eta 10, ordea, mintzamenari esker gainditu dute.

Bestalde, 10 eta 3 ikasle horiek ez dituzte oso emaitza onik gainontzeko trebetasunetan, mugan ibiltzen dira eta; beraz, mintzamenak horrelako kasuetan soilik izan du eragina. Esate baterako, mintzamina gainditu duen ikasle batek %56,47 lortu du beste trebetasunetan; proba gainditu du mintzameneko %63,59 emaitzari esker.

Izan ere, aipatutako korrelazio estu horrek adierazten du aldez aurretik aipatu dena: emaitza orokorrak antzekoak izango litzatekeela mintzamina lagina osoan aplikatzekotan.

Ematen den joera hipotesi moduan ahal izango litzateke zabaldu: bi emaitzak oso antzekoak dira, ez dago alde esanguratsurik. Hortaz, pentsatu ahal izango zen mintzamina lagin osoan zabalatzekotan, emango ziren emaitzak gertatu direnen antzekoak izango liratekeela. Hipotesi horrek esan nahi du proba mintzamenarekin egin ala ez, emaitzak atera direnak edo antzekoak liratekeela.


## 2.2.2. EUSKARA PROBA MINTZAMENAREKIN ETA HIZKUNTZA EREDUAK

Mintzamenarekin batera proba egin dutenen artean, %32,6 gainditu dute B ereduan eta %68 D ereduan.

EREDUAK	%	K
B eredua	32,6	41
D eredua	68	80
<b>Guztira</b>	<b>53,7</b>	<b>121</b>

Hona hemen datuon grafikoa:

### EUSKARA PROBA. MINTZAMENAREKIN ETA HIZKUNTZA EREDUAK



Ikusten denez, eta emaitza orokorretan ematen zen eran, B eta D arteko aldea oso handia da, %35,4 hain zuzen.


## 2.3. EMAITZEN SAKABANATZEA

Atal honetan ikasleen puntuazioaren sakabanatzea aztertzen dugu.

Datorren grafikoa datu orokorrak ematen dira:

- 90-100 puntuazioa %0,2 ikaslek lortu dute.
- 70-80 puntuazioa %16,8 ikaslek lortu dute.
- 60-70 puntuazioa %25,4 ikaslek bereganatu dute; zutabe horretatik gorantz agertzen dira proba gainditu dutenek (gainditzeko %60 atera behar zen eta).
- 50-60 puntuazioa %25,6 ikaslek lortu dute. Bertan kokatzen dira proba gainditzeko %50 izatekotan gaindituko zutenak. Zutabe horretatik atzerantz proba gainditu ez direnak ageri dira.
- 40-50 puntuazioa %16,5 ikaslek eskuratu dute.
- 30-40 puntuazioa %8,0 ikasle iritsi dira.
- 20-30 puntuazioa %1,9 ikaslek atera dute.
- 10-20 puntuazioa %0,6 ikaslek atera dute.

## IKASLEEN EHUNEKOA PUNTUAZIO OROKORRAREN ARABERA




Ikusi ahal den bezala, kurba normalizatua da, hau da, erdian metatuta. Horrek adierazten du ikasle gehienak (51%) erdiko puntuazio horretan kokatzen direla: 50-60 eta 60-70 artean.

## 2.3.1. D EREDUAN

D ereduan ikasle gehienak 60-70 puntuazioan kokatzen dira: %29,1; kopuru handia ere (%25,6) metatzen da 50-60 puntuazioan.

Bi puntuazio horiei jarraitzen diena 80-90 puntuazioarena da: %21,8.

## IKASLEEN EHUNEKOA PUNTUAZIO OROKORRAREN ARABERA. D EREDUA




### 2.3.2. B EREDUAN

B ereduan ikasle gehienak 50-60 puntuazioan kokatzen dira: %25,6. Jarraitzen dio 40-50 puntuazioan: %24,2.

Bi puntuazio horiei jarraitzen diena gainditu duten puntuazioarena %18,1 da, eta ondoren 30-40 atera dutenenak: 16,9%.

IKASLEEN EHUNEKOA PUNTUAZIO OROKORRAREN ARABERA. B EREDUA




Nabaria denez, B ereduan zutabeak ezkerretara mugitzen dira, emaitzak apalagoak dira eta.

### 2.3.3. MINTZAMENAREKIN DATUETAN

Mintzamena proba egin dutenen kasuan, gehienek 60-70 puntuazioa atera dute: %25,5. Ondoren 50-60 puntuazioarenak daude: %24,7.

Horien ondoren, 80-90 puntuazioarenak kokatzen dira %17,7 eta ostean 40-50 puntuazioarenak: %16,0.

IKASLEEN EHUNEKOA PUNTUAZIO OROKORRAREN ARABERA MINTZAMENAREKIN






**D ereduan**


Mintzarena egin dutenen arteko D ereduko gehienak 60-70 puntuazioan kokatzen dira: %29,2. Horiei, lehendabizi, 70-80 puntuaziokoek jarraitzen diete: %25,0.

Gero 50-60 puntuaziokoak daude: %22,5 eta 80-90 puntuaziokoak: %12,5.

**IKASLEEN EHUNEKOA PUNTUAZIO OROKORRAREN ARABERA MINTZAMENAREKIN. D EREDUA****B ereduan**

Mintzarena egin dutenen arteko B ereduko gehienak 50-60 puntuazioan kokatzen dira: %26,8. Horiei jarraitzen diete kopuru antzekoarekin, 40-50 puntuazioko a dutenek: %22,8 eta 60-70 puntuazioa lortu dutenek: %22,0.

Ikusi ahal denez, zutabeak ezkerreko aldera mugitu egin dira, puntuazioa apalagoa da eta.

**IKASLEEN EHUNEKOA PUNTUAZIO OROKORRAREN ARABERA MINTZAMENAREKIN. B EREDUA**



# Laginaren ezaugarrien azterlana

(ondorioak lagin honetarako bakarrik aplikatu daitezke)



Emitza orokorrak  
ETA OINARRIZKO ALDAGAIK

3



Atal honetan ebaluazioaren emaitza orokorrak eta oinarrizko aldagaietako emaitzak aztertuko ditugu. Horrelako egitura jarraituko dugu:

- Familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Hizkuntza ereduaren eta familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Ikastetxeetako sarearen arabeko emaitzak.
- Sarea eta familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Ikasleen sexuaren arabeko emaitzak.
- Ikasleen sexu eta familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Ikasleen sexu eta familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Emaitzen sakabanatzea: B eta D eremuan eta mintzamen proban

### 3.1. FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Aldagai horrek ikasleek etxean erabiltzen duten hizkuntza aditzera ematen eta horren eragina neurtzen du.

Datorren koadroko datu orokorretan ageri den legez, 898 ikasleek ez dute bere gurasoekin euskaraz hitz egiten, %75,4; euskara hitz egiten dutenak 292 ikasle dira, %24,5.

	GUZTIRA	
	K	%
Euskararik ez	898	75,4
Euskara	292	24,5
Erantzunik ez	1	0,1
<b>Guztira</b>	<b>1191</b>	<b>100,0</b>

Datu horiek proba gaindituen kopuruarekin alderatuta horrelako emaitzak sortzen dira:

- etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleek eta proba gainditu dutenak 341 dira, %38,6.
- euskaraz ama eta/edo aitarekin etxean hitz egiten dutenen artean, ordea, 223 ikasle dira, hau da, %72,6.


ETXE HIZKUNTZA	GAINDITUTA	
	K	%
Euskararik ez	341	38,6
Euskara	223	72,6
<b>Guztira</b>	<b>563<sup>11</sup></b>	<b>47,3</b>

Koadroan ikusten denez, etxean gurasoekin euskara hitz egiten dutenek emaitza hobetoak dituzte, oso alde zabala (%34 aldearekin, hain zuzen ere).

11) Taula guztietan kopuruak (K) ponderatuta daude. Datu horiei guztiei hamartarrak kendu zaizkie, irakurketa errazteko. Hori dela eta, taula batzuetan K horien batuketak ez dator bat guztiarekin.

Datu horiek datorren taulan ahal dira ikusi:

### EUSKARA PROBA GAINDITUA: FAMILIA HIZKUNTZA



Datu horien ondorioz, nabarmen ikusten da etxean euskaraz hitz egiten duten eta hitz egiten ez dutenen aldea. Hortaz, euskaraz etxean hitz egiteak emaitzetan oso eragin handia duela esan daiteke.

Batezbesteko orokorra %47,3koa da, baina kontuan izan behar da batezbesteko hori D eta B ereduaren arteko oso emaitza desberdinetatik sortua dela, ez du eredu bakoitzaren errealitatea adierazten.

Ikusiko dugunez, hizkuntza ereduarekin batera, aldagai horrek probaren emaitza guztiak baldintzatu ditu, bere eragina gainontzeko aldagaiena baino askoz handiagoa izan baita.

## 3.2. HIZKUNTZA EREDUEN ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Atal horretan eragin handien bi aldagaiak elkartzen dira: familiaren hizkuntza eta hizkuntza ereduak loturik, datu oso-tuagoak lortzeko asmoz.

B ereduko ikasle gaitituak %26,6 dira etxeko hizkuntza euskara ez denean; etxean euskaraz hitz egiten dutenean %47,5 gaitituak dira.

D ereduaren etxean euskaraz hitz egiten ez dutenek %47,6 gaititzen dute, emaitza orokorraren batezbesteko ia bera. Etxean euskaraz hitz egiten dutenen %74,1eko ikasleek gaititzen dute proba.

FAMILIA HIZKUNTZA	GAINDITUTA			
	B eredua		D eredua	
	K	%	K	%
Euskararik ez	101	26,6	240	47,6
Euskara	9	47,5	214	74,1
<b>Guztira</b>	<b>109</b>	<b>27,5</b>	<b>454</b>	<b>57,2</b>




Bi erduetako ikasleek emaitza hobeagoak izaten dituzte etxean euskaraz hitz egiten dutenean; halaber, ereduak eragina dute, D erduan, etxean euskaraz mintzatzen ez diren %47,6 ikaslek gainditzen dute proba. Hortaz, datu horri begiratuz, ahal da esan ikastetxe erdua euskara heziketan lagungarria dela D erduan bederen.

D erdua eta euskaraz etxeko hizkuntza osatzen dute konbinazio egokiena emaitza hoberenak lortzeko, %74,1 horrek adierazten duen bezala.

Emaitza apalenak B erduan ematen dira eta etxean euskaraz hitz egiten ez dutenek %26,6 horrekin. Hala ere, euskaraz hitz egiten duten ikasleak batezbesteko orokorrari hurbiltzen dira (%47,5).

Horrela ahal da ikusi datorren grafikoan:

### EUSKARA PROBA GAINDITUTA: FAMILIA HIZKUNTZA ETA EREDUAK




### 3.3. IKASTETXEETAKO SAREAREN ARABERAKO EMAITZAK.

Datozen emaitzak ikastetxeen sarearen arabera dira, hau da, hitzartua ala publikoa. Gainditu duten ikasleen artean desberdintasunak daude: ikastetxe publikoetan %51,7 gainditzen dute eta ikastetxe hitzartuetan %43,6.

SAREA	GAINDITUTA	
	K	%
Publikoa	283	51,7
Hitzartua	281	43,6
<b>Guztira</b>	<b>563</b>	<b>47,3</b>

Ikus ditzagun datuak hurrengo grafikoan:

### EUSKARA IKASTETXE SAREAREN ARABERA



Nabaria denez, ikastetxe publikoek emaitza hobekoak atera dituzte hitzartuek baino. Aldea (%8,1) esanguratsua da.

### 3.3.1. SAREA ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Aipatutako datuak osatzeko asmoz, ikastetxeen sarea familiaren hizkuntzaren datuekin alderatu dira.

Hurrengo koadroan ageri den legez, ikasle gaindituen artean:


- Ikastetxe publikoan, familian euskaraz hitz egiten ez dutenek %40,4 ikaslek gainditu dute proba. Etxean euskaraz gurasoekin hitz egiten dutenek %74,7 gainditu dute;
- Ikastetxe hitzartuetan, euskaraz mintzatzen ez direnek emaitzak apur bat apalagoak dituzte ikastetxe publikoetako emaitzekin konparatuta: %37,3. Etxean euskaraz mintzatzen direnek %69,5 dira.

FAMILIA HIZKUNTZA	GAINDITUAK			
	Publikoa		Hitzartua	
	K	%	K	%
Euskararik ez	147	40,4	193	37,3
Euskara	135	74,7	87	69,5
<b>Guztira</b>	<b>283</b>	<b>51,7</b>	<b>281</b>	<b>43,6</b>

Familia hizkuntzaren arabera ez dago alde esanguratsua ikastetxe publiko eta hitzartuen artean, baina lehen ikusi dugun bezala alde hori esanguratsua da sare bakoitzaren barruan familia hizkuntza kontuan hartzen badugu.

Grafikoan horrela ahal da ikusi:

### EUSKARA PROBA GAINDITUTA: FAMILIA HIZKUNTZA ETA SAREA



Datu horien arabera, ikastetxe publikoetan emaitza hobekoak lortzen dira hitzartuetan baino. Hala ere, familiaren hizkuntzak eragin oso handia jarraitzen du izaten bi kasuetan, bai publikoan, bai hitzartuan, euskara denean emaitzek batezbesteko orokorra gainditzen dute eta.

Euskaraz hitz egiten ez duten kasuetan, bi sareetan agertzen diren emaitzak batezbesteko baxuagoak dira.


### 3.4. IKASLEEN SEXUEN ARABERAKO EMAITZAK.

Ikasleen sexuaren arabera ere, emaitza desberdinak ahal dira nabaritu: Nesken %52,9k gainditu dute eta mutilek %41,7. Aldea esanguratsua da.

Ondoko taulan eta grafikoan garbi azaltzen da desberdintasun hori:

SEXUA	GAINDITUTA	
	K	%
Neska	315	52,9
Mutila	249	41,7
<b>Guztira</b>	<b>563</b>	<b>47,3</b>

## EUSKARA PROBA GAINDITUTA: IKASLEEN SEXUA



Neskek emaitza hobekoak ateratzen dituzte mutilek baino, %11,2ko aldea dago hain zuzen ere. Desberdintasuna esanguratsua da.


## 3.4.1. IKASLEEN SEXU ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Ikasle gaitutuek, sexua familiako hizkuntzarekin alderatuta, horrelako datuak eskaintzen dituzte:

- Neskak: gaitutzen dutenen artean, %43,4k ez dute euskaraz etxean hitz egiten. Etxean euskaraz hitz egiten dutenen %77,8k gaitutu dute.
- Mutilek kasu guztietan emaitza apalagoak izaten dituzte: euskaraz etxean hitz egiten ez dutenen %34,1ek gaitutu dute. Hitz egiten dutenen artean, %66,3k.

FAMILIA HIZKUNTZA	GAINDITUTA			
	K	Neskak	K	Mutilak
Euskararik ez	185	43,4	155	34,1
Euskara	129	77,8	93	66,3
<b>Guztira</b>	<b>315</b>	<b>52,2</b>	<b>249</b>	<b>41,7</b>

## EUSKARA PROBA GAINDITUTA: FAMILIA HIZKUNTZA ETA IKASLEEN SEXUA



Nabarmena da, beraz, kasu guztietako aldea: %34,4 nesken kasuan eta %32,2 mutilen kasuan. Bestalde, alde hori esanguratsua da kasu guztietan.

Euskaraz etxean hitz egiten ez dutenean, bi sexuetan kopuru baxuak dira, baina batezbesteko orokorraren gertuago kokatzen dira neskek mutilak baino.

### 3.4.2. SEXU ETA HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA


Koadroan ageri den legez, neskek eta mutilek emaitza oso antzekoa ematen dute B ereduan: %27,37 eta %27,67, hurrenez hurren.

D ereduan, ordea, desberdintasunak esanguratsuak dira: neskek %54,76 lortu dute eta mutilek %48,69.

HIZKUNTZA EREDUA	GAINDITUTA			
	K	Neskak%	K	Mutilak%
B eredua	54	27,37	55	27,67
D eredua	260	65,76	193	48,69
<b>Guztira</b>	<b>314</b>	<b>52,93</b>	<b>248,53</b>	<b>41,68</b>

Datuak hurrengo grafikoan irudikatu ditugu:

#### EUSKARA PROBA GAINDITUTA: HIZKUNTZA EREDUA ETA IKASLEEN SEXUA



Datu horien arabera, mutilen, beraien artean, desberdintasun esanguratsuak dituzte B eta D ereduan. Neskek ere ereduaren arteko alderik badituzte.

D ereduan ere nesken eta mutilen arteko aldea esanguratsua da, baina B ereduan aldea ez da esanguratsua; datu hori deigarria da orain arte nesken eta mutilen arteko desberdintasunak handiak izan baitira.



# Emaitzak eta aldagaiak **4**





## 4.1. FAMILIAREN GIZA-EKONOMI ETA LANBIDE MAILA

Adierazle hau kalkulatzeko, ikasleen galdera-sortan gurasoen lanbideei buruzko erantzunak erabili ditugu. Ikasleek esaten ziguten zein zen ama eta aitaren lana eta zer egiten zuten lanean. Indize hori PISA ebaluazioan erabili genuen eta, horren bidez, familiaren giza-ekonomi eta lanbide maila kalkulatu dugu.

Konkretuki, honako galderotan oinarritu gara:

- *Zein da zure amaren gaur egungo lana (adibidez, institutuko irakaslea, erizaina, saltzailea...).*
- *Zer egiten du amak lanean (adibidez, irakatsi, gaixoak zaindu, arropa saldu...).*

Galdera horiek aitaren lanari buruz erantzun zituzten ere. Erantzunen arabera, kode bat jarri diogu erantzun bakoitzari ISCO<sup>12</sup> indizea jakiteko. Indize hori ez da estatistikoa, nazioarteko sailkapena da lanbideen estatusa eta balorazioa ordenatzeko.

ISCOk Lanbideak lau ataletan sailkatzen ditu. Honako hauek dira lau mailak:

1. Maila altuko lanbideak: medikuak, abokatuak, enpresako zuzendariak...
2. Erdiko langileak: saltzaileak, zerbitzuen langileak...
3. Nekazariak, artisauak eta halako langileak...
4. Titulu gabeko langileak: gidariak, kualifikazio baxuko langileak...

Gurasoen bi kode horiek ezagutu eta gero, ISEI<sup>13</sup> eskalako bi datu dauzkagu eta haietariko altuena aukeratu dugu HISEI indizea lortzeko.

Honako taulan ikusten dira ebaluazioan parte hartu duen laginaren estatistikoak. Ikusten denez, 48 da batezbestekoa, 16ko gutxiengoa eta 90ko gehiengoa hartuta. Gutxiengo indizea 16 da, erreala eta posiblea.

	K	Gutxiengoa	Gehiengoa	Batezbestekoa	Desb. tipik.
<b>HISEI balioa. Lanbide maila altuena (16-90)</b>	1.128	16	90	47,6	17,42

Balio bat eman diogu kodeari eta Z HISEI indizea kalkulatu da lagin horretarako. Beraz, puntuazio tipikoa bezala aurkezten dugu, batz bestekoa 0 eta desbirapen tipikoa 1 izanda.

Beheko taulan, Euskal Autonomia Erkidegoko batz bestea kalkulatu da.

	K	gutxiengoa	gehiengoa	batezbestekoa	Desb. Tipik.
<b>Z HISEI balioa (lanbide maila altuena)</b>	1.128	-1,81	2,43	0,00	1,00

Aipatutako Z HISEI indizea kontuan izanda, zenbait ondorio atera ditzakegu. Honako atalotan ez dira desberdintasunik agertzen:

12) ISCO. *International Socio-Economic Index of Occupational Status*. Paper, University of California. Los Angeles, 1990ko abenduan.

13) International Socio-Economic Index of Occupational Status.

- B eta D eredueta ez dago desberdintasunik gurasoen ikasketa eta lanbide mailak kontuan izanda.

	BATEZBESTEKOA	DESB. TIPIKOA
<b>B eredua</b>	-0,08	0,99
<b>D eredua</b>	0,04	1,00

- Ez da agertzen lanbide mailen artean alderik ikastetxeak publikoak edo hitzartuak izanda.

	BATEZBESTEKOA	DESB. TIPIKOA
Publikoa	-0,05	1,03
Hitzartua	0,04	0,97

- Ez da agertzen alderik sexuen arabera.

	BATEZBESTEKOA	DESB. TIPIKOA
<b>Mutilak</b>	0,06	0,9
<b>Neskak</b>	0,06	1,01

Berriz, datozen ataletan alde esanguratsuak ikusiko ditugu.

#### 4.1.1. LAGINAREN DESKRIPZIOA ZHISEI BALIOAREN BIDEZ


##### a) ZHISEI eta familia hizkuntza

Esanguratsua da agertzen den aldea etxeko hizkuntza kontuan izanda. Batezbestekoa altuagoa da etxean euskaraz hitz egiten bada. Beraz, euskaraz hitz egiten duten gurasoek lanbide altuagoa daukate besteek baino lagin honetan.

ZHISEI	BATEZBESTEKOA	DESBIDERAPEN TIPIKOA
<b>Euskararik ez</b>	-0,06	1,00
<b>Euskara</b>	0,16	0,98
<b>Guztira</b>	0,00	1,00

Laginako familiei buruzko informazioa ematen digu datu horrek. Honako taulan agertzen den bezala, ZHISEI balioa 0,16 da euskara familia hizkuntza denean eta -0,06 euskara ez denean familia hizkuntza.

##### ZHISEI ETA FAMILIA HIZKUNTZA




**b) ZHISEI eta biztanle kopurua**

Lagina deskribatzeko baliogarria den beste datu bat ematen digu ZHISEIren bidez egindako azterketak. Ikastetxeak kokatuta dauden herrien biztanleen kopurua kontuan izanda, alde esanguratsuak agertzen dira ZHISEI balioetan.

ZHISEI	K	BATEZBESTEKOA	DESBIDERAPEN TIPIKOA
<b>17.000 bizt. baino gutx.</b>	374	-0,07	0,97
<b>17.000-100.000 artean</b>	404	-0,08	0,99
<b>100.000 biz. baino geh.</b>	350	0,17	1,01

Taulan eta grafikoan ikusten denez, hiri handienetako ikastetxeetan ikasten duten familien lanbide eta ekonomi maila altuagoa da Euskara Probaren laginan. Beraz, hiru lurraldeetako hiriburuetan ikasten duten ikasleen familien ZHISEI balioa 0,17 da eta 100.000 biztanle baino gutxiago hirietan bizi direnen familien indizeak zero azpitik daude.


**ZHISEI ETA HIRIAK****4.1.2. LAGINAREN EMAITZAK ZHISEI BALIOA KONTUAN IZANDA****a) ZHISEI eta ikasle errepikatzaileen emaitzak**

Inoiz errepikatu ez duten ikasleen gurasoek lanbide maila altuagoa daukate lagin horretan.

ZHISEI	GUTXIENGOA	GEHIENGOA	BATEZBESTEKOA	DESBIDERAPEN TIPIKOA
<b>Ez du errepikatu</b>	-1,81	2,43	0,061	1,01
<b>Guztira</b>	-1,81	2,43	0,00	1,00
<b>Inoiz errepikatu du</b>	-1,81	2,31	-0,28	0,87

Honako taulan argiago ikusten da inoiz errepikatu duten ikasleek ekonomi eta lanbide maila baxuago daukatela. Konkreteki -0,28 errepikatzaileek eta 0,06 inoiz errepikatu ez dutenek.

## ZHISEI ETA ERREPİKATZAILEAK




## b) ZHISEI eta proba gainditu dutenen emaitzak

Proba gainditu dutenen gurasoek lanbide maila altuagoa daukate lagin horretan.

ZHISEI	GUTXIEN.	GEHIENG.	BATEZBESTEKOA	DESBIDERAPEN TIPIKOA
Ez du proba gainditu	-1,8	2,43	-0,16	0,98
Guztira	-1,8	2,43	0,00	1,00
Proba gainditu du	-1,8	2,32	0,17	1,00

Honako grafikoan azaltzen denez, proba gainditu duten ikasleek lanbide maila altuagoa daukate (konkretuki 0,17 puntu) eta proba gainditu ez dutenek zero azpitik daude, beraz, ekonomi eta lanbide maila baxuagoa.

## ZHISEI ETA PROBA GAINDITZEA




Ondorio hau ereduak aztertuta egiaztatu egiten da. Beraz, B ereduan proba gainditu dutenen gurasoek lanbide maila altuagoa daukate eta berdin ikusten da D ereduan.

Honako taula eta grafikoetan datuak ikusiko ditugu ereduka sailkatuta.

ZHISEI	GUTXIEN.	GEHIENG.	BATEZBESTEKOA	DESBIDERAPEN TIPIKOA
Ez du gaind. B eredua	-1,81	2,43	-0,20	0,97
Ez du gaind. D eredua	-1,81	2,32	-0,11	0,99
Guztira	-1,81	2,43	0,00	1,00
Gainditu du. B eredua	-1,81	2,32	0,23	0,98
Gainditu du. D eredua	-1,81	2,32	0,15	1,00

ZHISEI ETA PROBA GAINDITZEA EREDUKA



## 4.2. HIZKUNTZA EREMUETAKO EMAITZAK

Ikasleek lortu dituzten emaitzetan inguruneak eragiten duen ezagutzea interesatu zaigu. Alde hori aztertzeko, ikasleak hiru taldetan sailkatu ditugu<sup>14</sup>. Taldeak ia erabat homogeneoak dira (gutxi gorabehera, ikasleen heren bat talde bakoitzean). Irizpideak hurrengoak izan dira:

- Lehenengoan, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %63 edo handiagoa duten hirietako ikastetxeetara doazen ikasleak daude (guztietatik, %32,2).
- Bigarrenean, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %63 eta %50 artean aurkitzen direnak (%34,9).
- Hirugarrenean, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %50 baino gutxiago diren hirikoak (%32,8).

14) Hizkuntza eremuak zehazteko Eustatek (2001) prestatutako informazioan oinarritu gara ([www.eustat.es](http://www.eustat.es))


### 4.2.1. IKASLEEN BANAKETA HIZKUNTZA EREMUETAN

Hurrengoetan proba gainditu dituzten ikasleen datu banaketa ikus dezakegu, ikasten duten hirietako euskara-maila indizearen arabera:

	GAINDITUTA	
	K	%
<b>%63 euskaldun gutxienez</b>	240	60,79
<b>%63 - %50 euskaldun</b>	178	44,15
<b>%50 euskaldun gehienez</b>	145	36,96
<b>Guztira</b>	<b>564</b>	<b>47,3</b>

"%63 euskaldun gutxienez" beste biak baino handiagoa da, %95ean.

### B2 EUSKARA PROBA: HIZKUNTZA EREMUETAKO EMAITZAK



Euskara proba honetan ikasleak bizi diren ingurunea arrakastarako eragile erabakigarria ei da. Gizarte-ingurune maila eta eskuratutako emaitzen arteko lotura zuzena dela argi geratu da.

Datuak aztertu ondoren, euskara-maila altuagoa duten guneetan proba gainditu duten ikasleen kopurua ere altuagoa dela ondoriozta dezakegu. Beraz, neurri batean behintzat, zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta proba gainditu duten ikasleen kopurua altuagoa da.

Euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua populazioaren %63tik gora denean, euskara proba gainditu dituzten ikasleen kopurua batezbestekoa baino askoz handiagoa da (guztietatik, %60,8 gutxi gorabehera). Alderantziz, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua populazio osotik %50 baino baxuagoa denean, euskara proba gainditu duten ikasleak ez dira %40ra iristen.


Jarraian ikusiko dugun legez, ondorio hori Euskara proba mintzamenarekin emaitzek ere egiaztatu dute.

### MINTZAMENA GAINDITU DUTENAK

	GAINDITUTA	
	K	%
<b>%63 euskaldun gutxienez</b>	33	75,0
<b>%63 - %50 euskaldun</b>	66	53,1
<b>%50 euskaldun gehienez</b>	20	37,5
<b>Guztira</b>	<b>120</b>	<b>53,7</b>

"%63 euskaldun gutxienez" beste biak baino handiagoa da, %95ean.

## EUSKARA PROBA MINTZAMENAREKIN: HIZKUNTZA EREMUETAKO EMAITZAK




Esan dugun bezala, ikasleek ahalik eta eremu euskaldunenean bizi, orduan eta euskara proba gainditzeko aukera handiagoa dute. Diferentzia biziago nabaritzen da mintzamena proban: euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua populazioa %63tik gora den tokietan, proba gainditu dituzten ikasleen kopurua %75ekoa da. Gainerako eremuetan proba orokorraren datuak baieztatzen dira eta batezbestekotik azpian geratzen dira. Dena dela, mintzamena jardueran proba orokorrenak baino pixka bat altuagoak dira; baita mintzamena jardueraren batezbesteko emaitza ere.

## 4.2.2. HIZKUNTZA EREMUAREN ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Hurrengoan ikasleak zein eremutan bizi diren eta zein den euskararekiko familien egoera erlazionatu ditugu, ea ikasleen emaitzetan eragiten duten ikusteko asmoz. Hona hemen bi aldagai horiei buruzko datuok:

	GAINDITUAK			
	Euskararik ez		Euskara	
	K	%	K	%
%63 euskaldun gutxienez	98	50,12	143	71,61
%63 eta %50 euskaldun	114	35,25	64	80,48
%50 euskaldun gehienez	129	35,36	16	57,23
<b>Guztira</b>	<b>341</b>	<b>38,59</b>	<b>223</b>	<b>72,55</b>

**B2 EUSKARA PROBA: HIZKUNTZA EREMUAREN ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK**

Ikus ditzagun zenbait ondorio:

Lehenengoa: diferentzia gordina dago familia hizkuntzaren arabera. B ala D ereduan ikasi arren, euskaraz mintzatzen den familietako ikasleen %72,55ek gainditu dute euskara proba. Hala ere, etxean euskaraz berba egiten ez duten ikasle gutxiagok gainditu dute proba (%38,59).

Bigarrena: euskaraz hitz egiten ez den familietako ikasleek, inguru euskaldunean bizi badira, beren emaitzak 15 puntuetan hobetzen dituzte (batezbestekoa %38,59 bada, %50,12k gaindu dute).

Hirugarrena: hizkuntza eremuko euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %63 eta %50 artean edo %50 baino txikiagoa bada, etxean euskaraz hitz egiteko aukera ez duten ikasleen arrakasta antzekoa da; bi eremuetan %35 baino apur bat gehiagok gainditu dute proba.

Laugarrena: euskara familia hizkuntza denean, ikasle gehienek gainditu dute euskara proba. Hala ere, ebakidura bat ere badago; hots, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopura %50 baino apalagoa den tokietan, familia euskaldunetik datozen eta arrakasta duten ikasleen kopurua batezbestekoa baino 15 puntu gutxiagokoa da.


Finean, bi faktoreak (euskara familia hizkuntza izatea eta eremu euskaldun batean bizi izatea) batzen diren kasuetan, ikasleen emaitzak hoberenak direla esan dezakegu. Baina, bata edo bestea falta diren egoeretan, gutxienez ikasleen %50ek gainditu du euskara proba.

Azter ditzagun, orain, zein neurritan eragiten duen familia hizkuntzak, mintzamina jardueran parte hartu zuten ikasleen emaitzetan, eta ea emaitzak aldatzen diren hizkuntza eremuen arabera.

Familia hizkuntza	MINTZAMENA GAINDITUTA			
	Euskararik ez		Euskara	
	K	%	K	%
%63 euskaldun gutxienez	14	71,6	19	77,8
%63 eta %50 euskaldun	50	48,3	16	77
%50 euskaldun gehienez	17	34,1	3	75,00
<b>Guztira</b>	<b>81</b>	<b>46,9</b>	<b>39</b>	<b>77,2</b>



**EUSKARA PROBA MINTZAMENAREKIN: HIZKUNTZA EREMUAREN ETA FAMILIA HIZKUNTZA**



Alde batetik, euskara familia hizkuntza denean, %70 baino gehiagok gainditu dute mintzarena jarduera, edozein hizkuntza eremutan badaude ere. Antzematen diren diferentziak ez dira aipagarriak.

Beste alde batetik, euskaraz hitz egiten ez diren familietako ikasle gutxiagok gainditu dute proba mintzamenarekin, %46,9 hain zuzen. Hala ere, ikasle horiengan zein hizkuntza eremutan dauden eragiten omen du. Euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %63 edo handiagoa den eremuetan bizi direnek eraginik positiboena jasotzen dute. Ikasle horien %71,6k gainditu dute mintzarena proba.

Datu horrek ikasleak kokatzen ditu euskara familia hizkuntzatzat dutenen maila berean. Hala ere, bizi diren euskaldunen kopurua jaisten den neurrian, proba mintzamenarekin gainditu duten kopurua ere txikiagoa da. Gainera, diferentzia oso nabarmena da, euskaldunen kopurua %63 edo handiagoa eta %63 baino euskaldun gutxiagoen arteko aldea 30 puntukoa baita, gutxi gorabehera.

**4.2.3. HIZKUNTZA EREMUEN ETA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERAKO EMAITZAK**

Emaitzak hizkuntza eremuen arabera analizatzerakoan, beste aldagai bat izan dugu kontuan, ikasleen hizkuntza ereduak. Bi aldagai alderatu ditugu:

	HIZKUNTZA EREDUAK				GUZTIRA	
	B eredua		D eredua		K	%
	K	%	K	%		
euskaldunen %63 gutxienez	54	12,1	330	44,4	384	32,2
euskaldunen %63 - %50	230	51,5	186	25,0	416	34,9
euskaldunen %50 gehienez	163	36,5	228	30,6	391	32,8
<b>Guztira</b>	<b>447</b>	<b>100,0</b>	<b>744</b>	<b>100,0</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>


Datuak<sup>15</sup> miatuz gero, hainbat eta hiri euskaldunagoa, orduan eta D eredia indartsuagoa dela antzeman daiteke. Orduan, %63 baino euskaldun gehiago dauden tokietan D ereduko ikasleak %44,4ra iristen dira; izan ere, beste bi guneeetan portzentajeak jaisten dira.

B ereduari dagokionez, aldiz, euskaldunen kopurua %63 baino baxuagoa den lekuetan kontzentratzen dira ikasleak (%88,0); hortaz, zonalde euskaldunenetan gutxi gorabehera %12 baino ez daude.

Hurrengo taulan eta grafikoan proba gainditu dituzten ikasleen datuak adierazi ditugu, hizkuntza eremuak eta hizkuntza ereduak kontuan hartuz.

	GAINDITUTA			
	B eredia		D eredia	
	K	%	K	%.
<b>%63 euskaldun gutxienez</b>	17	33,47	224	64,71
<b>%63 eta %50 euskaldun</b>	48	23,96	130	63,87
<b>%50 euskaldun gehienez</b>	45	30,29	100	41,04
<b>Guztira</b>	<b>109</b>	<b>27,52</b>	<b>454</b>	<b>57,21</b>

## B2 EUSKARA PROBA: HIZKUNTZA EREMUAREN ETA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERAKO EMAITZAK



D eredian datuek adierazten dute diferentzia nabarmena gertatu dela ikasleen hizkuntza eremuaren arabera. Horrela, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %50 baino handiagoa den eremuetan bizi diren ikasleetatik, ia %64k baino gehiago gainditu dute euskara proba. Aldiz, euskaldunen kopurua %50tik jaisten den eremukoek %41ek, gutxi gorabehera, gainditu dute, beste ikasleekiko 13 puntuko distantzia zabaltzen duena.

B ereduari dagokionez, datuak homogeneoagoak dira eta ez dira alde nabarmenik sumatzen. Dena dela, B ereduko ikasleen lagina txikia da behin betiko ondorioak ateratzeko moduan; beraz, datuen esanguratsutasun estatistikoa urriagoa da.

15) Datu hauek ponderatu gabekoak dira.

### 4.3. UDALERRIEN TAMAINAREN ETA LURRALDEAREN ARABERAKO EMAITZAK

Euskara probako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak hiri ingurune- edo habitat-mota desberdinetakoak dira. Batzuk hiri handietan daude eta beste batzuk, berriz, hiri txikietan. Horrexegatik, faktore horrek emaitzetan eragiten ote duen baloratzen saiatu egin gara.

Orduan, euskara proba gainditu dituzten ikasleak hiru taldeetan antolatu ditugu, ikastetxeak dauden udalerrien tamainaren arabera<sup>16</sup>. Hiru talde horiek ahalik eta homogeneoenak lortzea izan dugu abiapuntu.


#### 4.3.1. IKASLEEN BANAKETA UDALERRIEN TAMAINAREN ARABERA

Taulan eta grafikoan aurkezten ditugun hiru taldeetako kopuruak batezbesteko %47,3ren inguruan dabilta. Horrek esan nahi du ikasleak hiri txiki edo handi batean bizi izateak ez duela emaitzetan eragiten. 100.000 biztanle baino gehiago duten hirietan bizi diren ikasleen emaitzak aztertzen baditugu, hiri txikiagokoenak baino gaintitutako kopuru pixka bat baxuagoak direla nabarmentzen da; izan ere, diferentzia haiek ez dira esanguratsuak ikuspegi estatistiko batetik alderatuta.

	GAINDITUTA	
	K	%
<b>17.000 biztanle baino gutxiago</b>	203	49,61
<b>17.000 eta 100.000 biztanle artean</b>	207	49,21
<b>100.000 biztanle baino gehiago</b>	154	42,47
<b>Guztira</b>	<b>564</b>	<b>%47,3</b>

%95ean ez dago diferentziarik

#### B2 EUSKARA PROBA GAINDITU DUTEN IKASLEAK UDALERRIEN TAMAINAREN ARABERA




16) Udalerrien tamaina zehaztean Eustatek (2001) prestatutako informazioan oinarritu gara ([www.eustat.es](http://www.eustat.es)).

### 4.3.2. UDALERRIEN TAMAINAREN ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Emaitzetan eragiten dituzten faktoreak aztertzean, udalerrien tamaina eta familia hizkuntza aldagaiak erlazionatu ditugu. Euskara proba gainditu duten ikasleen kopurua ondorengo taulan eta grafikoan irudikatu ditugu:

	GAINDITUTA			
	Euskararik ez		Euskara	
	K	%	K	%.
<b>17.000 biztanle baino gutxiago</b>	95	37,29	108	70,50
<b>17.000 eta 100.000 biztanle artean</b>	123	39,74	85	75,09
<b>100.000 biztanle baino gehiago</b>	123	38,51	30	73,21
<b>Guztira</b>	<b>341</b>	<b>38,59</b>	<b>223</b>	<b>72,55</b>

#### B2 EUSKARA PROBA: UDALERRIA TAMAINA ETA FAMILIA HIZKUNTZA



Datu horien analisisa laburbilduz, udalerrien tamainak ez diela emaitzei eragiten egiazta dezakegu. Bai euskara familia hizkuntza gisa duten ikasleen arteko emaitzak bai euskara familia hizkuntza gisa ez dutenen arteko emaitzak nahiko antzekoak izan dira. Horrela izanda, etxean euskaraz hitz egiten dutenetatik, gutxi gorabehera %70,5 eta %75 artean gainditu dute euskara proba. Etxean euskaraz mintzatzeko aukera edo ohitura ez dutenen emaitzak are homogeneoak dira, hiri handietan edo txikietan bizi arren, duten arrakasta maila %37-40 bitartean kokatzen da. Beraz, berriro ere batez ere familia hizkuntzak eragiten duela ikusten da eta udalerrien tamainak ez du apenas eraginik izaten.

### 4.3.3. UDALERRIEN TAMAINAREN ETA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERAKO IKASLEEN BANAKETA

Emaitzen analisi horren atalarekin amaitzeko, udalerrien tamaina eta hizkuntza ereduak erlazionatu ditugu. Datuak honako taulan ikus daitezke:

	HIZKUNTZA EREDUAK				GUZTIRA	
	B eredua		D eredua		K	% zut
	K	% zut	K	% zut		
<b>17.000 biztanle baino gutxiago</b>	87	19,5	296	39,8	<b>383</b>	<b>32,2</b>
<b>17.000 eta 100.000 biztanle artean</b>	126	28,2	288	38,7	<b>414</b>	<b>34,8</b>
<b>100.000 biztanle baino gehiago</b>	234	52,3	160	21,5	<b>394</b>	<b>33,1</b>
<b>Guztira</b>	<b>447</b>	<b>100,0</b>	<b>744</b>	<b>100,0</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>

Hasteko, udalerrien tamainaren araberako taldeak nahiko orekatuak direla azpimarratu nahi dugu. Bakoitzak, gutxi gorabehera, ikasle guztien heren bat ordezkatzen du, *guztira* eskuinaldeko zutabearen agertzen den moduan.


Gero, emaitzak ereduka aztertzerakoan, oso bestelako joera dituztela egiaztatu dugu. D ereduan ikasten duten ikasleak batez ere hiri txiki edo ertaineko hirietan dira nagusi. Hala ere, 100.000 biztanle baino gehiago duten hirietan ikasle horien ehunekoa jaisten da nabarmen, %21,5eraino.

B ereduko ikasleek oso espazio-banaketa desberdina erakusten dute. Erdia baino gehiago (%52,3) hiriburuetan bizi da. Portzentajea %28,2ra jaisten da 17.000 eta 100.000 biztanle arteko biztanle-kopurua duten hirietan. Joera hori hiri txikienetan areagotzen da, 17.000 baino biztanle gutxiago duten hirietan, euskara proba egin duten ikasleetatik, B ereduan bakarrik %19,5ek ikasten duelako.

Jarraian, aurreko bi aldagaiak kontuan hartuta, zenbatek gainditu duten euskara proba aztertuko dugu. Hona hemen datuak eta adierazpen grafikoa:

	GAINDITUTA			
	B eredua		D eredua	
	K	%	K	%
<b>17.000 biztanle baino gutxiago</b>	16	19,64	186	57,23
<b>17.000 eta 100.000 biztanle artean</b>	25	21,76	182	59,64
<b>100.000 biztanle baino gehiago</b>	68	34,17	86	52,62
<b>Guztira</b>	<b>109</b>	<b>27,52</b>	<b>454</b>	<b>57,21</b>

## B2 EUSKARA PROBA: UDALERRIEN TAMAINAREN ETA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERAKO IKASLE GAINDITUAK



Beste azalpenik eman baino lehen, B ereduko ikasleen kopurua txikia dela ohartarazi behar dugu. Beraz, emaitzak ontorio irmo baino gehiago joeratzat hartu behar dira. Dena dela, hiri handienetan bizi direnen proba gainditu dutenek kopuru handiena lortu dute. Hiri txikiagotan eman den gaindituen kopurua ia bikoizten dute hiriburuetaoek, euskarazko gaitasun sendoagoak eskuratu dituzte eta.

D ereduan lagina bada adierazgarria, baina, kasu horretan, aldiz, hirien tamainaren arabera izandako diferentziak ez dira oso esanguratsuak. Edozein egoeratan erdiak baino gehiago gainditu du euskara proba (%52 eta %60 arteko aldea dago).

### 4.3.4. EMAITZAK LURRALDEKA

Probaren lagina ez da behar adinako zabala, lurraldekako emaitzak esanguratsuak izateko moduan. Are gehiago lurralde bakoitzeko hizkuntza ereduak aztertzen baditugu, ikasleen kopuruak nabarmen jaisten baitira. Hala ere, datu horiek analisatzeak merezi du, fidagarritasun estatistiko osoa izan ez arren, joera adierazten dute eta.

	HIZKUNTZA EREDUAK				GUZTIRA	
	B eredua		D eredua		K	%
	K	%	K	%		
Araba	37	8,3	127	17,1	<b>164</b>	<b>13,8</b>
Bizkaia	208	46,5	335	45,0	<b>543</b>	<b>45,6</b>
Gipuzkoa	202	45,2	282	37,9	<b>484</b>	<b>40,6</b>
<b>Guztira</b>	<b>447</b>	<b>100,0</b>	<b>744</b>	<b>100,0</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>


Goiko taulan ikus daitekeen legez, Bizkaiko ikasleak proba osotik %45,6 izan dira Gipuzkoakoak %40,6 eta Arabakoak %13,8. Dena dela, hizkuntza ereduak ez dute lurraldeetan ordezkapen homogeneoa eduki. Hiruretan D ereduko ikasleen kopurua handiagoa izan da. Izan ere, Araban desberdintasun nabariena eman da (B ereduan 37 ikasle eta D ereduan 127). Aldiz, datuak gehien hurbiltzen diren lurraldea Gipuzkoakoak dira (B ereduan 202 ikasle eta D ereduan 282).

Ikus ditzagun lurraldeka proba gainditu dituzten ikasleen datuak, hurrengo taula eta grafikoa aztertuz:

LURRALDEAK	GAINDITUTA	
	K	%
Araba	58	37,28
Bizkaia	240	45,49
Gipuzkoa	265	52,25
<b>Guztira</b>	<b>564</b>	<b>47,3</b>

Gipuzkoa Araba baino handiagoa da, %95ean

#### B2 EUSKARA PROBAREN EMAITZAK LURRALDEKA




Aurreko datu horiek lurraldeen artean diferentziak eman direla erakusten dute argi. Ebaluatu ditugun Gipuzkoako ikasle guztien erdiak baino gehiagok (%52,25) gainditu dute proba; Bizkaikoak ez dira erdira heldu (%45,49); eta emaitzik urrienak Arabakoan ditugu (%37,28). Laburbilduz, bakarrik Gipuzkoak gainditzen du probaren batezbestekoa; Bizkaia oso gertu geratzen da, baina azpitik, eta Arabak besteekiko alderik nabarmena adierazten du.

#### 4.4. IKASLEEN IKASKETA ITXAROPENA

Ikasleek adierazi dute zein da beraien asmoa ikasketak jarraitzeko. Beheko grafikoan ikusten da orokorrean ikasketa nahia altua dutela. %60,2k Unibertsitateko ikasketak egin nahi ditu, %17,3k Goi Mailako Heziketa Ziklo bat, Batxilergoa eta Erdi Mailako Heziketa Zikloa kopuru antzekoa, %9 eta % 8,8 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) gehiagorik ez duten egin nahi kopuru txikia da, % 2,8.


## ZEIN MAILATARA ARTE IKASTEN JARRAITZEKO ASMOA DUZU? PORTZENTAJEA



Hurrengo grafikoak adierazten du ikasleek duten ikasketa nahiaren eta euskara gainditzeko arteko erlazioa. Ikasleek Unibertsitateko ikasketak egiteko nahia edo asmoa baldin badute euskara proba gehiago gainditzeko beste beheko ikasketak egiteko asmoa adierazi duten baino.

Desberdintasun handia ikusten da Unibertsitateko joan nahi dutenak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egin nahi dutenen artean. Gainditzeko dute %59,9k eta %2,6k, hurrenez hurren.

## ZEIN MAILATARA ARTE IKASTEN JARRAITZEKO ASMOA DUZU? GAINDITUAK





## 4.5. IKASLE ERREPIKATZAILEAK

### 4.5.1. ERREPIKATU DUTEN IKASLEEN EZAUGARRIAK

*Errepikatzaileen kopurua.* Euskara Probaren lagina 1191 ikaslek osatzen dute eta haietariko 221 ikaslek ikasturteren bat errepikatu dute. Beraz, laginaren %18,5.

IKASLEAK GUZTIRA	INOIZ ERREPIKATU DUTEN IKASLEAK	%
1.191	222	18,5

*Errepikatzaileen sexua.* Errepikatzaileen laginaren %55 mutilak dira (122) eta %45 neskek dira (100).

	K	%
Neskak	100	45
Mutilak	122	55
Guztira	222	100

*Errepikatzaileen familia hizkuntza.* 169 ikaslek, laginaren %76k, ez dute euskara familia hizkuntza bezala eta 53 ikaslek, %24k, euskaraz hitz egiten dute etxean.

	K	%
Euskaraz ez	169	76
Euskaraz	53	24
Guztira	222	100

*Errepikatzaileak hizkuntza ereduaren arabera.* B ereduko 84 ikaslek errepikatu dute (%38) eta D ereduko 138 ikasle (%62).

	K	%
B eredia	84	38
D eredia	138	62
Guztira	222	100

*Errepikatzaileak eskola sarearen arabera.* Sare publikoan 123 ikasle (%55, 7) eta sare hitzartuan 98 ikasle (%44,3).

	K	%
Publikoa	123	55,7
Hitzartua	98	44,3
Guztira	222	100

*Errepikatzaileen ezaugarri nabarienenak.* Datuetan ikusten denez, ikasle errepikatzaileak laginaren %18,5 osatzen dute. Haietariko %55 mutilak dira, %76ren familia hizkuntza ez da euskara, %62k D ereduaren ikasten du eta %55,7 ikastetxe publikoetan dago.

#### 4.5.2. ERREPIKATU DUTEN IKASLEEN EMAITZAK

Inoiz errepikatu duten ikasleen erdiak baino gehiagok (%77,7) ez du Euskara Proba gainditu. Honako taulan biltzen dira datu orokorrak:

EZ DUTE GAINDITU		GAINDITU DUTE		GUZTIRA	
K	%	K	%	K	%
172	77,7	49	22,3	221	100

#### 4.5.3. ERREPIKATZAILEEN EMAITZAK HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA


B ereduko errepikatzaileak 84 dira (%38). Haietariko 79 ikaslek (%35,7) proba ez dute gainditu eta 5ek (%2,3) gainditu dute.

D ereduko 138 errepikatzaile (%62) izan dira. Haietariko 93 ikaslek (%42) proba ez dute gainditu eta 44 ikaslek (%20) gainditu dute.

	EZ DUTE GAINDITU		GAINDITU DUTE		GUZTIRA	
	K	%	K	%	K	%
<b>B eredia</b>	79	94	5	6	84	100
<b>D eredia</b>	93	67,8	44	32,2	138	100
<b>Errepika.</b>	172	77	49	22,3	221	100

Honako taulan, Euskara Proba gainditu duten portzentajeak sartu ditugu. Ikustenenez, bi ereduetako ikasle kopuru handi batek ez du proba gainditu. Hala ere, D ereduko errepikatzaile gehiagok gainditu dute. Lagin orokorrean ematen den bezala, D ereduan ikasten duten errepikatzaileek emaitza altuagoak lortu dituzte.

#### GAINDITU DUTE (EREDUAREN ARABERA)



Datuak ikusita, esan dezakegu D ereduko errepikatzaileek (%32,2) proba gainditzen dutela lagin orokorraren B eredukoek (%27,5) baino proportzio altuagoan.


#### 4.5.4. ERREPIKATZAILEEN EMAITZAK SAREEN ARABERA

Datuak sareka aztertzen ditugunean, errepikatzaile gehienek ez dute Euskara Proba gainditu, baina sare publikoko talde nabari batek (39 ikasle) gainditu du.

	EZ DUTE GAINDITU		GAINDITU DUTE		GUZTIRA	
	K	%	K	%	K	%
<b>Publikoa</b>	84	68,3	39	31,7	123	100
<b>Hitzartua</b>	88	89,8	10	9,2	98	100
<b>Errepika.</b>					221	100

Honako taulan, gainditu dutenen datuak sartu ditugu. Bertan agertzen da sare publikoaren emaitza altuagoa.

#### GAINDITU DUTE (SAREAREN ARABERA)




#### 4.5.5. ERREPIKATZAILEEN EMAITZAK SEXUAREN ARABERA

Euskara Proban, errepikatzaileen kopurua ikusita, mutil gehiago daude baina datu horrek ez du eragin handirik portzentajeetan.

	EZ DUTE GAINDITU		GAINDITU DUTE		GUZTIRA	
	K	%	K	%	K	%
<b>Mutilak</b>	92	75,4	30	24,6	122	100
<b>Neskak</b>	80	80	20	20	100	100
<b>Errepika.</b>					221	100

#### GAINDITU DUTE (SEXUAREN ARABERA)




#### 4.5.6. ERREPIKATZAILEEN EMAITZAK FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERA

Etxean euskaraz mintzatzeko aukera daukaten errepikatzaileek emaitza hobekoak dituzte Euskara Proban.

	EZ DUTE GAINDITU		GAINDITU DUTE		GUZTIRA	
	K	%	K	%	k	%
<b>Euskararik ez</b>	141	83,5	28	16,5	169	100
<b>Euskaraz</b>	31	58,5	22	41,5	53	100
<b>Errepika.</b>					221	100

#### GAINDITU DUTE (FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERA)



Datuen arabera, errepikatzaileen artean ere, etxeko hizkuntza euskara izateak eragina du emaitza hobekoak lortzeko.

Datuak kontuan izanda, tendentziak markatzeko, norabideak aztertze erabiliko ditugu eta ez da egokia ondorio itxiak ateratzea.

Errepikatzaileen azpi-lagina aztertuta, honako norabideak aipa ditzakegu: D erduan aritzea, ikastetxe publikoan ikastea eta euskara familia hizkuntza izatea emaitza hobekoak lortzeko eragileak dira.

Atal horretan bildu ditugun datuak eta ondorioak bat datoz, beraz, koherenteak dira Bigarren Hezkuntzan egindako ebaluazioetan bildutakoekin.

## 4.6. FAMILIEN IKASKETA ALTUENEN ARABERAKO EMAITZAK

### 4.6.1. EMAITZAK FAMILIEN IKASKETA ALTUENEN ARABERA

Ikasleen galdesortan galdetu genuen ea zein mailaraino ikasi duten ama eta aita. Honako galdera egin genien:

Zein da zure gurasoen ikasketen maila?	AITA	AMA
Lehen edo oinarrizko ikasketak, bukatu gabe		
Lehen edo oinarrizko ikasketak		
Batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea		
Unibertsitate-titulua (diplomatura, lizentziatura...)		

Erantzunak bilduta, ikasketa maila altuena aukeratu genuen eta datuak ordenatu genituen. Ikusitako zenbait ondorio esanguratsuak dira eta datozen taula eta grafikoen bidez aurkeztuko ditugu. Kontuan izan behar da laginaren deskripzioaren datuak ponderatu gabe daudela.

Honako taula honetan, portzentaje bi sartu egin dira: erreala, kontuan izanda zenbait ikaslek ez dutela erantzun eta, portzentaje baliogarria, hau da, erantzun ez duten %6,7 kenduta.

Talde kopurutsuena guraso unibertsitate tituludunena da: %40,8. Deigarria da, ordea, lagin honetan oinarrizko ikasketak bukatu gabe dituzten guraso kopuru urria: %3,2.

Oinarrizko ikasketek, batxilergo edo baliokideekin batera (%56) laginaren erdia baino gehiago osatzen dute.

	K	%	Portzentaje baliogarria
Lehen edo oinarrizko ikasketak, bukatu gabe	36	3,0	3,2
Lehen edo oinarrizko ikasketak	267	22,4	24,0
Batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea	355	29,8	32,0
Unibertsitate titulua (diplomatura, lizentziatura)	453	38,0	40,8
<b>Guztira</b>	<b>1.111</b>	<b>93,3</b>	<b>100,0</b>
<b>Ez erantzun</b>	<b>80</b>	<b>6,7</b>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.191</b>	<b>100,0</b>	


*OHARRA: Ikasleen lagin osoaren %6,7k erantzun ez duenez, datuak ez datoz bat.*

Datorren koadroan atal desberdinetako ikasleen gaitutuen kopuruak agertzen dira: ikasketa maila handienek gaitutuen kopuru handienak dituzte; horrela, unibertsitatera joan diren gurasoen ikasleen gaitutuen %57,9koa dira. Hurrengoak Batxilergoa edo antzekoak ikasi dutenen seme-alabak datoz %46,6rekin.

Oinarrizko ikasketak dutenen ikasleek %38,7k gaitutu dute, eta azkenik, oinarrizko ikasketak bete ez dituztenen ikasleak daude: %22. Azken hauen aldea oso nabaria da gainontzekoekin alderatuta.

FAMILIA IKASKETAK	GAINDITUTA	
	K	%
Lehen edo oinarrizko ikasketak, bukatu gabe	8	22,0
Lehen edo oinarrizko ikasketak	109	38,7
Batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea	166	46,6
Unibertsitate titulua (diplomatura, lizentziatura)	252	57,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>535</b>	<b>48,2</b>

Datu hauek datorren grafikoan agertzen dira:



Gurasoen ikasketen aldagaia, beraz, oro eraginkorra da ikasleen emaitzetan.

Ereduak kontuan izanda, aipatutako joera jarraitzen da: gurasoen ikasketa maila handiko ikasleek gainditu gehiago lortzen dituzte ikasketa maila apalagoen ikasleek baino.

D ereduko %66,3 ikaslek gainditzen dute, gurasoek unibertsitatezko ikasketa izanda; baldintza berdinetan, B ereduan %37,1k gainditzen dute. Ikusten denez, aldea oso zabala da bi ereduen artean.


Emaitza apalenak izaten dira B ereduko ikasketa gabeko seme-alabena: %10,2. D ereduan, kasu berdinean, %39k gainditzen dute. Aldea ere handia da bi ereduen artean.

Ondorioz, ahal da esan familiaren ikasketen eragina oso handia dela; halaber, ikusten da eragina hori ahal dela ekiditu ikastetxetik, ereduak gaindituen kopurua ahal duelako handitu.

FAMILIA IKASKETAK	GAINDITUTA			
	K	%	K	%
Lehen edo oinarrizko ikasketak, bukatu gabe	2	10,2	6	39,0
Lehen edo oinarrizko ikasketak	20	20,9	89	47,6
Batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea	38	29,1	129	56,6
Unibertsitate titulua (diplomatura, lizentziatura)	46	37,1	205	66,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>106</b>	<b>28,6</b>	<b>429</b>	<b>58,8</b>

Hona hemen datu hauen grafikoa:

**EUSKARA PROBA, FAMILIA IKASKETAK ETA EREDUAK**



Familiaren ikasketei familia hizkuntza lotzean, ikusitako joerak baieztatzen dira, hots, gurasoen ikasketa maila altuetan emaitza hobekoak ematen dira, eta horretaz gain, etxean euskara hitz egiten dutenek emaitza hobekoak dituzte hitz egiten ez dutenen baino.


Koadroan honako emaitzak agertzen dira:

- Gaitutuen portzentaje altuena (%78,3) baldintza hauek betetzen ditu: ikasle horien gurasoek unibertsitatean ikasi dute eta etxean euskaraz hitz egiten dute.
- Gurasoen ikasketa maila berean, baina etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleek %48 lortzen dute proba gaitutzea.
- Emaitza apalenak honako baldintzak ditu: gurasoek oinarrizko ikasketa gabekoak dira eta etxean ez dute euskaraz hitz egiten, %18,3. Gurasoen ikasketa maila berarekin baina etxean hitz egiten dutenek, ordea, %51,1 lortu egin dute, batezbesteko orokorra baino altuagoa.
- Gainontzeko emaitzak gurasoen ikasketen maila eta familiaren hizkuntzaren arabera mugitzen dira, aipatutako joera jarraituz.

GAINDITUTA	K	%	K	%
<b>FAMILIA IKASKETAK</b>				
Lehen edo oinarrizko ikasketak, bukatu gabe	6	18,3	2	51,1
Lehen edo oinarrizko ikasketak	66	30,3	43	67,2
Batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea	115	40,3	51	71,2
Unibertsitate titulua (diplomatura, lizentziatura)	140	48,0	111	78,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>328</b>	<b>39,5</b>	<b>208</b>	<b>73,6</b>

Datuen grafikoa:

### EUSKARA PROBA, FAMILIA IKASKETAK ETA ETXE HIZKUNTZA



Datuek adierazten duenagatik, etxean euskara hitz egitearen aldagaia eraginkorragoa da gurasoen ikasketen aldagaia baino.

## 4.7. ALDAKORTASUNA AZALTZEN DITUEN ALDAGAIK EUSKARA PROBAN

Euskara probak, aldakortasunaren arabera aztertuta, desberdintasun garrantzitsu batzuk azaleratzen ditu. Ikasle guztien puntuazioa ereduka banatuta hautatu genuen azterketa egiteko garaian:

	Bariantza orokorra %	Ikasle guztien bariantza orokorra %	Ikastetxeen arteko desberdintasunen arteko bariantza %	Ikasleen arteko desberdintasunen bariantza %
<b>Ikasle guztiak</b>	202	100	30	70
<b>B eredua</b>	199	98	24	76
<b>D eredua</b>	161	80	17	83

Ikusten denez, amaitzen arteko aldakortasuna, kasu guztietan, askoz handiagoa da ikasleen arteko desberdintasunek sortua ikastetxeetan sortuarena baino. Erreferentziatzat hartu ahal da ELGA/OCDE<sup>17</sup>ren 2003ko PISA ebaluazioa: %30 aldakortasuna sortu zen ikastetxeen arteko desberdintasunengatik eta %70 ikasleen desberdintasunengatik; Euskal Herrian, ebaluazio berean, %15 eta %85 ageri zen hurrenez hurren.

Hots, ebaluazio ikerketa horretan, emaitzak desberdinak izango dira ikastetxeetan, horregatik ikasleen emaitzak aldatu egin dira aukeratzen duten ikastetxeen arabera. Bestalde, ikastetxeen eraginaren gainetik, ikaslearen ezaugarri berariazkoek eragina txit handiagoa dute ebaluazio horretan.

17) ELGA: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea.



Hala eta guztiz ere, bi datu azpimarragarriak dira:

- Alde batetik, hizkuntza ereduaren arteko aldakortasuna orokorraren desberdintasuna: B ereduko bariantza orokorra ikasle guztien bariantza bezalakoa da (%98); D ereduaren bariantza hori %20 txikiagoa da.
- Halaber, aldakortasun horren banaketak desberdintasunak ditu; D ereduaren esaterako, emaitzen aldakortasuna beste kasuetan baino neurri txikiagoan dago lotuta ikastetxeen arteko desberdintasunei.
- Aipatutako aspektuengatik, pentsatu ahal da euskararen ebaluazioan lortzen diren emaitzen aldakortasunak eragina handia jasotzen du hizkuntza ereduetatik. Hizkuntza ikasteari dagokionez, B ereduaren faktore zehatz batzuek ikastetxeak desberdin egiten dituzte (antolakuntza, planifikazioa, irakaskuntza...); D ereduaren desberdintasun horiek ez dira hain handiak.

Emaitzetan eragina duten aldagaiak horrela aztertu dira: lehendabizi banan-banan hartzen dira eta bakoitzaren balorea aurkezten da, ikasle guztien aldakortasuna azaltzeko.

ALDAGAIK	Ikastetxeen arteko bariantzaren murriztapena %	Ikastetxearen barneko murriztapenaren bariantza %	Bariantza orokorraren murriztapena %
ZHISEI (Ikastetxea)	18,4	0,0	5,6
ERREP (Ikastetxea)	19,2	0,0	5,
HERED (Ikastetxea)	44,9	0,0	13,7
FAMIHIZK (Ikasleak)	12,3	6,4	8,2

Emaitzen aldakortasuna hoberen azaltzen duten aldagaiak hauek dira:

- **ZHISEI**: familia bakoitzaren lanbide-maila altuaren puntuazio tipikoaren batezbestekoa.
- **ERREP**: ebaluatutako taldearen errepikatzaileen batezbestekoa.
- **HERED**: taldearen hizkuntza eredu.
- **FAMIHIZK**: euskararen ezagutza zein erabilpena ikaslearen familian.

Ikusi ahalenez, hizkuntza ereduak ikastetxeen arteko aldakortasunaren %45 baino ez dute azaltzen. Datu hori ados dago txostenaren zehar aurkeztu diren emaitza desberdinduekin.

Deigarria da familien maila sozio-ekonomikoaren aldagaia (ZHISEIri buruzko puntuazio tipikoak); aldagai horrek eragina handiagoa dauka ebaluatutako taldearen batezbestekoan, banan-banan ebaluatutako ikasleengan baino.


Ikasle errepikatzaileekin antzeko zerbait gertatzen da: aldakortasunerako adierazgarriagoa da taldeko batezbestekoa ikasle bakoitzarena baino. Dena den, agerienez, ikasle errepikatzaileen gaindituen indizea txikiagoa da errepikatzaileak ez diren ikasleengan baino. Horrelakorik ematen da ikasle talde batzuetan errepikatzaile asko daudelako eta beste batzuetan, ordea, oso gutxi (batezbestekoa joaten da 0tik —errepikatzailearik gabea— eta 0,5era —ikasleen %50 errepikatzaileak dira—).

Eredu orokorrean sartzen den banakako aldagaia familian euskara mintzatzearena da; beste zenbait banakako aldagai zuzen dabilta, baina eredu orokorrean sartzean desagertzen dira.

Hauexek dira eredu orokorraren datuak:

EREDUA	Ikastetxeen arteko murriztapenaren bariantza %	Ikastetxearen barneko murriztapenaren bariantza %	Baraintza orokorraren murriztapena %
ZHISEI ERREP HERED (Ikastetxea) FAMIHIZK	63,99	6,46	24,00


#### BAKARKA HARTUTAKO ALDAGAI BAKOITZAREN MURRIZTAPENAREN BARIANTZA %



Eredu orokorrean azaltzen den bariantzaren portzentajea txikiagoa da banakako murriztapenen batuketaren baino; baina, kontuan izan behar da aldakortasunaren %24 murriztapen handia dela, ikastetxe arteko %64 bariantza kontrolatzen duena bereziki.

Hurrengo taulan jasotzen da aldagai horien ekarpena ikasle bakoitzaren emaitzetan gauzatuta:

	KOEFIZIENTEAK	HEINA	ESANAHIA
INTERCEP	54,84		
FAMIHIZK (Ikasleak)	7,32	1	Euskara
HERED (Ikastetxea)	7,33	1	D eredu
ZHISEI (Ikastetxea)	4,06	(-0,94tik 1,11ra)	Ikastetxearen batezbestekoa
ERREP (Ikastetxea)	-14,68	(0tik 0,5era)	Bai



Grafikoan zein koadroan ikusten denez, eta espero izan diren emaitzak hartuta, honako eredu sortuko luke: B ereduko ikasle bat, errepikatzaile gabeko talde batean egonda, eta familiaren maila sozio-profesional zero (hau da, laginaren batezbestekoa). Halaber, haren etxean ez lukete euskarak hitz egingo. Ikasle horrek 54,8 puntu izango lituzke.

Egoera hori dela eta:

- Etxean euskara hitz egiten dutenen kasuan, emaitza hori 7,3 puntu altuago izango litzateke (62,1)
- Ikasle hori D ereduan egongo balitz, puntuazio hori 7,3 igoko litzateke (62,1).
  - Bere taldeko familien maila sozio-ekonomikoaren batezbestekoa aldatzen bada, puntuazioa 4,1 igo edo jaitsi egingo litzateke (hortaz, puntuazioa ahal da aldatu -3,85etik 4,56 puntu bitartean)
- Taldean errepikatzaileen kopuruaren arabera ere (errepikatzaileak ikasle guztien kopuruarekin zatituta), puntuazio jaitsi egingo du, 7,35 gehienez, ikastetxe batean errepikatzaileak ikasleen kopuruaren erdia izatekotan.

Faktore guzti hauek elkarrekin emango balira, ondorioak elkartuko lirateke, jakina, datuak beraien arteko lotuta kalkulatu direla eta :

- Hortaz, D ereduko taldean egonik eta etxean euskaraz hitz egiten ohi dutena, puntuazioa igoko litzateke 14,6 puntuak (7,3 + 7,3), eta puntuazio orokorra izango litzateke 69,7 puntukoa.



Hizkuntza trebetasunen emaitzak

**5**




Trebetasunetan ematen diren datuak ikasleek lortu duten batezbesteko puntuazioa dira; hau da, erantzundako itemen arteko ongi erantzundako itemen portzentajea. Gaizki erantzuntzat hartu ditugu erantzun ez diren itemak. Kontuan eduki behar da gainditze batezbesteko %60 zela.

Trebetasun guztien emaitzak (mintzamina salbu) ondoko taula eta grafikoan ikus daitezke:

	K	Gutxiengoa	Gehiengoa	Batezbestekoa	Desbiderapen tipikoa
ENTZUMENA	1.191	,00	100	<b>56,97</b>	14,7
IDAZMENA	1.191	,00	97,78	<b>58,04</b>	16,5
IRAKURMENA	1.191	,00	100	<b>56,67</b>	19,9
HIZKUNTZA EZAGUERA	1.191	,00	100	<b>61,64</b>	19,1
<b>Guztira</b>	1.191	10,97	93,47	<b>58,33</b>	14,15

### B2 EUSKARA PROBA TREBETASUNAK




## 5.1. ENTZUMENA

Entzumena trebetasunean lortutako emaitzak (56,97) batezbesteko puntuazio orokorrarekin (58,33) ia parekatuta daude, pixka bat apalagoak badira ere.

	K	BATEZBESTEKOA
Entzumena	1.191	56,97
Emaitza orokorra	1.191	58,33

Honako grafikoan, datuak biltzen ditugu:




### 5.1.1. ENTZUMENAREN EMAITZAK ETA IKASLEEN FAMILIA HIZKUNTZA

Familia hizkuntzaren araberako emaitzak aztertzen ditugunean, emaitza egokien batezbestekoa altuagoa da euskara familia hizkuntza bada (63,1). Emaita altuago horiek hizkuntza trebetasun guztietan agertzen dira. Mintzamenean, konkretuki, pixka bat altuagoa.

Esan dezakegu, euskara familia hizkuntza izateak eragina daukala emaitza egokiagoak lortzeko entzumena trebetasunean. Alde hori estatistikoki esanguratsua da.

	EUSKARARIK EZ BATEZBESTEKOA	EUSKARA BATEZBESTEKOA
Entzumena	54,9	63,1
Puntuazio orokorra	55,5	66,5

Honako grafikoan datuak biltzen ditugu:






### 5.1.2. ENTZUMENAREN EMAITZAK ETA HIZKUNTZA EREDUAK

Emaitzak hizkuntza ereduen arabera aztertzen ditugunean, D eredukoak altuagoak direla ikusten dugu. Hala ere, entzumena trebetasunean ez da %60 lortzen.

Honako taula eta grafikoan ikusten dugun bezala, D ereduan ikasteak eragina dauka emaitza altuagoak lortzeko entzumenean. Aldea estatistikoki esanguratsua da.

	B EREDUA BATEZBESTEKOA	D EREDUA BATEZBESTEKOA
Entzumena	52,3	59,3
Puntuazio orokorra	51,1	61,9

ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA EREDUAK




### 5.1.3. ENTZUMENAREN EMAITZAK ETA IKASLEEN SEXUA

Sexuaren arabera aztertuta, parekoak dira bildutako datuak. Nahiz eta euskara proban neskek puntuazio altuagoak lortu, entzumena trebetasunean ez dago alderik neska eta mutilen artean. Beraz, sexuak ez dauka eraginik entzumena trebetasunaren emaitzetan.

Agertzen den aldea ez da esanguratsua estatistikoki.

	NESKA BATEZBESTEKOA	MUTILA BATEZBESTEKOA
Entzumena	56,9	57,0
Puntuazio orokorra	60,1	56,6

## ENTZUMENA ETA SEXUAK




## 5.1.4. ENTZUMENAREN EMAITZAK ETA SAREAK

Euskara proban ikastetxe publikoetako ikasleek emaitza pixka bat altuagoak lortu dituzte. Hala ere, Entzumenean ez dago alderik sareen arabera. Agertzen den aldea ez da esanguratsua estatistikoki.


	PUBLIKOA BATEZBESTEKOA	HITZARTUA BATEZBESTEKOA
Entzumena	57,3	56,7
Puntuazio orokorra	59,8	57,1

## ENTZUMENA ETA SAREAK



Beheko grafikoan entzumenaren trebetasuna eta lau aldagaiak aurkezten ditugu. D ereduko ikasleek eta familia hizkuntza euskara daukatenek puntuazio altuagoa atera dute trebetasun horretan.

## EUSKARA PROBA. ENTZUMENA




## 5.2. IRAKURMENA

Trebetasun horretan lortutako emaitzak (56,67) batezbesteko orokorraren azpitik daude. Trebetasun guztiak kontuan izanda, Irakurmenean lortutako emaitzak baxuenak dira, ia bi puntu gutxiagokoa puntuazio orokorrarekin konparatuta.

	K	BATEZBESTEKOA
<b>Irakurmena</b>	1.191	56,67
<b>Puntuazio orokorra</b>	1.191	58,33

Honako grafikoan, datuak biltzen ditugu:

## IRAKURMENAREN EMAITZA




### 5.2.1. IRAKURMENAREN EMAITZAK ETA FAMILIA HIZKUNTZA

Euskara denean familia hizkuntza emaitza altuagoak lortzen dira. Honako taula eta grafikoan erantzun egokien batezbestekoak jarri ditugu eta, ikusten denez, ia sei puntuko aldea dago familia hizkuntzaren arabera.

Esan dezakegu familian euskaraz egiteko aukera izateak laguntzen duela emaitza hobetoak lortzeko irakurmena trebetasunean, gainontzeko trebetasunetan gertatzen den bezala. Alde hori estatistikoki esanguratsua da.

	EUSKARARIK EZ BATEZBESTEKOA	EUSKARA BATEZBESTEKOA
<b>Irakurmena</b>	55,1	61,1
<b>Puntuazio orokorra</b>	55,5	66,5




### 5.2.2. IRAKURMENAREN EMAITZAK ETA HIZKUNTZA EREDUAK

Irakurmenean, zortzi puntuko aldea dago datuak ereduaren arabera aztertzen ditugunean. D ereduko ikasleek emaitza altuagoak lortu dituzte, gainontzeko trebetasunetan gertatu den bezala. Alde hori estatistikoki esanguratsua da.

	B EREDUA BATEZBESTEKOA	D EREDUA BATEZBESTEKOA
<b>Irakurmena</b>	51,5	59,3
<b>Puntuazio orokorra</b>	51,1	61,9

## IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA EREDUAK




## 5.2.3. IRAKURMENAREN EMAITZAK ETA SEXUAK

Irakurmena trebetasunean, emaitza altuagoak izan dituzte neskek. Halako emaitzak ohikoak dira hizkuntza ebaluazioetan eta, proba honetan ikusten den bezala, lau puntuko aldea mantentzen da bai puntuazio orokorretan bai irakurmenean. Alde hori estatistikoki esanguratsua da.

	NESKA BATEZBESTEKOA	MUTILA BATEZBESTEKOA
Irakurmena	58,5	54,8
Puntuazio orokorra	60,1	56,6

## IRAKURMENA ETA SEXUAK




### 5.2.4. IRAKURMENAREN EMAITZAK ETA SAREAK

Trebetasun guztietako batezbestekoan gertatzen den bezala, bi puntuko aldea dago datuak sareka aztertzen ditugunean.

Aldea ez da estatistikoki esanguratsua, nahiz eta bi puntu altuagoak izan ikastetxe publikoen emaitzak proba honetan.


	PUBLIKOA BATEZBESTEKOA	HITZARTUA BATEZBESTEKOA
Irakurmena	57,8	55,7
Puntuazio orokorra	59,8	57,1

#### IRAKURMENA ETA SAREAK



Hurrengo grafikoan irakurmenaren trebetasuna eta lau aldagaiak aurkezten ditugu. D ereduko ikasleek, familia hizkuntza euskara daukatenek eta neskek puntuazio altuagoa atera dute trebetasun honetan.

#### EUSKARA PROBA. IRAKURMENA




### 5.3. IDAZMENA

Idazmena trebetasunean ateratako puntuazioak puntuazio orokorrarekin antza handia du: idazmenarena 58,04koa da eta orokorra 58,33koa. Ondoko koadroan ikusten den legez, ikasle guztiek egin dute trebetasun honen proba.

	K	BATEZBESTEKOA
<b>Idazmena</b>	1.191	58,04
<b>Puntuazio orokorra</b>	1.191	58,33

Horrela ahal da ikusi grafikoan:



Idazmenaren kasuan lortutako puntuazioa %60rekin ez dago alde nabarmenik.


#### 5.3.1. FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERA

Ikasleen familia hizkuntza ikusita, ikusten dugu euskara etxean hitz egiten ez dutenek 55,6 lortu dutela; aldiz, euskaraz hitz egiten dutenek 65 lortu dute. Alde hori esanguratsua da.

	EUSKARARIK EZ BATEZBESTEKOA	EUSKARA BATEZBESTEKOA
<b>Idazmena</b>	55,6	65
<b>Puntuazio orokorra</b>	55,5	66,5

Datu horiek hurrengo grafikoan ikus daitezke:

## EUSKARA PROBA. IDAZMENA ETA FAMILIA HIZKUNTZA



Hizkuntza ezagutza kenduta, trebetasun horretan ematen dira emaitza hoberenak. Trebetasun guztietan oso alde handia dago euskaraz etxean hitz egiten eta hitz egiten ez dutenen arteko emaitzetan, aldea oso nabaria da; idazmenaren kasuan, aldea %10,6koa da. Trebetasun horretan ere baieztatzen da aldagai horren eragina.


## 5.3.2. HIZKUNTZA EREDUA

Koadroan agertzen da ereduaren arabera idazmenaren batezbesteko puntuazioa: B ereduari 51,2 eta D ereduari 61,5. Alde hori esanguratsua da.

	B EREDUA BATEZBESTEKOA	D EREDUA BATEZBESTEKOA
Idazmena	51,2	61,5
Puntuazio orokorra	51,1	61,9

Hona hemen grafikoa:

## EUSKARA PROBA. IDAZMENA ETA HIZKUNTZA EREDUAK






Trebetasun guztietan gaitzen kopurua altuagoa da D ereduaren B ereduaren baino; horrela, alde aurretik ikusitako aldagai horren eragina indarrez mantentzen da. Idazmenaren kasuan, aldea % 10,3koa da.

### 5.3.3. IKASLEEN SEXUA

Neskek puntuazio altuagoa lortu dute mutilek baino. Idazmena kasuan, 61,5 neskek gaitzen dute eta 54,6 mutilek.

	NESKAK BATEZBESTEKOA	MUTILAK BATEZBESTEKOA
Idazmena	61,5	54,6
Guztira	60,1	56,6

Hona hemen datuei dagokien grafikoa:



Idazmenean –puntuazio orokorrean legez-, nesken eta mutilen arteko aldea % 7,9 da. Alde hori esanguratsua da.


### 5.3.4. IKASTETXEEN SAREAK

Sare publikoan, idazmenari begira dituzten emaitza %59,5koa da, puntuazio orokorrarekin oso antzekoa; sare hitzartuan, ordea, emaitza %56,8koa da, puntuazio orokorra eta publikokoa baino apalagoa.

	PUBLIKOAK BATEZBESTEKOA	HITZARTUA BATEZBESTEKOA
Idazmena	59,5	56,8
Puntuazio orokorra	59,8	57,1

Datu horien grafikoa, honakoa da:

### TREBETASUNAK. IDAZMENA ETA IKASTETXEEN SAREA



Bi sareen arteko aldea esanguratsua da; hau da, sare publikoak idazmenak trebetasunean emaitza esanguratsuki hobea lortu egin du.

## 5.4. HIZKUNTZA EZAGUTZA


Esparru horretan hizkuntzaren ezagutza orokorra aztertzen dugu. Arloa bi zatitan dago banatuta: alde batetik, egitura morfo-sintaktikoa (gramatika, sintaxia eta ortografia), zati hau aukera anitzeko galderak zein berridazketak jardueren bitartez ebaluatu dira. Beste alde batetik, hiztegia (lexikoa, esamoldeak...) ebaluatzen da anitzeko galderen bidez.

Hizkuntza ezagutzaren trebetasun horretan batezbesteko puntuazioa 61,64 izan da, probaren puntuazio orokorra baino altuagoa.

	K	Batezbestekoa
Hizkuntza ezagutza	1.191	61,64
Puntuazio orokorra	1.191	58,33

Hurrengo grafikoan ikus daitezke datu horiek.

## EUSKARA PROBA. HIZKUNTZA EZAGUTZA




## 5.4.1. FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERA

Familia hizkuntzaren arabera etxean euskara erabiltzen dutenek euskara erabiltzen ez dutenek baino puntuazio altuagoa atera dute. Beraien arteko aldea (20,4 puntu) esanguratsua da estatistikoki. Hizkuntza ezagutzaren kasuan esandako bi talderen arteko aldea proba orokorrean ematen den aldea (11 puntu) baino handiagoa da.

	EUSKARARIK EZ BATEZBESTEKOA	EUSKARABATEZBESTEKOA
Hizkuntza ezagutza	56,4	76,8
Puntuazio orokorra	55,5	66,5

Ondoko grafikoan datu horiek adierazi ditugu:

## EUSKARA PROBA. HIZKUNTZA EZAGUTZA ETA FAMILIA HIZKUNTZA




### 5.4.2. HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA

Trebetasun horretan B eredukoek 49,4 puntuazioa izan dute eta D eredukoek 67,8. Hizkuntza ereduari dagokionez B eta D ereduaren arteko diferentzia nabaria da (18,4); estatistikoki esanguratsua familia hizkuntzaren kasuan gertatzen den bezala. Aldagaia horretan ere hizkuntza ezagutzaren aldea proba orokorraren aldea (10,8) baino handiagoa da.

	B EREDUA BATEZBESTEKOA	D EREDUA BATEZBESTEKOA
Hizkuntza ezagutza	49,4	67,8
Puntuazio orokorra	51,1	61,9

#### EUSKARA PROBA. HIZKUNTZA EZAGUTZA EREDUKA




### 5.4.3. IKASLEEN SEXUAREAN ARABERA

Neskek mutilek baino puntuazio altuagoa lortu dute. 3,3 puntu gehiago, hain zuzen ere. Aldea esanguratsua da. Trebetasun horren aldea eta proba orokorraren aldea berdintsua da: 3,3 eta 3,5.

	NESKA BATAZ BESTEKOA	MUTILA BATEZ BESTEKOA
Hizkuntza ezagutza	63,3	60,0
Puntuazio orokorra	60,1	56,6

Horrela ahal da ikusi ondoko grafikoan:

## EUSKARA PROBA. HIZKUNTZA EZAGUTZA ETA SEXUA




## 5.4.4. IKASTETXE SAREEN ARABERA

Sarearen arabera ikastetxe publikoek hitzartuek baino puntuazio altuagoa atera dute. Beraien arteko aldea (4,7) esan-guratsua da estatistikoki. Hizkuntza ezagutzaren aldea proba orokorraren aldea (2,7) baino handiagoa da.

	PUBLIKOA BATAZ BESTEKOA	HITZARTUA BATEZ BESTEKOA
Hizkuntza ezagutza	64,5	59,2
Puntuazio orokorra	59,8	57,1


Datu horien irudikapen grafikoa hurrengoan dugu:

## EUSKARA PROBA. HIZKUNTZA EZAGUTZA ETA SAREA



Beheko grafikoan hizkuntza ezagutzaren trebetasuna eta lau aldagaiak ikusten dira elkarrekin. Hizkuntza ereduak, familia hizkuntza, sexua eta sarea. D ereduok, etxean euskara erabiltzen dutenek, neskek eta ikastetxe publikoetan daudenek puntuazio altuagoa atera dute trebetasun horretan.

## EUSKARA PROBA. HIZKUNTZA EZAGUTZA



Mintzamenarekin probaren emaitzak

6





Aurreko atalean ikusi dugu mintzamenarekin batera probaren emaitza orokorra: %53,7k gainditu dute, laginaren erdia baino gehiago, hain zuzen ere.

Puntu honetan, gainontzeko aldagaiak kontuan izandako emaitzak aztertuko dira:

- Familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Hizkuntza eredu eta familia hizkuntzaren arabeko emaitzak.
- Ikastetxeetako sarearen arabeko emaitzak.
- Ikastetxeetako sareak eta familia hizkuntza.
- Ikasleen sexuaren arabeko emaitzak.
- Ikasleen sexua eta familia hizkuntza.

## 6.1. EUSKARA PROBA MINTZAMENAREKIN EMAITZAK

Proba mintzamenarekin egin dutenek %53,7 ikaslek gainditu dute (ikusi 2.2. atalean)


## 6.2. FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Etxean euskaraz hitz egiten ez dutenen gaindituak %46,9 dira; euskara dakieten gaindituen kopurua, ordea, %77,2.

FAMILIA HIZKUNTZA MINTZAMENAREKIN	GAINDITUTA	
	K	%
Euskararik ez	81	46,9
Euskara	39	77,2
<b>Guztira</b>	<b>120</b>	<b>53,7</b>

Hona hemen datu horien grafikoa:

**EUSKARA PROBA. MINTZAMENAREKIN: FAMILIA HIZKUNTZA**



Koadro eta grafikoan agertzen den legez, emaitzak altuenak euskara aukerakoak dira; alde handia dago horren eta beste aukeren artean. Emaitza apalena etxean euskara mintzatzen ez direnena da.

### 6.3. HIZKUNTZA EREDU ETA FAMILIA HIZKUNTZAREN ARABERAKO EMAITZAK

Ikus daiteke, txosnen honen 2. atalean eredu bakoitzari dagokion emaitza orokorra eman dugu: B ereduko ikasleen %32,6k gainditu dute eta D ereduaren kasuan ikasleen %68k. Bi ereduaren arteko aldea esanguratsua da, noski.


Orain, eragina handien duten bi faktoreak elkartuko ditugu: familia hizkuntza eta hizkuntza ereduak. Horrela egiten badugu, ondoko emaitzak topatzen ditugu: etxean euskaraz mintzatzen ez direnen %32,9k gainditu dute B ereduaren eta D ereduaren %61,2k.

Euskaraz etxean hitz egiten dutenek: B ereduaren gaituak %25 baino ez dira, baina kontuan hartu behar da lagina oso txikia dela (ikasle 1), eta D ereduaren %80,2.

FAMILIA HIZKUNTZA	GAINDITUTA			
	B eredua		D eredua	
	K	%	K	%
<b>Euskararik ez</b>	29	32,9	52	61,2
<b>Euskara</b>	1	25	38	80,2
<b>Guztira</b>	<b>30</b>	<b>32,6</b>	<b>91</b>	<b>68</b>

Grafikoan datuak horrela ahal dira ikusi:

**EUSKARA PROBA. MINTZAMENAREKIN: FAMILIA HIZKUNTZA ETA EREDUAK**



Oro har, D eredukoek emaitza hobetoak dituzte, eta aldea oso nabarmena da. Emaitza orokorretan, mintzamenik gabe, ere halakorik gertatu izan da (ikusi 3.4. atala)


## 6.4. IKASTETXEETAKO SAREAREN ARABERAKO EMAITZAK

Sare publikoetako ikasleen gaindituak %59,8 izan da; sare hitzartuan, ordea, %47,5.

SAREA	K	%
Hitzartua	53	47,5
Publikoa	67	59,8
<b>Guztira</b>	<b>120</b>	<b>53,7</b>

Horrela ahal dira ikusi proba gainditu duten datu hauek grafikoan:

### EUSKARA PROBA. MINTZAMENAREKIN ETA IKASTETXEEN SAREA



Bi saren arteko aldea 12,3 puntukoa da, desberdintasuna handia da hain zuzen ere.

### 6.4.1. IKASTETXEEN SAREAK ETA FAMILIA HIZKUNTZA


Elkartuta ikastetxeen sarea eta eragina handia duen familia hizkuntzaren aldagaia, horrelako emaitzak ahal ditugu topatu: familia ez euskaldunen ikastetxe publikoenek %47,3k gainditzen dute; ikastetxe hitzartuenek, ordea, %46,3.

Euskaraz hitz egiten dutenen kasuan, sare publikoan %82,8k gainditzen dute eta hitzartuan %58k.

FAMILIA HIZKUNTZA	GAINDITUTA			
	Publikoa		Hitzartua	
	K	%	K	%
Euskararik ez	35	47,6	46	46,3
Euskara	32	82,8	7	58
<b>Guztira</b>	<b>67</b>	<b>59,8</b>	<b>53</b>	<b>47,5</b>

Datuen grafikoa:

## EUSKARA PROBA. MINTZAMENAREKIN: FAMILIA HIZKUNTZA ETA SAREAK



Oro har, mintzamina proban ikastetxe publikoen emaitzak hobegoak dira hitzartuenak baino.


## 6.5. IKASLEEN SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK

Mintzamenarekin batera egin dutenek euskara proba gainditu dute, alde batetik mutilek %46,7 eta bestetik neskek %60,9.

SEXUA	%	K
Mutila	46,7	53
Neska	60,9	67
<b>Guztira</b>	<b>53,7</b>	<b>120</b>

Horrela ageri dira grafikoan:

## EUSKARA PROBA MINTZAMENAREKIN ETA IKASLEEN SEXUA



Emaitza orokorretan (mintzamenik gabe) agertzen den legez, nesken emaitzak mutilenak baino esanguratsuki altuagoak dira (Ikusi 3.6. atala).

### 6.5.1. IKASLEEN SEXUA ETA FAMILIA HIZKUNTZA


Elkartzen baditugu ikasleen sexuaren araberako datuak haien familia hizkuntzarekin horrelako datuak lortzen ditugu:

- Euskaraz etxean hitz egiten ez duten neskek %53,4 gainditu dute. Mutilek ordea, %40,4.
- Euskaraz aritzen diren kasuan, %88,4 neskek eta mutilek %67,2.

FAMILIA HIZKUNTZA	GAINDITUTA			
	Neska		Mutila	
	K	%	K	%
<b>Euskara barik</b>	46	53,4	35	40,4
<b>Euskara</b>	21	88,4	18	67,2
<b>Guztira</b>	<b>67</b>	<b>60,9</b>	<b>53</b>	<b>46,7</b>

Datuek horrelako grafikoa ematen dute:

#### EUSKARA PROBA MINTZAMENAREKIN: FAMILIA HIZKUNTZA ETA IKASLEEN SEXUA



Nesken eta mutilen arteko aldeak oso nabariak dira arlo guztietan. Hala ere, alde esanguratsua ematen da euskaraz etxean hitz egiten ez duten mutilen eta etxean hitz egiten duten nesken artean; hori ematen da gainontzeko kasuetan lagina oso urria delako. Lagina orokorrean (mintzamenik gabe) eginda, desberdintasunak esanguratsuak aterako lirateke, aldea oso handia baita nesken eta mutilen artean.



Hizkuntzekiko ikasleen jarrerak

7






Ikasleek galdera batzuen bidez hizkuntzekiko jarrera adierazi zuten. Euskararekiko, elebitasunarekiko (euskara eta gaztelania), eta beste hizkuntzekiko jarrera, batez ere atzerritarren hizkuntzarekiko jarrera.

Euskararekiko jarrera adierazteko galdera batzuen artean ondoko bi horiek oso korrelazio altua eman zuten. B eremuan 0, 630 eta D eremuan 0,574.

Galderak izan ziren:

- *Atsegin al duzu euskara hizkuntza oro har?*  
*asko – nahikoa – gutxi – batere ez*
- *Garrantzitsua iruditzen al zaizu euskaraz hitz egitea?*  
*asko – nahikoa – gutxi – batere ez*

Adierazle horrekin euskararekiko jarrera neurtu dugu. Beheko grafikoan jarreraren graduazioa ikusi ahal da. Bi galdera izan direnez, ikasleek erantzun desberdinak eman dituzte; horregatik *asko* adierazten duenean esan nahi du bi galdereri *asko* erantzun dietela eta *asko/nahikoa*, *nahikoa/gutxi*... ikusten dugunean erantzun desberdinak eman dituztela.



Esan dezagun orokorrean 4. DBHko ikasleek euskararekiko oso jarrera ona dutela, grafikoan ikusten den bezala. Ikasleek bi galdereri *asko* erantzun dietenak % 52,6 dira; hau da, euskara hizkuntza asko atsegin dutenak eta euskaraz hitz egiteari garrantzi handia ematen diotenak ikasleen erdia da. Galdera bati edo besteari *asko* eta *nahikoa* erantzun dutenak %19,7 dira. Bi galdereri *nahikoa* erantzun zutenak %15,2 dira. *Nahikoa* eta *gutxi* erantzun zutenak %6,3 dira. Jarrera positiboa (*nahikoa*, *asko*) erantzun dutenak %87,5ak izan dira.


Beste aldetik euskara hizkuntza *gutxi* edo *batere ez* atsegin dutenak eta euskaraz hitz egiteari garrantzi txikia edo *batere ez* ematen diotenak ikasle kopuru txikia da, (%3,1; %1,2; %0,7) guztira %5.

## 7.1. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA PROBA GAINDITZEA

Euskararekiko jarrera ona duten ikasleen %59,2k gainditu dute euskara proba. Jarrera *nahikoa* edo *nahikoa eta asko* dutenen %37,8k eta %39,9k gainditu dute. Jarrera gutxi adierazi zuten %32,5ek gainditu zuten eta *gutxi* eta *nahikoa* %18,2k.

Euskararekiko jarrera ona dutenek besteok baino kopuru handiagoan gainditzen dute euskara proba.

EUSKARAREKIKO JARRERA ETA GAINDITUAK



## 7.2. ELEBITASUNAREKIKO (EUSKARA ETA GAZTELANIA) JARRERAK


Elebitasunarekiko (euskara eta gaztelania) jarrera neurtzeko galdera batzuk egin genituen. Euskararekiko jarreraren gertatzen zen moduan, bi galdera ere izan dira korrelazio altua eman dutenak. Bi galdera horiek hauexek ziren:

- *Inportantea da bai gaztelaniaz bai euskaraz ikastea.*  
*gutziz ados nago – ados nago – ez nago ados – ez nago bat ere ados*
- *Bi hizkuntzak elkarrekin bizi daitezke Euskal Herrian.*  
*gutziz ados nago – ados nago – ez nago ados – ez nago bat ere ados*

Bi galdera horien arteko korrelazioa altua da: B eremuan 0,825 eta D eremuan 0,727


Adierazle horrekin elebitasunarekiko jarrera neurtu dugu.

## ELEBITASUNAREN JARRERA



Esan dezagun orokorrean 4. DBHko ikasleek elebitasunarekiko jarrera ona dutela grafikoan ikusten den bezala. Ikasleek bi galderei *guztiz ados eta ados nago* erantzun dietenak %79,9 dira. Hau da, *guztiz ados* eta *ados* daudenak honakoa pentsatzen dute: gaztelaniaz zein euskaraz ikastea inportantea da eta, halaber, Euskal Herrian bi hizkuntzak elkarrekin bizi daitezke. Horrela uste dutenak ikasleen hiru laurdenak baino gehiago dira. Galdera bati edo besteari *ados* eta *desadostasuna* adierazi dietenak % 11,6 dira. Bi galderekin *desadostasuna* eman dutenak %3,3 da. *Guztiz desadostasuna* adierazi dutenak %1,9 da.

## ELEBITASUNAREKIKO JARRERA



Aurreko grafikoan<sup>18</sup> elebitasunarekiko jarrera esparru desberdinetan ikusten da. Etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleek elebitasunarekiko jarrera hobea dute euskaraz hitz egiten dutenek baino. Alde hori estatistikoki esanguratsua da.

B ereduan dauden ikasleek D ereduan daudenek baino jarrera hobea dute. Alde hori ere esanguratsua da estatistikoki.

Beste esparruei begira esan dezakegu neska eta mutilen arteko desberdintasuna ez dela esanguratsua; ezta ikastetxe publiko eta hitzartuen artekoa ere.


18) Grafikoa ondo ulertzeko kontuan hartu behar da puntuazioarik altuena 7 dela, *guztiz ados nago* erantzunari dagokiona.

### 7.3. BESTE HIZKUNTZEKIKO JARRERAK

Beste hizkuntzekiko jarrerak neurtu nahi genituen. Beste hizkuntzak aipatzen ditugunean atzerriko hizkuntzak esan nahi ditugu; beraz, esamolde hori ez dagokie euskarari eta gaztelaniari. Jarrera hori neurtzeko galdera batzuk egin genituen. Egindako galderen artean bi izan ziren korrelazio altua eman dutenak. Bi galdera horiek hauexek izan ziren:

- *Gustuko dut bi hizkuntza baino gehiago ikastea.*  
*gutziz ados nago – ados nago – ez nago ados – ez nago bat ere ados*
- *Euskaraz eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza bat gehiago ikastea garrantzitsua da.*  
*gutziz ados nago – ados nago – ez nago ados – ez nago bat ere ados*


#### BESTE HIZKUNTZEKIKO JARRERA



4. DBHko ikasleek, beste hizkuntzekiko jarrera ona dute aurreko grafikoan ikusten den bezala. Bi galdereri *gutziz ados* eta *ados nago* erantzun dieten ikasleak %79 dira. Hau da, ikasle gehienek gustuko dute bi hizkuntza baino gehiago ikastea eta garrantzitsua iruditzen zaie, euskaraz eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza bat gehiago ikastea.

Galdera bati edo besteari *ados* eta *desadostasuna* adierazi dietenak %10,8 dira. Bi galderekin *desadostasuna* eman dutenak 4,5 dira. *Gutziz desadostasuna* adierazi dutenak %2,1 dira.

## BESTE HIZKUNTZEKIKO JARRERA



Aurreko grafikoan beste hizkuntzekiko jarrera esparru desberdinetan ikusten da.

Mutilen eta nesken arteko aldea estatistikoki esanguratsua da, beste guztiak ez dira esanguratsuak edo berdintsuak dira. Hau da *familia hizkuntza euskara* edo *gaztelania* duten ikasleen arteko aldea ez da esanguratsua, ezta ere D ereduakoen eta B ereduakoen artekoa. Azken esparrua, sareari dagokiona, haien arteko aldea berdintsua da.



# Laburbilduz **8**






## A) EMAITZA OROKORRAK

- **Ikasleen emaitzak:** Euskara proba gainditzeko ikasleek probaren jarduera guztietatik %60 gainditu behar dute. **Hori dela eta, euskara proba gainditu duten ikasleak % 47,3 dira. Bestalde, gainditu ez dutenak %52,7 dira.**
- **Mintzamenarekin egindako probaren emaitzak:** Mintzamenaren proba azpi-lagin batek egin zuen. Azpi-lagin hori 243 ikasleek osatu zuten; horiek irakurmena, idazmena, entzumena, hizkuntza ezagutza eta mintzamenaren trebetasunak egin zituzten. Ikasle horien artean, %53,7k proba mintzamenarekin gainditu dute eta, aldiz, ikasle-en %46,3k ez dute gainditu.
- **B ereduan Mintzamenarekin 32,6 batek gainditzen du eta D-n berriz %68 batek. Hauek lirateke beraz, egoera normal batean lortu litezkeen ehunekoak.**
- Mintzamenik gabe Euskara proba gainditu dutenen artean hainbat datu ikus dezakegu:
  - Familia hizkuntza kontuan izanik, etxean euskaraz ama eta/edo aitarekin hitz egiten dutenen ikasleen %72,6 dira B2 maila gainditzen dutenak. Etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleak, ordea, %38,6. Oso alde zabala da, 34 puntukoa hain zuzen ere.
  - Hizkuntza ereduei dagokionez, D ereduko ikasleen %57,2k gainditu dute, eta B ereduko % 27,5ek. Ereduen arteko aldea nabaria da: %29,7.
  - Ikasleen sexuaren arabera, emaitza desberdinak agertu dira: Nesken %52,9k gainditu dute eta mutilen %41,7k. Beraien arteko aldea oso handia (11,2) eta esanguratsua da.
  - Hizkuntza eremuari dagokionez, jatorrizko euskaldunentzat berdin da zein eremutakoak diren, kopuru bertsuan gainditzen baitute. Erdaldunentzat berriz, erabakigarria da muturretan egotea, eremu erdaldunean %34k gainditzen du edo oso euskaldunean %72ak gainditzen du. Erdiko bietan ehuneko 47aren inguruan.
  - Hezkuntza sarearen arabera, sare publikoan ikasten duten ikasleen %51,7k gainditu dute, eta sare hitzartuan, %43,6k. Sareen arteko distantzia handia eta esanguratsua da, %8,1.
  - Familien ikasketa altuenen arabera, zenbat eta familien ikasketa altuagoa izan, hainbat eta ikasle gaindituen kopurua handiagoa da. Horrela, unibertsitateara joan diren gurasoen ikasleen gaindituak %57,8 izan dira eta, aldiz, oinarrizko ikasketak egin edo oinarrizko ikasketak bete ez dituzten gurasoen ikasleen artean %38,7k eta %22k gainditu dute, hurrenez hurren.

### EMAITZA OROKORRAK (MINTZAMENIK GABE) GAINDITU DUTEN IKASLEAK



## B) B EREDUA


- B ereduko ikasle gaituen kopuru orokorra %27,5 izan da Mintzamina probarik gabe. **B ereduan Mintzamenarekin 32,6 batek gaititzen du.**
- Familia hizkuntzaren aldagaiaren eraginez, emaitzak hauexek izan dira: gurasoekin euskaraz hitz egiten ez dutenek, ez dute aldaketa handirik izaten emaitza orokorrarekin alderatzen bada: %26,6. Etxean euskaraz hitz egiten dutenek, ordea, emaitza altuagoa lortu dute: %47,5. Aldagai horrek, beraz, eragina du gaituen kopuruan, batez ere aipatutako azken kasu horretan, euskaraz aritzen direnean.
- Puntuazioaren sakabanatzeak kurba normala erakusten du: B ereduko ikasle gehienak 50-60 puntuazioan kokatzen dira: %25,6. Jarraitzen dion puntuazioa 40-50ekoa da: %24,2. Bi puntuazio horien ondoren, 30-40koa dugu: %18,1 eta, azkenik 70-80 lortu dutenenak: %16,9.
- *Sexuaren arabera:* Bai neskek bai mutilek emaitza apalak lortu dituzte B ereduan, eta, ohikoa ez bada ere, ez dago haien arteko desberdintasun esanguratsurik lortutako emaitzetan, horiek oso antzekoak direla eta (neskek %27,37 eta mutilek %27,67)
- *Ikasle errepikatzaileak:* %38 errepikatzaileak dira eta haietariko gehienek, %94k, ez dute proba gaitu eta bakarrik %6k gaitu dute.
- *Hizkuntza eremuan arabera:* Euskaldunen kopurua %63 baino baxuagoa diren udalerrietan kontzentratzen dira ikasle gehienak (%88). Hortaz, zonalde euskaldunenetan B ereduko ikasleen %12 baino ez dago. B ereduko datuak homogeenagoak dira zehaztutako hiru hizkuntza eremuetan eta ez da alde nabarmenik ematen.
- *Familien giza-ekonomi eta lanbide maila (ZHISEI indizea):* Proba gaitu duten B ereduko ikasleen familien lanbide maila altua dela adierazten du ZHISEI indizeak, 0,23. Aztertutako laginean, indize hori altuagoa da B ereduan D ereduan baino, 0,15. B ereduko gaitu ez dutenen lanbide maila 0 azpitik dago, -0,2 konkretuki.
- *Familien ikasketa altuenen arabera:* unibertsitate ikasketak egin dituzten familien kasuan, eredu horretan ikasleen %37,1k gaitu dute; aldiz, ikasketa gabeko familien kasuan, bakarrik %10,2k gaitu dute euskara proba.

## C) D EREDUA

- D ereduko ikasleen emaitza orokorra %57,2koa izan da proba idatzietan. **Mintzamenarekin berriz %68 batek.** Kontuan hartu behar da hainbat euskaldun dituela eredu honek.
- *Familia hizkuntzaren aldagaiak* aldaketa handiak eragiten ditu emaitza orokorretan: etxean euskaraz hitz egiten dutenen ikasle gaituak %74,1 dira; hortaz, neurri zabalez gaitzen dute batezbesteko orokorra; bestalde, euskaraz etxean berba egiten ez dutenen ikasleen emaitza %47,6 da, batezbesteko orokorra ia kopuru bera. Bi talde horien arteko aldea nabaria da, %26,5ekoa, hain zuzen ere. Aldagaia, B ereduaren kasuan antzera, eragina handikoa da.
- Emaitza hobereak lortzen dituzten ikasleek honako baldintzak dituzte: D eredukoak izatea eta etxean gurasoekin euskaraz hitz egitea, %74,1 kopuru horrek erakusten duen legez.
- *Puntuazioaren sakabanaketan,* D ereduan ikasle gehienak 60-70 puntuazioan kokatzen dira: %29,1; kopuru handia metatzen bada ere 50-60 puntuazioan: %25,6. Bi puntuazio horiei jarraitzen diena 80-90 puntuazioarena da: %21,8. Puntuazio horiek ere kurba normala osatzen dute, B eredukoek eratzen dutena baino puntuazio altuenerantz betiere.
- *Sexuaren arabera:* Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak estatistikoki esanguratsuak dira D ereduan. Emaitzak neurtuta, nesken %54,76k lortu dute eta mutilen %48,69.

- *Ikasle errepikatzaileak*: haietariko bakarrik %22,3k gainditu dute proba. Lagin horretako gehienak, %62, D ereduak dira eta haietariko %32,2k gainditu dute proba. Hala ere, D ereduko ikasle errepikatzaile talde handi batek, %67,8, ez du proba gainditu.
- *Hizkuntza eremuen arabera: Jatorrizko euskaldunen* Datuak aztertuta, hainbat eta udalerrri euskaldunagoa, orduan eta D eredu indartsuagoa dela ikus daiteke. Horrela, %63 baino euskaldun gehiago dauden tokietan euskara proba gainditu duten D ereduko ikasleak %44,4ra iristen dira. D ereduko datuek adierazten dute alde nabarmena izan dela ikasleen hizkuntza eremuen arabera. Hortaz, euskaldunen eta ia-euskaldunen kopurua %50 baino handiagoa den eremuetan bizi diren ikasleak kontuan izanda, ia %64k baino gehiago gainditu dute euskara proba. Aldiz, euskaldunen kopurua erdia baino baxuagoa den eremuko %41ek gainditu dute eta beste ikasleengandik 13 puntura geratzen dira.
- *Familien giza-ekonomi eta lanbide maila (ZHISEI indizea)*: Proba gainditu duten D ereduko ikasleen familien lanbide maila altua da, 0,15. Horrela adierazten du ZHISEI indizeak, nahiz eta laginaren B ereduko indizea altuagoa izan, 0,23. D ereduko proba gainditu ez duten ikasleen maila baxua da, 0,1, nahiz eta B ereduko bezain baxua ez izan, 0,2.
- *Familien ikasketa altuenen arabera*: Unibertsitate ikasketak egin dituzten familien kasuan, eredu horretako ikasleen %66,3k gainditu dute; aldiz, ikasketa gabeko familien kasuan, bakarrik %39k gainditu dute proba hau.

#### EMAITZA OROKORRAK. B ETA D EREDUETAN GAINDITUAK



## D) BESTE ZENBAIT ONDORIO


### • Ikasleen jarrerak eta ikasteko nahia

- Ikasleek Unibertsitateko ikasketak egiteko nahia edo asmoa baldin badute euskara proba gehiago gainditzen dute beste beheko ikasketak egiteko asmoa adierazi dutenean baino. Desberdintasun handia ikusten da Unibertsitatera joan nahi dutenen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egin nahi dutenen artean. Gainditu dute %59,9k eta %2,6k, hurrenez hurren.
- Lagineko ikasleek, orokorrean, hizkuntzekiko oso jarrera ona dute. Euskararekiko jarrera ona %87,5ek adierazi dute, elebitasunarekiko jarrera (euskara eta gaztelania) ona %79,9k eta beste hizkuntzekiko jarrera ona % 79k.

### • Trebetasunak

- **Entzumenaren** trebetasunean lortutako puntuazioa 56,97koa izan da; hots, puntuazio orokorrarekin konparatuta (58,33) ia parekatua da, baina pixka bat apalagoa. **Irakurmenaren** trebetasunean lortutako puntuazioa 56,67koa izan da, puntuazioa orokorrarekin konparatuta azpitik dagoela. **Idazmenaren** emaitzak puntuazio orokorrarekin antza handia du: idazmenarena 58,04koa izan da. Eta azkenik, **hizkuntza ezagutzaren** puntuazioa 61,64koa izan da, probaren puntuazio orokorra baino altuagoa.

### EMAITZA OROKORRAK



# Iradokizunak 9



- Euskararen lorpen-mailak zehaztea etapa guztietan. Ikasleriak lortu behar dituen mailak zehaztea eta ikasi beharrekoaren definizio argi bat egitea. Maila eta etapa bakoitzerako helburu zehatzak ezarriko dira, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH amaierarako.
- Administrazioak etapa bakoitzaren amaieran lortu daitezkeen zertifikazioak ezarriko ditu. Zertifikazio hauek ALTE-ren homologazio bidea jarraituko dute.
- B2 ziurtagiria proposatzen da derrigorrezko irakaskuntzaren amaierarako, agian boluntarioa.
- Irakastereduak erreformatzea 10/1982 Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarrizko Legeak markatzen dituen helburuak lortzeko, beraien emaitzak ebaluatuz.
- Irakasleriaren euskararen kalitatea hobetzea perfektionamenduzko ikastaro espezifikoaren bitartez.





## ERANSKINA: ITEMEN ADIBIDEAK

Atal honek B2 Euskara Proba osatzen dituzten 4 trebetasunei (entzumena, irakurmena, idazmena eta hizkuntza ezagutza) dagozkien item adibideak erakusten ditu.

Itemak adibidetzat hartu behar dira, B2 Euskara Proban parte hartu zuten DBHko 4. mailako neska-mutilek erantzun behar zituzten galdera mota adierazteko. Item bakoitzaren ezaugarriak eta erantzun zuzeneko portzentajea azaltzen dira.



## 1. TREBETASUNA: ENTZUMENA

### 1.1. ADIBIDEA: Gazteak eta aseguruak

---

**Testu mota:** Elkarrizketa. **Erantzun mota:** Erantzun itxiak

---

*Testu hau irratitik hartutakoa da eta gazteen intereseko kontu bat jorratzen da. Gaiaren inguruan azalpen batzuk ematen dira eta gehienbat argudioak erabiltzen dute zenbait iritzi defendatzeko. Elkarrizketa bat da eta, aurkezleak albisteak kontatu eta gero, bi hizlarik beraien aburua ematen dute. Testu horri erantzun anitzeko galderak dagozkion. Ikasleek informazio zehatza eta informazio orokorra ulertu behar dute edo ondorioztatu.*

- Irrati programa bateko elkarrizketa bat entzungo duzu. Aurretik, hemen dituzun galderak, arretaz irakurri.
- Testua bi aldiz entzuteko aukera izango duzu eta, entzuten duzun bitartean, galderak erantzun beharko dituzu.
- Atal hau egiten 10 minutu emango duzu.

#### TESTUAREN TRANSKRIPZIOA: GAZTEAK ETA ASEGURUAK

*AZPIMARRATUTA: Aldi berean batek baino gehiagok hitz egiten duenean.*

*# : Bukatu gabeko esaldia*

**KAZETARIA.** Esan duzue lehen gizartea gazteagotu egingo dutela eta nik bukatu nahi nuke gazteekin zerikusia duen gaur ezagutu dugun albiste bati aipamena eginez. Aseguru etxe batek esan du gazteentzako seguru merkeagoak eskaintzeko prest dagoela. 18 eta 25 urte bitarteko gazteei ehuneko 50 ere jaitsiko lizkieke prezioak, gaur egun dituzten prezio handi hoiak eta baldintza bat jartzen diete: kontratu bat sinatu beharko dute eta hitz eman beharko dute ez dutela alkoholik edango eta ez dutela kotxerik gidatuko gauerditik goizeko 6etara. Alternatiba egokia izango litzateke?

**GONBIDATUA 1.** Ba beno, aurrepauso bat iruditzen zait. Gaur egun gazteek arazo handik daukate, ezta? Batez ere motorrakin, ezta? Motokin aseguru bat lortzeko, aseguru poliza bat lortzeko. Beraz nik uste det hori gainditu egin behar dela eta nolabait, baita ere pentsatzen dut bide honetatik jarraituz gero gobernuak neurri batzuk hartu beharko dittuela. Asegurua derrigorrezkoa den neurrian nolabait bermatu beharko da gazteek eskubide hori izango dutela, asegurua egitteko eskubide hori izango dutela eta horrelako albisteak bitxia da baina nik uste dut ba beno, baldintzatu egin daitekeela aseguru poliza noiz egongo den indarrean, noiz ez, adibidez gaueko ordu hoietan... Eta nik uste dut oso inportante dela aseguru konpainia horretarako baina baita ere hiritar guztientzat edo gizarte osoarentzat zeren eta gazteek konzientziatzen badira ordu hoietan gertatzen direla istripu gehienak eta baita ere istripurik larrienak, nik uste dut aurrepauso bat inportante, inportante, oso inportantea izango litzatekeela, benetan.

**GONBIDATUA 2.** Nik ere entzun dizudanean, gustatu egin zait goizeko seirak hori, o zazpiretan pasatuko nuke nik gutxienez, baina seiretan ondoren ibiltzea baitira gaurko parranderoak jeneralean gau pasa egiten dutenak baina, bueno...

**KAZETARIA.** Bai, kotxea aparkatu hamabiak aurretik eta seiak ondo gidatu, ezta? hori esan nahi duzu, ezta?

**GONBIDATUA 1.** Seietan, seietan, ez dut uste seietan jungo direnik kotxe(ar)en bila edo motoen bila.

**GONBIDATUA 2.** Hori, hori, o sea... Egittea da... hemen soluzio berrien bila hasi beharra dago. Egin dan bezala, ba autobusak eta trenak jarri gabaz... soluzio berrien bila hasi beharra dago. Lehen daukazuna, zera... ez dakit... nolabait ein minutu batean sartuta ikusi duzuna... zergatik ez daukazuna da... zera.

Ez diot segururik emango eta hiru urte hartzeko mutileei, adibidez, mutilei, eta kotxetan dabilta, hala ere. Edo izugarriko prezioak jarriko dizkiete eta gero, badakizu ehuneko 35 segururik gabe dabiltzala. Orduan, horren aurrean soluzioak bilatzen hasi behar dira. Hau al da egokiena? Hau bakarrik dala...

**KAZETARIA.** Idealak ez izanda ere soluzioak...

**GONBIDATUA 2.** Bai... edo...

**GONBIDATUA 1.** Praktikoak. Gauetan atera beharko dute. Horra jo beharko dute, beraz, erantzuna eman behar zaio.

**GONBIDATUA 2.** Zi(erga)ttik ez daukazuna da... Herri guztietako, festak osea... oinarritzen dira fundamentalki gaueko parrandan gazteentzako, besterik ez. Eta gauentzat. Eta gero, bestetikan gazte gaztetatikan organizatuko dituzu jendeak kotxea erosi ditzan eta karneta atera dezan 18 urterako. Bestetikan seguruak jartzen dizkiete inpossibleak. Jo, azkenean zer sortzen da? Ba soluzio bila, berri bila... Zein dan egokiena. Ez da beti erreza izango asmatzen. Baina, akaso ordu jakin batzutan seguru honek ez du baliorik izango edo... zea... baldin eta pormil... edo... zerarik edo nola da hori?... edo alkoholaren hori, hor zero-zero beharko duzu baldin eta bestela, holako batzuk gazteari... Nik soluzio bila haste hori eta aseguratzea, mundu guztiya ibiliko da seguruekin eta mundu guztiyak jakingo du hori garbi eta zintzo betetzen dela eta abar, baina nik hortik...

**KAZETARIA.** Bueno, ba albistea hortan da, ikusiko dugu gazteen artean arrakasta duen, aseguretze horiek, noski, bezero asko lortzeko intentzioarekin egingo zuen, dudarik ez dut egiten hortan ere. Eta ikusiko dugu alternatiba horrek modurik ematen duen, ba horxe soluzio bideak bilatzeko bereziki gazteenei arazo asko izaten dituztelako...

**ZEIN DA AURKEZLEAK AIPATZEN DUEN ALBISTEA?**

- Gazteentzako aseguruak merkeagoak izango dira hemendik aurrera .....1
- **Jarritako baldintza onartzen badute, aseguru etxe bat gazteentzako aseguruak merkeago jartzeko prest dago . . .2**
- Kontratu bat sinatzen badute soilik, gazteen aseguruak helduenak baino %50 merkeago izango dira .....3

---

**Eraitza orokorra: 28,3. B eredia: 24,5. D eredia: 30,3**

---

**NORI ZUZENDUTA DAGO ALBISTEA?**

- Gidatzen duten gazte guztiei .....1
- Gauzez gidatzen duten 18 eta 25 urte bitarteko gazteen gurasoei .....2
- **18 eta 25 urte bitarteko gazteei .....3**

---

**Eraitza orokorra: 84,9. B eredia: 77,8. D eredia: 88,7**

---

**ZEIN DA ALBISTEKO ASEGURU ETXEAREN ASMOA?**

- **Bezere gehiago lortzea .....1**
- Gazteek alkoholik ez edatea .....2
- Gazteek gauzez ez gidatzea .....3

---

**Eraitza orokorra: 32,8. B eredia: 27,8. D eredia: 35,5**

---

**ZEIN DA EMAKUMEZKO SOLASKIDEAREN USTEZ GAZTEEK DUTEN ARAZOA?**

- Ez dute asegurua egiteko eskubiderik .....1
- Motoko asegurua lortzeko arazoak dituzte .....2
- **Zailtasunak dituzte aseguru poliza bat lortzeko .....3**

---

**Eraitza orokorra: 32,9. B eredia: 27,4. D eredia: 36,0**

---

**GIZONEZKO SOLASKIDEAREN USTEZ, ZER EGIN BEHAR DA GAZTEEN ARAZOA KONPONTZEKO?**

- Goizeko zazpiak arte luzatu autoa ez gidatzeko baldintza .....1
- Gazte guzti-guztiek aukera eduki behar dute asegurua egiteko .....2
- **Irtenbide berriak bilatu behar dira .....3**

---

**Eraitza orokorra: 60,4. B eredia: 46,2. D eredia: 68,1**

---

**ZENBATEK HARTZEN DUTE PARTE SOLASALDIAN?**

- Hiru solaskide daude: bi andre eta gizon bat .....1
- Aurkezle bik eta elkarrizketatu batek .....2
- **Aurkezleak eta bi solaskidek** .....3

---

**Emitza orokorra: 72,9. B eredua: 63,2. D eredua: 78,1**

---

**ZEIN DA IRRATI PROGRAMAREN EDUKIA?**

- Albiste berrien aurkezpen, azalpen eta komentatzea.....1
- **Albiste baten gainean solaskideen iritziak alderatzea** .....2
- Merkatura ateratzen diren produktu zein zerbitzu berrien iragarkien emanaldia.....3

---

**Emitza orokorra: 62,6. B eredua: 56,6. D eredua: 65,8**

---

## 2. TREBETASUNA: IRAKURMENA

### 2.1. ADIBIDEA: Telelana eta telemedikuntza

---

**Testu mota:** Azalpen testua. **Erantzun mota:** Erantzun itxiak

---

*Azalpen testu hau dibulgaziozko esparrukoa da, Interneten ageria. Hitz tekniko batzuk ditu. Testuaren bitartez, informazio zehatzaren ulermena ebaluatzen da (datu zehatzak, aburuak, informazio ondorioak...). Testuari erantzun anitzeko galderak dagozkion.*

- Hemengo testua arretaz irakurri eta ondoren dituzun galderen erantzunetatik zuzena aukeratu, dagokion zenbakiari biribil bat eginez

#### TELELANA ETA TELEMEDIKUNTZA

Edozein artikulua erosteko, bidaiak prestatzeko, bankuko transakzioak edo gestio burokratikoak egiteko eta abarrerako aukera ematen dizu sareak. Egun, sarea ezagutzeko dugun mundu bat da. Etxetik bertatik lan egiteko edo medikuari kontsulta egiteko aukera ere ematen du.

##### Telelana

Telelana izeneko jarduera profesionalari dagokionez, langileak ez du bulego batean lan egiten eta informatika- eta telekomunikazio-tresnak ditu bere enpresarekin kontaktuan jartzeko. Interneti esker etxetik egin daiteke lan, eta, ordenagailu pertsonala edukiz gero, sarearekin konexioa daukan edozein lekutik. Euskal Herrian horretarako prestatuta daude telezentroak, Bizkaian eta Nafarroan.

Kasu honetan, Internet da enpresaren eta langilearen arteko lotura, eta horrek lan-harreman berriak sortu ditu. Enpresaren produkzio-kostuak merkeagoak dira, ez baitauka egoitza handi baten beharrik, eta lantokirako bidean orain arte pasatzen zuen denbora irabazten du langileak.

Telelanak hainbat abantaila ematen dizkigu:

Onura ekonomikoa enpresarentzat: ez du leku fisikoa antolatu beharrik langileentzat.

Onura ekonomikoa langileentzat: desplazatu beharrik ez dago.

Etekin handiagoa: azken ikerketek erakutsi dutenez, laneko girorik onena norberaren etxea da, han eraginkorragoa baita langilea.

Denbora libre gehiago langilearentzat, ez baititu ordu-tegiak bete behar, eta ezta leku jakin batean lan egin behar ere.

##### Telemedikuntza

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du telemedikuntza: "Informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz, urrutitik osasun-zerbitzuak banatzea, eta osasun-langileek informazioa trukatzeko eritasunak edo kalteak diagnostikatzeko, tratatzeko eta aurreikusteko, eta ikertzea eta ebaluatzea; baita osasun-langileen prestakuntza jarraiturako ere. Hori guztia, gizabanakoaren eta gizartearen osasuna hobetzeko helburuarekin egiten da".

Espaziora egindako lehenbiziko bidaiekin batera garatu ziren teknologia hauek, urrutitik astronautak sendatzeko eta espazioan laguntzeko, ondoan medikurik eduki beharrik gabe. Horrela jaio zen telemedikuntza. Komunikazioen teknologia berrien aurrerapenei esker bidal ditzakegu datuak, seinale biologikoak edo irudiak, baita hiru dimentsiokoak ere, sareari konektatutako telefono-linea baten bidez.

Gaur egun, telemedikuntzari esker gaintitu dugu atenzio medikoaren muga, eta zerbitzu espezializatuak, larrialdien gestioa, eta kontsultak eta ebakuntzak sendotu ditugu. Telemedikuntzarekin errazagoa da gaixoaren bizi-kalitatea hobetzea, etxean dagoela kontrola baitaiteke, haren segurtasuna eta lasaitasuna handituz.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei esker, espezialisten artean ezagupenak trukatu eta taldean aritu daitezke lanean urrutitik, diagnostikoak egiterakoan adibidez, teknikak trukatzuz, eta momentuan bertan ebakuntza kirurgikoak eginez. Hori guztia, bideo-konferentziak ahalbidetzen du eta gero eta erabiltzaile gehiago ditu bateko eta besteko sektoretan. Aurrerapen horien ildotik ezarri da Estatuan Telediagnostiko Sare bat Osasun Sistema Nazionalarentzat, INFO-MED edo Osasun Sare Telematikoan oinarritua.



**ZEIN TOKITAN EGIN BEHAR DU TELELANA LANGILEAK?**

- Telezentro batean .....1
- **Internet konexioa dagoen tokian** .....2
- Etxean .....3
- Horretarako prestatuta dauden Euskal Herriko tokietan .....4

---

**Eraitza orokorra: 44,9. B eredia: 38,8. D eredia: 48,7**

---

**HAUETAKO ZEIN ABANTAILA DU TELELANAK ENPRESARENTZAT?**

- Produktuaren salneurria merkeagoa da .....1
- **Ez du langileriarentzako egoitzarik prestatu behar** .....2
- Lan hobeagoa egiten da etxetik .....3
- Lan-harremanak hobeak dira .....4

---

**Eraitza orokorra: 60,6. B eredia: 52,9. D eredia: 65,2**

---

**ZEIN DA TELEMEDIKUNTZAREN XEDE NAGUSIA?**

- Eritasunak diagnostikatzea .....1
- Osasun-langileei informazioa ematea .....2
- **Gizabanakoaren eta gizartearen osasuna hobetzea** .....3
- Astronauten gaixotasunak sendatzea .....4

---

**Eraitza orokorra: 59,2. B eredia: 58,6. D eredia: 59,6**

---

**NOLA HOBETZEN DU TELEMEDIKUNTZAK GAIXOAREN BIZI-KALITATEA?**

- Zerbitzu espezializatuak eskainiz .....1
- Gaixotasuna hobeto kontrolatuz .....2
- **Gaixoa etxean mantenduz** .....3
- Ebakuntzak hobetuz .....4

---

**Eraitza orokorra: 36,3. B eredia: 37,9. D eredia: 35,3**

---

**ZEIN TEKNOLOGIAK AHALBIDETZEN DU SENDAGILEEN ARTEKO URRUTIKO LANA?**

- Ezagupenak trukatzek .....1
- Bideo-konferentziak** .....2
- Diagnostiko bateratuak .....3
- Telediagnostiko Sareak .....4

---

**Eraitza orokorra: 57,9. B eredia: 56,4. D eredia: 58,8**

---

## 2.2. ADIBIDEA: HIRIAK

**Testu mota:** Azalpen testua. **Erantzun mota:** Erantzun itxiak

*Testu hau testu liburu batetik aterata dago. Testuak argazkiak baditu eta zutabeetan antolatuta dago. Testuaren bidez, paragrafoen ulermena ebaluatu nahi izan dugu, ulermen zehatza, alegia; izan ere, ikasleek testuaren paragrafoei dagokien izenburua idatzi behar dute.*

- Testu liburu bateko testua irakurriko duzu hiriei buruz.
- Aukera ezazu, zerrenda honetatik, testuaren atal bakoitza hobeto laburbiltzen duen **izenburua** eta 1-9 zenbakia idatz ezazu dagokion laukian.
- Kontuan hartu izenburu bat soberan dagoela.
- Adibide bat duzu hasieran.

1. Hiri-mota bereziak
2. Sailkapena
3. Hiriak etorkizunean
4. Hiri modernoetako arazoak
5. Munduko hiririk handiena
6. Hiri-prozesuaren garapena
7. Zenbait zehaztapen
8. Hirien funtzioak
9. Gizakia hiriko izakia

ITEMA	Orokorrak	EMAITZAK	
		B eredua	D eredua
1.	54,4	41,7	62,2
2.	63,9	59,6	66,5
3.	83,4	75,4	88,2
4.	1,8	2,2	1,6
5.	60,6	50,9	66,5
6.	50,9	44,7	54,7
7.	82,0	73,2	87,4

## 9 HIRIA

## 0

Hiriak dira seguruenik gizakien sorkuntzarik garbiena, hau "hiriko izaki" bat kontsideratzera hel daitekeen punturaino. Historikoki hiriak garapen eta aurre-rapenen guneak izan dira, eta gure kultura- eta gizarte-antolakuntzaren moduak "zibilizazio" izena hartzen du, 'hiria' esan nahi duen "civitas" hitz latinotik datorren hitza alegia.

## 1

**Hiri bat**, biztanleak dituen gune bat da, dentsitate handikoa eta mota guztietako eraikinen kontzentrazio handiago edo txikiago batez osatua. Baserri guneetatik banaketa beti da argia, nahiz eta bere itsura, egitura eta funtzioak leku eta momentu historikoaren arabera asko alda daitezkeen.

## 2

**Lorategi-hiria:** luxuzko bizileku-gunea, hiri nagusi baten inguruan kokatua.

**Onddo-hiria:** hamar urterik behin edo gutxiago bere populazioa bikoizten duena.

**Hiri satelitea:** gertu dagoen beste hiri bati lotutako hirigunea.

## 4

Hiriak deskribatzeko eta banatzeko, erabili-lia **funtzioen** sistemaren irizpidea erabiltzen da batez ere. Eredu honen arabera, hiriak beraien erabilpen nagusiagatik definitzen dira (nahiz eta beste erabilpen batzuekin bateragarria izan daitekeen):

- Logela-hiriak edo **bizileku-guneak**.
- **Portu**-hiriak.
- Hiri **komertzialak**.

## 3

Mexikoko hiriburua da gaur egun munduko biztanle gehien dituen hiria, hogeit hamar milioi inguru. Mexikoko hiriguneak Tenochtitlán bailara zaharraren mugak gainditu ditu eta inguruko hiri asko xurgatzen ari da. Egoera hau arrunta da munduan zeharreko hirietan, zeintzuen hazkuntzan topatzen dituzten beste hirigune hauek xurgatzen dituzte azkenean. Honek askotan zail egiten du hiri bat non hasten eta bestea non bukatzen den zehaztea. Kasu honen adibide esanguratsua, Megapolis deitutakoa da, Estatu Batuetan, beste batzuen artean New York, Boston eta Filadelfia hiriak lotzen dituen mila milioi baino luzeagoa den hirigune jarrai bat da.



Foroaren hondakinak, Erroma

- Hiri **administratiboak** (erakunde eta organismo ofizialak biltzen dituzte).
- **Unibertsitate**-hiriak.
- Hiri **turistikoak**.
- **Babes-hiria** edo **gotorleku plazak** (iraganean garrantzia estrategiko handikoak, gaur ia ez dira existitzen).



Sydney hiriko argazkia (Australia)

## 6

Gaur egun Lurreko populazioaren erdia baino gehiago bizi da hirietan, joera hau mende honetan zehar mantenduko delarik. Hirien hazkuntza handiagoa izango da urbanizazio-maila baxuagoa duten hirugarren munduko herrialdeetan.

## 7

Geroz eta tamaina handiagoa duten gaur egungo hirietan, halako egoerak sortzen dira:

- **Masifikazioa.** Askotan hiriak ez daude prest etengabeko hazkuntzan dagoen populazio bat hartzeko.
- **Atmosferaren kutsadura,** akustikoa eta urarena.
- **Zabor eta hondakinen** kontrolatu gabeko produkzioa.
- **Gurpil gaineko trafikoarentzako zailtasunak.**
- **Langabezia,** populazioaren zati baten txirotasun eta marjinaltasunean itzultzen dena.
- **Delinkuentzia eta droga kontsumoa,** batzutan langabeziari lotuak.



Caracas, Venezuela

## 5

Gizakiaren ezarpenak hirietan historia-ren hazkunde zehazten du. Hala ere, bilakaera hau ez da izan inondik inora erregularra eta historian zehar gorabehera garrantzitsuak aurkeztu ditu:

**Lehenengo hiriak:** ibai arroetan agertu ziren, lurrik emankorrenen ondoan eta itsasketarako onak ziren kostako eskualdeetan. Elikagaien eskuragarritasunak eta artisautza zein merkataritzaren garapenak aitzinako hiri batzuek biztanle kopuru handia izan zezaten egin zuten.

**Erdi Aroko hiriak:** tamainan txikiak ziren, batez ere artisautzara zuzenduak eta babeserako eginak, garapen maila txikiarekin. 1492. urtetik aurrera, aurkikuntza geografikoek merkataritza eta artisautzaren indartzea ekarri zuten, honek hiriko jarduera handitu zuelarik.

**Industria-iraultzak** hirien birsortzea ekarri zuen. Lan eskaintza, Erdi Aro osoan emandako eta populazioa baserrietan mantentzen zuten sistema feudalaren erorketarekin batera, baserrietatik hirietarako migrazioa eragin zuen eta ondorioz hauen hazkuntza.

**Hiri modernoak,** makrohiriak dira, tamainan izugarriak eta, baserrien kaltetan, populazio eta produkzio ekonomiko gehiena bertan erdiratzen da. Izan ere, herrialde baten garapenaren neurri klasiko bat hiri eta baserrietako populazioaren arteko proportzioan datza, estaturik pobreenak izanik nekazal guneetan biztanlerik gehienak aurkezten dituztenak.

### 3. TREBETASUNA: IDAZMENA

Trebetasun hau ebaluatzeko ikasle bakoitzak bi idazki egin behar zituen: bata guztientzat komuna zen, gutuna, hain zuzen; bestea, eta bi aukeren artean hautatu behar zuten. Proposamen bakoitzean bai egoera bai idazteko eskatzen ziren baldintzak azaldu genituen.

#### 3.1. ADIBIDEA: GAZTEEN OHITURAK

---

**Testu mota:** iritzi-argudiozko testua. **Erantzun mota:** Erantzun itxiak

---

*Iritzi-argudiozko testua da. Gazten ohiturei gaineko idazlan bat egin behar dute, haien aburu eta iritziak azalduz. Iritzi horiek arrazonatu egin behar dituzte, bai eta kontrako iritziak ere. Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzte.*

*Testuaren egiturak honako osagaiok izan behar ditu: hasierako tesia, argudioaren gorputza eta ondorioa, nahiz eta era labur eta xume batean izan eta testu mota horren egitura beharrezkoa ez izan agertzen diren argudio guztietan. Erregistroa egokia izan behar da: formula oro har.*

*Ezarritako gaia jarraitzekoa da eta gainontzeko ideien ardatza izan behar da. Eredu gisa, gutxienez adibide bat agertu behar da. Garbi adierazi behar du zein gauzeekin dagoen ados eta zeinekin ez. Idazkia koherente izan behar da, hots, ideiak eta iritziak era antolatuan aurkeztu behar dituzte, testua bateratuta egon behar da. Idazlanaren helburua bete behar dute: ikasleek bere ikuspuntuak azaldu eta adibideren batekin osatu egin behar dituzte.*

- Ikasgelan irakaslearekin egon zarete eztabaidatzen gazteen ohiturei buruz:
  - Helduek esaten omen dute gazteek ohitura txarrak izaten dituztela bizitzaren arlo askotan: elikaduran, arropan, ondo pasatzeko garaian...
  - Zure ikaskideen ustez, ordea, gazteen ohiturak ez dira txarrak.
- Irakasleak agindu dizue **idazlan bat** egitea gai horren gainean; bertan adierazi beharko duzu zein iritzirekin zauden ados.
- Zeure **arrazoiak eta zergatiak** eman behar dituzu, garbi adierazi zeren alde eta zeren aurka zauden.
- Oroitu irakasleak irakurriko duen idazlan bat dela, hortaz, egokitu zure idazteko era.
- Zure idazlanak gutxienez **100 hitz** izan behar ditu.
- Saia zaitez idazki ordenatu bat idazten, zuzen eta garbia.

*Jarduera honek irekia da eta ebaluatzeko bost irizpide hauek ezarri genuen: Edukia eta koherentzia, Erregistroa eta formatua, Zuentasuna, Kohesio eta Lexikoa. Bost irizpide hauek azalduta daude 1.2.1. atalean.*

### 1. EDUKIA ETA KOHERENTZIA

5. OSO ONDO
- Eskatzen den edukiari buruzko idazkia garatzea (gazteen ohiturak) eta gai hori gainontzeko ideien ardatza izan behar da. Gai hori, esplikazioetaz gain, adibideekin osatzen da (3 gai bederen: moda, aisia, elikadura edo besteren bat).
  - Posizio bat hartu behar du, nahiz eta kolektibo bakoitzaren gauza batzuetan egon (ala ez egon), hau da, garbi adierazi behar du zein gauzekin dago ados eta zeinekin ez.
  - Idazkia koherente izan behar da, hau da, ideiak eta iritziak argi ageri behar dira eta era ordenatuan.
  - Idazlanaren helburua betetzen da: ikasleak bere ikuspuntuak azaltzen ditu.

---

**Orokorra: 1,3. B eredu: 0,0. D eredu: 2,1**

---

4. ONDO
- Eskatzen den edukiari buruzko idazkia garatzea (gazteen ohiturak) eta gai hori gainontzeko ideien ardatza izan behar da. Gai hori, esplikazioetaz gain, adibideekin osatzen da (2 gai bederen: moda, aisia, elikadura edo besteren bat).
  - Posizio bat hartu behar du, nahiz eta kolektibo bakoitzaren gauza batzuetan egon (ala ez egon), hau da, garbi adierazi behar du zein gauzekin dago ados eta zeinekin ez.
  - Idazkia koherente izan behar da, hau da, ideiak eta iritziak argi ageri behar dira eta era ordenatuan.
  - Idazlanaren helburua betetzen da: ikasleak bere ikuspuntuak azaltzen ditu.

---

**Orokorra: 6,5. B eredu: 4,8. D eredu: 7,5**

---

3. NAHIKOA
- Eskatzen den edukiari buruzko idazkia garatzea (gazteen ohiturak) eta gai hori gainontzeko ideien ardatza izan behar da. Eredu gisa, adibide 1 behintzat agertu behar da (moda, elikadura...).
  - Garbi adierazi behar du zein gauzekin dago ados eta zeinekin ez, nahiz eta gauza horiek gutxi izan.
  - Idazkia koherente izan behar da, hau da, ideiak eta iritziak argi ageri behar dira eta era ordenatuan.
  - Idazlanaren helburua betetzen da: ikasleak bere ikuspuntuak azaltzen ditu eta adibideren batekin osotuta.

---

**Orokorra: 73,7. B eredu: 75,0. D eredu: 72,9**

---

2. GUTXI
- Eskatutako edukia ez da ondo esplikatuta agertzen, ez dira ere adibiderik jartzen; adibideetan geratzen da esplikatu gabe eta aburua ondo kokatu gabe.
  - Ideiak eta iritziak ez daude garbi adierazita.
  - Ez da testuaren helburua ikusten.

---

**Orokorra: 13,1. B eredu: 14,0. D eredu: 12,6**

---

1. OSO GUTXI
- Eskatutako edukiren bat agertu arren, beste gai batzuekin nahasten da. Ez dira iritziak edo azalpenik ematen. Ahal da deskripzio huts bat izan.
  - Ideiak eta iritziak nahasiak dira oso.
  - Ez da testuaren helburua ikusten.

---

**Orokorra: 2,3. B eredua: 2,6. D eredua: 2,1**

---

## 2. ERREGISTROA ETA FORMATOA

5. OSO ONDO
- Idazlan honetan azalpenezko zein argudiozko testuak ageri behar dira, garbi esplikatzeko iritziak eta ikuspuntuak.
  - Erregistroa egokia da: formalegia izan arren, formala, azken finean irakasleak irakurtzeko testu bat da.

---

**Orokorra: 1,2. B eredua: 0,0. D eredua: 1,9**

---

4. ONDO
- Azalpenezko zein argudiozko testuak ageri dira, beste testu motaren bat agertzen bada ere. Garbi geratzen dira iritziak eta ikuspuntuak.
  - Erregistroa egokia da: formala, espresioaren bat ez-formala suertatzen bada ere.

---

**Orokorra: 4,0. B eredua: 1,8. D eredua: 5,4**

---

- 3.NAHIKOA
- Azalpenezko zein argudiozko testuak ageri dira, beste sekuentziaren bat ahal bada ere ageri.
  - Iritziak eta ikuspuntuak garbi agertzen dira, nahiz eta gutxi izan.
  - Erregistroa egokia da: formala oro har, nahiz eta espresio zein hitzen bat arruntak izan.

---

**Orokorra: 40,3. B eredua: 36,4. D eredua: 42,6**

---

2. GUTXI
- Testuak idazlan baten forma badu ere, ideiak eta jarrerak ez dira garbi adierazten.
  - Azalpenak zein argudioak apenas agertzen dira.
  - Erregistroa ez da egokia.

---

**Orokorra: 48,4. B eredua: 55,3. D eredua: 44,2**

---

1. OSO GUTXI
- Ezin da jakin ikasleak daukan aburua, ez dira azalpenik edo argudiorik agertzen.
  - Erregistroa ez da egokia.

---

**Orokorra: 3,2. B eredua: 3,1. D eredua: 3,2**

---

### 3. ZUZENTASUNA

5. OSO ONDO • Testua zuzena da, bai ortografian, bai gramatikan, akats larri 1, 2 gehienez ahal du izan oro har (ortografia eta gramatika kontuan harturik).

---

**Orokorra: 23,1. B eredua: 8,3. D eredua: 32,2**

---

4. ONDO Testua zuzena da, akats larri 3, 4 gehienez ahal ditu izan ortografian zein gramatikan.

---

**Orokorra: 25,1. B eredua: 18,9. D eredua: 29,0**

---

3. NAHIKOA • Testuan zenbait akats daude baina ez dira oso larriak eta komunikazioa ez dute eragozten (5-6 akats baino gutxiago).

---

**Orokorra: 23,3. B eredua: 26,8. D eredua: 21,2**

---

2. GUTXI • Hainbat akats ortografiko zein gramatikalak; batzuetan komunikazioa zailtzen dute. Akats larriak behin eta berriro errepikatzen ditu (7-8 akats larri baino gehiago)

---

**Orokorra: 18,6. B eredua: 28,9. D eredua: 12,3**

---

1. OSO GUTXI • Akats ugari eta larriak; komunikazioa eragozten dute, bai ortografikoak, bai gramatikalak (9-10 akats larri baino gehiago).

---

**Orokorra: 6,8. B eredua: 13,6. D eredua: 2,7**

---

Ikasleek idazlanetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo "larriak" eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Ez dira, beraz, berdin baloratuko. Akats baten garrantzia irizpide nagusi hauen arabera baloratuko da.

Bi akats arinek larri bateko balioa dute.

#### **Akatsen baioespena: Akats larriak**

Oinarritzko arau ortografiko eta morfosintaktikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

Ondokoan idazmenean behinik behin larrizat jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:

- *Gramatika arloan:*
  - Ergatiboa gaizki erabiltzea: "Ni esango dizut", "Nik hasi naiz lanean"
  - Aditzaren komunztadura ez errespetatzea: "Gizonak ikusi dut", "Liburu batzuk erosi zuen".
  - Denbora-nahasketa haundiak: "Atzo gelan egoten ginen", "Etorriko bazina etxera joango gara".
  - Erlatiboak perpausak gaizki egitea: "Ezagutzen dut gizon bat Parisen egon dela".



- Zehargaldera gaizki egitea: "Ez dakit zer ordu da", "Uste dut hori ez da ona", "Noiz itzuliko naizen galdetu dit". Edo galdera zuzenak zehar galderaren –n atzizkiarekin ematea: "Nola esaten den hau?"
  - Ordena gaizki: "Ez nahi du etorri", "Joango behar du", "Daukat etxe bat mendian", "Alokatzeko baserria da gehiegi".
  - Determinatzailearen inguruko akatsak: "Mutila hori", "Mutilak hauek"
  - Posposizioen inguruko erabilera okerrak: "Bion artean", "Ikasturtearen zehar", "Epearen kanpo aurkeztu du lana".
- *Ortografia arloan:*
    - Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak larriak dira beti, baita euskal ortografiako puntu konfliktiboetan egiten direnak ere: z-s-x / tz-ts-tx / h- / g-j eta abar: "au isan sen", "suen azquen hezkutit ezaten senidan besala"
    - Aldiz, beste zenbait huts txikitat joko dira: erabilera urriko hitzen ortografia ("h" ak bereziki), hitz elkartuetan marratxoaren erabilerari dagozkionak, maileguetako – eta –o bukaeretan sortzen diren zalantzak ("dokumento", "zentro", "kredito"... ) eta antzekoak.

Akatsak urriak eta ez larriak direnean OSO ONDO, ONDO edo NAHIKOA kalifikazioa emango zaio idazlanari, akats kopuruaren arabera. Errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten badu edo, sistematikoki izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio.

#### 4. KOHESIOA

- 5. OSO ONDO**
- Testua ondo artikulatuta dago, hau da, esaldien artean eta paragrafoak lotzeko lokailu ego-kiak erabiltzen dira (esaldi konplexuetan, denbora adierazteko, paragrafoak lotzeko, ideiak artikulatzeko...).
  - Esaldi konplexuak eta luzeak agertzen dira.
  - Testua paragrafoetan bananduta dago.

---

**Orokorra: 0,8. B eredia: 0,0. D eredia: 1,3**

---

- 4. ONDO**
- Testua ondo artikulatuta dago, hau da, esaldien artean eta paragrafoak lotzeko lokailu ego-kiak erabiltzen dira gehienetan.
  - Esaldi konplexuak eta luzeak agertzen dira, sinpleekin batera.
  - Testua paragrafoetan bananduta dago, nahiz eta asko ere ez izan.

---

**Orokorra: 7,0. B eredia: 2,6. D eredia: 9,7**

---

3. NAHIKOA
- Esaldi sinpleetaz gainera, konplexuren bat ere agertzen da eta lokailu edo juntagailua zuzen erabilita.
  - Testua ondo artikulatuta dago, hau da, esaldien artean eta paragrafoak lotzeko lokailu egokiak erabiltzen dira gehienetan, nahiz eta batzuetan esaldi sinple batzuk erabili eta loturarik gabe.
  - Testua paragrafoetan bananduta dago, nahiz eta paragrafo asko ere ez izan eta, behar den zenbait kasutan, ez egon (puntuazioa).

---

**Orokorra: 66,9. B eredua: 61,4. D eredua: 70,2**

---

2. GUTXI
- Testua ez dago ondo lotuta: esaldi sinpleak agertzen dira batez ere eta lotu gabe.
  - Oso paragrafo gutxi agertzen dira.

---

**Orokorra: 20,6. B eredua: 30,3. D eredua: 14,7**

---

1. OSO GUTXI
- Testua ez dago ondo lotuta: esaldi sinpleak agertzen dira batez ere eta lotu gabe.
  - Oso paragrafo gutxi agertzen dira edo dena batera.

---

**Orokorra: 1,7. B eredua: 2,2. D eredua: 1,3**

---

Atal honetan kohesioa neurtuko da, hau da, testua ondo konektatuta dagoen ala ez. Beraz, aztertzaileak edukia azaltzeko moldeari begiratuko dio, testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoen edo formen ikuspegitik (izenordainak, erakusleak, mugatzaileak, sinonimoak, loturak...) Esaldien luzera ere neurtzen da, ea gai diren esaldi luzeak eta ondo lotuta egiteko.

Kate idatzian agertzen diren elementuak aurretik edo atzetik esandakoarekin erlazionatzeko dauden mekanismoak ongi erabilita dauden aztertuko da. Era berean, egoeraren testuingurua osatzen duten elementuak (pertsona, lekua, denbora) eta beren erreferentziak ondo josita dauden behatuko da.

- **Sintaxia:** esaldiaren egiturari dagokiona: laburrak eta bakunak izatea, koordinatuak edo mendezkoak, eta esaldien arteko loturak eta loturen erabilera zuzena.
- **Kohesioa:** Esaldi eta hitzen arteko juntagailuen erabilpen egokia eta gainontzeko kohesio tresnen agertzea: lokuizioak (alde batetik..., alabaina, ordea...), ordezkapenak (izen-ordeak...), errepikapenak, elipsiak, etab.
- **Puntuazio** zuzena ere kohesioa egokiaren adierazlea da, ideiak paragrafoetan agertzea, esate baterako, ideiak antolatu eta hierarkizatzen laguntzen baitu.

## 5. LEXIKOA

5. OSO ONDO • Erabiltzen den hiztegia oso aberatsa da, zuzena eta egokia aritzen den gaiarekin.

---

Orokorra: 1,2. B eredia: 0,0. D eredia: 1,9

---

4. ONDO • Hiztegia ona da, gaiari lotuta, egokia eta zuzena.

---

Orokorra: 3,7. B eredia: 0,9. D eredia: 5,4

---

3. NAHIKOA • Hiztegia egokia da nahiz eta oso aberatsa ez izan; lortzen da testuaren helburua.

---

Orokorra: 68,1. B eredia: 60,1. D eredia: 72,9

---

2. GUTXI • Hiztegia mugatua da, oso arrunta. Gaia ez da ondo garatzen. Behin eta berriko errepikatzen dira hitzak.

---

Orokorra: 22,6. B eredia: 34,2. D eredia: 15,5

---

1. OSO GUTXI • Hiztegia eskasa, ez- egokia gairako.

---

Orokorra: 1,5. B eredia: 1,3. D eredia: 1,6

---

Aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna neurtuko da. Bere eginkizunak betetzeko behar duen hitz-altxorraren jabe dela erakutsi behar du ikasleak.

Hitz altxor ugaria erabiltzen ditu ala hitz multzo txiki batera mugatzen da? Esanahi zabalegiko berba zehaztugabeak eta berba makuluak asko dira? Hitzak berezko esanahiaz erabiltzen ditu?

- **Lexikoaren ezaugarriak:** hiztegi arrunta, oso oinarrikoa eta pobrea, ala anitza eta aberatsa erabiltzea.
- **Errepikazioa:** hitz berberak behin eta berriro errepikatzea edo hitz desberdinak barneratzea.
- **Erdarakadak:** horrelakorik erabiltzea lexiko maila jaitsiko du, hitz horiek ohikoak izatekotan batez ere; teknizismo edo hitz ez-ohikoak badira, akatsa ez da hain larria izango. Euskara jasoa eta aberatsa baloratuko da.
- **Zehaztasuna eta egokitasuna:** gaia berak edo testuingurua eskatzen duen edukirako hitz aproposak erabiltzea edo itzulinguruetaz baliatzea hiztegi zehatzaren ezean...

## 4. TREBETASUNA: HIZKUNTZA EZAGUERA

*Esparru honetan bi eduki mota neurtu genituen: hizkuntza ezagutzaren eduki orokorrak eta beste aldetik egitura morfosintaktikoak soilik. Lehenengo eduki motekin erantzun anitzeko galderak erabili genituen eta bigarrenarekin berri-dazketa jarduerak.*

### 4.1. ADIBIDEA: HIZKUNTZA EZAGUTZA

*Hizkuntzaren ezagutza orokorraren inguruan honako edukiok neurtu ditugu: lexikoa, sintaxia, esamoldeak, semantika eta gramatika. Proban 33 galdera egon dira; horietatik 7 komunak izan dira, hau da bi koadernoetan errepikatu egin dira, eta beste 27 berariazkoak izan dira. Erantzun anitzeko galderak ezarri dira*

#### ERANTZUN EZETZ. "ADOS ZAUDE NIREKIN?"

- **Bai zera!** .....1
- Horixe! .....2
- Ez dago zalantzarik! .....3
- Auskalo! .....4

---

**Emitza orokorra: 81,1. B eredia: 75,7. D eredia: 84,3**

---

#### "HAINBAT... EGURRA EMAN DIOGU AURTENGO LIGAN."

- **talderi** .....1
- taldeari .....2
- taldeei .....3
- taldei .....4

---

**Emitza orokorra: 43,0. B eredia: 28,8. D eredia: 51,3**

---

#### "ATZO NESKA-MUTIL HAIK ESAN... GEZUR HUTSAK ZIREN."

- zenizkigunak .....1
- dizkigutenak .....2
- **zizkigutenak** .....3
- zigutenak .....4

---

**Emitza orokorra: 71,9. B eredia: 61,3. D eredia: 78,2**

---

**ZEIN DAGO ONDO IDATZITA?**

- Garrantzia .....1
- Itzua .....2
- **Saihetsa** .....3
- Platerra .....4

---

**Eraitza orokorra: 52,4. B eredu: 42,1. D eredu: 58,7**

---

## 4.2. ADIBIDEA: ESALDIAK BERRIDATZI

Egitura morfosintaktikoak berridazketen bitartez ebaluatu dira. 10 berridazketa egon dira koaderno bietan; beraz, ikasle guztiek berridazketak berak eduki dituzte. Berridazketetan loturen aldaketak edo esaldien beste era batean ipintzearen ondorioz suertatzen zen egitura idatzi behar dituzte.

- Osa ezazu bigarren esaldia, emandako hitza erabiliz, esanahia aldatu gabe eta lehenengo esaldian agertzen diren hitzak, aditz denborak eta abarrekoak aldatu gabe, hots, beharrezkoa dena soilik aldatuz.
- **Bi** eta **lau** hitz artean erabili behar dituzu, emandako hitza barne.

### Adibidea:

- Aitorren arreba oso azkarra da: hori esan zidaten.

### delá

Aitorren arreba... esan zidaten.

Erantzuna: Aitorren arreba...**oso azkarra delá**... esan zidaten.

### ZUHAITZERA IGO NAHI ZUEN: SAIATU ZEN, BAINA EZIN IZAN ZUEN.

#### saiatu

Zuhaitzera.... zen, baina ezin izan zuen.

Zuhaitzera **igotzen saiatu** zen, baina ezin izan zuen.

---

Eraitza orokorra: 66,06. B ereduá: 51,78. D ereduá: 74,63

---

### UXUEK URTEAN ZEHAR ASKO AURREZTU ZUEN, BAINA EZIN IZAN ZEN JOAN OPORRETAN.

#### arren

Uxuek urtean zehar asko... ezin izan zen joan oporretan.

Uxuek urtean zehar asko **aurreztu (zuen) arren**, ezin izan zen joan oporretan.

---

Eraitza orokorra: 88,74. B ereduá: 84,67. D ereduá: 91,19

---

### ANTZA DENEZ, IRAIDE EZ DA JOANGO UNIBERTSITATERA DATORREN URTEAN.

#### omen

Iraide.... Unibertsitatera datorren urtean.


Iraide **ez omen da joango** Unibertsitatera datorren urtean.

---

Eraitza orokorra: 39,70. B ereduá: 24,89. D ereduá: 48,60

---





**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**ISEI•IVEI (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)**

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao / Tel.: 94 476 06 04 / Fax: 94 476 37 84 / [info@isei-ivei.net](mailto:info@isei-ivei.net) / [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)